



**EUSKAL MITO-ERRITOAK
eta EUSKARA**

FELIX ZUBIAGA

Bildumaren diseinua: Felix Zubiaga
Maketazioa: Felix Zubiaga
© Felix Zubiaga
© Ibaizabal argitaletxea
Orue auzoa z/g
48340 Amorebieta-Etxano

ISBN: 84-8325-499-9
Lege gordailua: BI-2169-2001
Fotomekanika: Croman
Inprimaketa: RGM

Egilearekin harremanetan jartzeko:
Aita Pasiotarrak, San Migel auzoa, 2
48290 EUBA-ZORNOTZA (Bizkaia)
Tel.: 94 673 04 86

EUSKAL MITO-ERRITOAK

ETA EUSKARA



IBAIZABAL

EUSKAL MITO-ERRITOAK

ETA EUSKARA

FELIX ZUBIAGA

AURKIBIDEA

SARRERA.....	9
I. EUSKARAREN OROITZA.....	11
1.1. Hitzaren sorburua.....	12
1.2. Sinboloen lekukotasuna.....	14
1.3. Mitoen kontakizuna.....	16
1.4. Erritoaeta hitzaren artezia.....	19
1.5. Euskararen oroitza eta mitoazterketa.....	23
1.6. Onomastikaren oroitza.....	26
1.7. Toki-uneen lekukotasuna.....	30
1.8. Mito-erritoetako ohikunak.....	33
II. ERRITOEN TOKI SAGARATUAK.....	36
2.1. Mendi santutegiak An narearen arabera.....	36
2.2. Mendi santutegiak Utu eduaren arabera.....	38
2.3. Mendi santutegiak Ra ereduaren arabera.....	41
2.4. Mendi santutegiak Ilu leinuaren arabera.....	43
2.5. Mendi santutegiak Ka gisaren arabera.....	44
2.6. Mendi santutegiak Ba bezaren arabera.....	46
2.7. Mendi santutegiak She jasaren arabera.....	47
III. ERRITOEN UNE GARAIK.....	50
3.1. Erritoen une garaiak An narearen arabera.....	51
3.2. Erritoen une garaiak Utu eduaren arabera.....	58
3.3. Erritoen une garaiak Ra ereduaren arabera.....	64
3.4. Erritoen une garaiak Ilu leinuaren arabera.....	69
3.5. Erritoen une garaiak Ka gisaren arabera.....	72
3.6. Erritoen une garaiak Ba bezaren arabera.....	76
3.7. Erritoen une garaiak She jasaren arabera.....	80

IV. MITO-ERRITOEEN UNE ARRUNTAK.....	83
4.1. An nareko mito-erritoen une arruntak.....	84
4.2. Utu eduko mito-erritoen une arruntak.....	89
4.3. Ra ereduko mito-erritoen une arruntak.....	95
4.4. Ilu leinuko mito-erritoen une arruntak.....	100
4.5. Ka gisako mito-erritoen une arruntak.....	103
4.6. Ba baitako mito-erritoen une arruntak.....	107
4.7. She etxeko mito-erritoen une arruntak.....	111
V. EUSKARA MITO BIZIA ALDI-UNEEN IZENETAN.....	117
5.1. An une-mendeen mito bizia euskaran.....	118
5.2. Utu tenore-tokien mito bizia euskaran.....	119
5.3. Ra aroi-eremuen mito bizia euskaran.....	121
5.4. Ilu aldi-leküen mito bizia euskaran.....	123
5.5. Ka garai-gaineen mito bizia euskaran.....	124
5.6. Ba epe-ibarren mito bizia euskaran.....	126
5.7. She asti-zelaien mito bizia euskaran.....	128
VI. JAINKOA ETA GIZAKIA EUSKARA MITO BIZIAN.....	130
6.1. An jainkoa eta gizakia euskara mito bizian.....	131
6.2. Utu jainkoa eta gizakia euskara mito bizian.....	135
6.3. Ra jainkoa eta gizakia euskara mito bizian.....	138
6.4. Ilu jainkoa eta gizakia euskara mito bizian.....	141
6.5. Ka giza arketipoa eta Jainkoa euskara mito bizian.....	144
6.6. Ba giza arketipoa eta Jainkoa euskara mito bizian.....	149
6.7. She giza arketipoa eta Jainkoa euskara mito bizian.....	153
VII. EUSKAL JAKINDURIA EUSKARA MITO BIZIAN.....	156
7.1. An antzeko jakinduria euskara mito bizian.....	158
7.2. Utu eduko jakinduria euskara mito bizian.....	161
7.3. Ra ereduko jakinduria euskara mito bizian.....	164
7.4. Ilu laingo jakinduria euskara mito bizian.....	168
7.5. Ka gisako jakinduria euskara mito bizian.....	169
7.6. Ba bezalako jakinduria euskara mito bizian.....	172

7.7. She xedeko jakinduria euskara mito bizian.....	174
VIII. GRAMATIKA EUSKARA MITO BIZIAN.....	178
8.1. An antzeko gramatika euskara mito bizian.....	180
8.2. Utu eduko gramatika euskara mito bizian.....	184
8.3. Ra ereduko gramatika euskara mito bizian.....	187
8.4. Ilu lezko gramatika euskara mito bizian.....	189
8.5. Ka gisako gramatika euskara mito bizian.....	191
8.6. Ba bezalako gramatika euskara mito bizian.....	193
8.7. She xedeko gramatika euskara mito bizian.....	196
ONDORENA.....	199
BIBLIOGRAFIA.....	200

ESKEMAK

1 ⁿ eskema: Adjetiboen analogia arketipoen arabera.....	13
2 ⁿ eskema: Oihuzkoak zazpi arketipoen arabera.....	15
3 ⁿ eskema: Izenlagunen analogia arketipoen arabera.....	19
4 ⁿ eskema: Konparakinen analogia arketipoen arabera.....	22
5 ⁿ eskema: Jainko arketipo eta giza arketipoen familia.....	25
6 ⁿ eskema: Aurritzien analogia arketipoen arabera.....	28
7 ⁿ eskema: Atzizkien analogia arketipoen arabera	29
8 ⁿ eskema: Tokizenak deskribatzeko konposagaiak.....	30
9 ⁿ eskema: Egoitzaren analogia arketipoen arabera.....	31
10 ⁿ eskema: Une mendeen analogia aditzlagun eratara.....	32
11 ⁿ eskema: Agintekeraren analogia harremanezkoetan.....	35
12 ⁿ eskema: Ekintza/jasaneko aditzen analogia adizkeretan.....	35
13 ⁿ eskema: <i>Gizā=homine</i> izenen mito-azterketa.....	73
14 ⁿ eskema: Mendeen lexikoa arketipoen arabera.....	122
15 ⁿ eskema: Maite lexikoa Detxepare eta Kantikan.....	134
16 ⁿ eskema: <i>Vía>fe, bide> fide, vereda>veritate</i> analogiaz.....	151
17 ⁿ eskema: Jakinduriazko berdinketa/bereizketak.....	159
18 ⁿ eskema: Izenen iruzkina Job 38,28-30-an.....	167

SIGLA BATZUREN IRAKURKETA

(s) sumeriera, (a) akadiera (u) ugaritiera, (e) egipziera, (ara) aramaiera, (h) hebraiera, (arb) arabea, (g) gerquera, (l) latina, (f) frantxesa, (al) alemaniera, (i) ingelesa, (it) italianoa, (ca) catalana, (ga) gailegoa.

SARRERA

Vaticano IIⁿ ean, latinak utzi eta liturgizunak euskaratu zirenean, meza ohikunari “Euskal meza” deitu zitzaion. Anartean mezak ez zeukan euskal xegunik ez erritoaren materiari, ez formari begira, baina haraz gero, euskara jabetu zan latinaren formez eta “euskal meza” deitu ziteken. Aldi beretsuan “Misa criolla” izeneko meza ere kaleratu zan Egoamerikan. Ze bereizketa gertatu zan meza inguruan “Misa criolla” deitu ahal izateko? Erritoaren materia lehena zan funtsean, formaz latinetik erromantzera aldatzen zan. Kantagaien ritmoak, dantzagaien kolorea eta batez ere, parteliarren kultura-xegunak, fedeak eta beroak inguratzen zuan berriren berri. Hala ere, hizkuntzaren formaz gaztelaniak irauten zuan. Latinezko mezaren garaian ere, herri kantu batzuk euskerazkoak zirenarren, eta auzaz aureskuren bat ere bai, erlijio folklore harek ez zuan “Euskal meza” deitzerik merezi izan.

Azalpenerako ez da nahiko argigarri arazoa “Erdal mezari-edo” “Euskal meza” aurkatu nahia izan zela esatea, bada, egundo ez da esan “Erdal meza”, bai agian “Gaztelerazko meza”. “Euskal meza” erritoaren formaren aldetik funtsezko lorpena izan zan euskaldungoan, euskara beti ere euskal nortasunaren ikur bereziena izan delako. “*Euskal mito-erritoak eta euskera*” ikerketa honen tituluan ere euskara azpimarratzen da bereziki, erritoan materia eta forma bereizten direnarren, elkarrenak bai-dira funtzean.

Euskal mito-erritoak jadanik euskaraz zein erdaraz deskribatu eta filmatuta dagoz, baina gaiaren deskribapena materiaren arloan gelditzen da, euskarak garatzen dituen haren formek zeresanik ezbailuen. Eta maisurik argienak ere ezingo du euskal mito-erritoez ezer sakonik azaldu, euskarari galdetzen ezpadio. Euskal mito-erritoen deskribapenez ez dugu gehigarririk esango, bai, ostera, gai multso horri falta zaion formaren argigarria, ots, euskara mito biziaren eritsia gehitu baino, euskara bera egiten dugula ikerketaren metodo eta ikerketaren hermeneutika.

Meza euskaraz emanaz bakarrik, latinik ez dakian euskaldunak kristau erritoaren barne muinean sartzeko aukera hobea du. Ulerbideaz landa, norbere kulturaren gozoaz uztiatzen da bihozkeria. Hareago, kristau erritoak oinarriak Biblian eta inguruko herri zaharretan duenez gero, herri zaharren garaikide den euskarak oinarri haretan eskuartzeko eskubidea izan behar du.

Liburudun kulturako herriek liburuan irakurriaz dakite asaben siniskai eta erritoen berri. Ohikuna hitzez hitz jarraitzea eta otoitzgaiak jatorrizko hizkuntzan zehatz errepikatu baino ez dute. Ohikunak eginkizunak dira, otoitzak esatekoak, esankizuna delarik erritoaren forma berezia. Israelgo judeguk, adibidez, ez dute laketa izan arik eta erritoen ospakizuna hebraieraz egitea lortu arte, hatarako shefarditen eta azkenazien erderak laga beharra izan ba dute ere. Hatarako euren Bibliara begiratzea baino ez dute izan. Judeguntzat erraza da, iturrietara jo eta antxinateagaz topo egitea, ez ostera, antxinatea gaurkotzea, bada ipingi berriak ohial zaharrari tira egin diezaioke, eta puskatua sortu (Mt 9,16-17).

Ahozko kulturadun herriek, ostera, ahoz aho jaso duten jakinduriari eta hitzaren edukinari galdetu behar die: euskaldunek euskarari. Baina nola galdetu euskarari, euskaragaz gaurdaino izan dugun ezinulertuarekin? Zer esan dezake euskarak euskal mito-erritoez, hizkuntzalarien arabera, euskarak bere jatorriaz, edo amaz ezer ez dakiala uste izanik? Ba dakigu euskarak nola bait ba duena bere egituretan gordea antxinako itunbenaren giltza eta euskaldunoi giltza horren berri aztu egin zaigunarren, euskara akort dena eta euskal hiztegia eta izendegia direna euskaldungoaren oroitzapen gordailua. Ausaz, nola galdetu asma-tuez gero, euskarak erantzun ziurra eman diezaiogigu. Galde dezaiozun orduan euskara eratu zuten asabei, azter dezagun behenipehin euren pentsamoldea eta euskararen giltzaz jabetuko ahal izango dugu.

I. EUSKARAREN OROITZA

Udarregi bertsolariak koskak egiten omen zizkion makilari aha-paldien punttuak-eta gogoratzeko. Kode berezia egin zuan ideak eta ideen soinuak gogoratzeko, sumeriarrek ziriez eta egitiarrek jeroglifikoez egin zuten bezala. Zer egiten zuten gure asabek, idazkolarik ezean, belaunez belaun ondorengoei antxinakoen erritoak eta ohiturak gogarazteko? Urteroko jai ospakizunak antolatatu, umeen kantuaz baliatuz, haien berri eman aurretiaz, Donianez eta Urte Berriz egiten den/zen bezala, imintzios eta mintzo biziz kontakizunak edatzi gau luzeetako sutondoan, bertoz abestu plazan, atsotitz eta otoitzgaietan bildu esankizunik beheinenak.

Festako ohikuna beteaz gero, "legea bete dugu" esan zezaketen eta urterik urte herriko oroitza berritzen joan, baina ospakizunaren zehaztasun asko galduz joan ziren burumuinean haren gogorangarrirako abesti eta dantza zahar batzuk, esankizun, ipuin eta batez ere euskararen kodea gelditzen zaigula. Zertan den euskararen kodea, horra gure ardura, kode horren bidez/metodoz euskal mito-erritoak azaldu ahal izateko. Beste era batera galdetuz, nola asmatua zuan hizkuntzaren kodea giza jainkozaleak? Giza jainkoaleak gizarteak ezeze, gizarteak jakinkoekin hitz egiteko asmatu zuan hizkuntza, hatarako zazpi (zenbaki biribila) bozeramale aukeratzen zituela: lau lekuko zerutik, hiru lekuko gizartetik. Zeruko eta lurreko zazpi bozeramale, ahalmen edo lekukoon artean egiten da elkarren arteko itunbena¹. Zazpi lekuko hoiek ezagutu eta euskarak haien ahotik erantzuten duen jakingo dugu.

Euskara kodea egiteko zazpi arketipoz baliatu bazan, zazpi lekukoon arabera eutsiko dio itunbenari eta, beraz, bere memoria-ari. Zenbat eta sintesi handiagoa egiten duen bozeramaleen aukeraketan, logika handiagoz bilduko eta iragarriko ditu bere mezuak. Areago, zeruko eta lurreko lekukook, lekua izanik, iraun-

¹ "SIETE", Dic.B., o.c., p. 188-1859.

korrak badira, orduan eta zindoagoa izango da euskararen oroitzatza, euskaldunaren zentzun guztiak dagozkelako lekukoon adi.

1.1. Itzaren sorburua

Euskararen oroitzatza haren edukin arruntenetik ate galdetu behar da. Gaur hitza, hizkuntzalarien arabera, adierazle/adierazi klabean ulertzen da, baina hasiera baten hitza arketipoengandiko analogia doia zan eta, antxinako gizakiaren pentsamolderen arabera galdetu ahal izateko, analogizatzailea/analogizatuera-tan ulertu behar dugu. Hori eginez gero, euskaren memoria, ordenadorearen ilunbetan gelditzen diren arrastoak baino argiago erantzungo digu antxinateaz.

Analogia *ana+logos* “goitiko hitza da” gerkarren arabera eta nolabait giza jainkozaleak arketipo deritsen zeruko eta lurreko eredu orokorrak darabiltza hitzen sormenean.

“Gazteak txukunkeriarik gabe ospa dezala bere jainkoaren hitza, Sumer herri leihalean bizi diren gizakiek aria bezala burutu dezatela”².

Sumeriarrek, gainerako asabek bezala, jainkozaleak izanik, euren jaikoaren hitza ospatu eta burutzen zuten, areago, babiloniar eta egitiar apaizek euren jainko-arketipoen arabera, edotariko jakintza hiztegiak bezala, onomastika pilak eratu zituzten gramatikaz, botanikaz, tokizenez, etab. Eskolabide hau 2.600 K.a aurretik egiztatzen da eta jainko izenak errenkadan doaz: *Anu, Enlil, Inana, Enki, Utu*, etab. Kuneiformez idatzi taula zerrenda batek 1970 izen ditu. Lehenbizi *Anu* izena dager, urren haren goitizenak eta jarraian haren emazte, seme-alaba, aialdekoen izenak eta, azkenik, morroienak³. Nolabait adierazteko, seme-alabak gurasoen izen-abizenez deitzen diren bezala, hala jainko egileen ize-

2 *El hombre y su dios*, 2-3, DB. n^o 26. Cf. burutu “desarrrolar”.

3 LIMET, H., “PANTEÓN (religiones mesopotámicas)”, DR., o.c., p.1357. Egiptoko apaizen antzeko ohiturari buruz ikus (MORLA, V., *Los libros sapienciales y otros escritos*, o.c., p. 37.)

nez deitzen ziren gizakiak eta gauzak. Orobat gizakiak, jainkoengandik zuan sorkuntza ahalmenaz, bere nortasunaren arketipoez ere baliatzen zan hitzaren lekukoak aurreratzean. Jakinduria zaharreko gizakiak (Job 38, 28-30) honela galdetzen du: “Ba al du euriak aitarik? Nork sortzen ditu iruntzaren tantoak? Ze erraitik ateraten da izotza?” Aita aitatzaz batera, haren izena semearen izenarekin bat dator jarraian. (Ikus 18ⁿ eskeman) Jainko eta giza kalitatez taula bat egin eta bata besteekin konpara genitzake, jakinik jainko arketipoak *An/Anu* “zeru”, *Utu* “iduzki”, *Ra/Horus* “iruzki” eta *Ilu/El* “ahal” direla eta giza konplexua osatzen dutenak, berriz, *Ba* “baita”, *Ka* “korpitz-kaizua” eta *She* “txertuaz bezala, erritoz jainkoengandiko duintsunez eztitua izatea”:

1ⁿ eskema: ADJETIBOEN ANALOGIA ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	BA	KA	SHE
on/único	done/duin	arin	aliym/alén	bon/bueno	gartzu	xain/txau
antu/ancho	total/sonto	orokor	altsu/lar	bortiz/fuerte	guen/grande	sano/santu
andi/magno	itzal/suhar	arro/robusto	luze/laso	bigun/flaco	gazte,feroz	azkar/astun
mana/manso	otsan/dulce	arisco	lene/latz	apal/humilde	gozo/garratz	ezi/áspero
maratz	usu/justo	aratz	loi/limpio	apain	guri/gordo	zaindu
majo	eder/txukun	real	lúcido	bello/pulcro	garbi	sagaratu/sacro
mazal	zuzen/justo	arrai	alái/lehial	benazko	garden	sanctu/saindu
miragarri	txundigarri	arrigarri	liluragarri	fascinante	gurgarri	jaso
mardo	doatsu	eroso	lorios	feliz/heureux	grato	eskartsu
emky	zogi/sofhos	argi	logios	filósofo	gurbil	sabio/jakin
antxina	atton/atso	urteide	old/longevo	viejo	agure/gaiso	zahar/txar
makal	donga	raka	alkeor	basa/bajo	gaizto/kakos	azken/zantar

Ohar: Jainko arketipoez kalitate onaren ukapena -ka/-ga atzikiez egiten da, baina giza arketipoez berez sor ditzakete kalitate onak edo txarrak.

Zazpi arketipoon presentzia beste zenbait tokitan eta arlotan ikusi beharko dugu, lekuko zindoak direnetz jakiteko eta orduan nolabait egiztatuko M. Müller, erlijioen azterleak, inoana “nomina sunt numina” egia den edo beste hau “erlijioen ikerketa gizakiek gizaldietan Egilearekin hitz egiteko erabili zituzten hizkun-

tzen azterketa baino ez da” euskararekin bat datorren eta, beraz, euskara, Jainkoak paradisuan lehen bikoteari erakatsitako hizkuntza barik, zazphikun arketipoengandiko analogia den⁵.

1.2. *Sinboloen lekukoasuna*

Gizakiari zentzunetatik datozkio ezaguerak. Ezin ikutuzko gauzen esperientziak, hala nola zeruak, neurtezinaren idea sortu zuan gizakiagan. Sikologiazko teoriaren araberrara, herri guztietan izadiko sorkari eta ikuskizun diren zeru, eguzki, iretargi, etab. jainkoben pertsonak ordezkutzen zituzten⁶. Hitzza bera ere sinblook ordezkutzen zuan. Hitzaren sinboloa, ostera, ariketaz garatzetan den ahozkatu-bidaldua da. Sinbolo den aldetik, xegun zatia daroa aldean, itzuleran bidaldu duenaren beste zatiarekin ea bat datorren jakitekoz. Bere xeguneko marka badakar, erantzun zindoa da, galdegaiaren erantzuna arean. Eliptikaren teknika du: polo bata gordetzen dela, bestea garatzetan astintzen da. Bidaldu-gutunaren bihozkerata batez maite erantzuna itxaroten du.

Sinboloaren jokua goia eta beheata mugimenduan jartzen ditu, ikusten dena eta ez dena, urrekoa eta urruneko, Jainkoa eta gizakia, dena eta leitekena eta bere argitan materia espirituaren serbitzuan jartzen da. Sinboloak gizakia beste indar baten joranean jartzen du, promesa baten agiria bezala nabaritzen da, eta otoi bihurtzen zaio sinbolo otsez deitzen den jainkozko arketipoa⁷. *An/Anu* dela Zeru jainkoaren sinboloa? “*Ene!*, *Ainü!*, *Ino!*” dei egingo dio gizaki jainkozaleak bere ezintasun, ernegu edo pozjarioan, aurrak “ama, atta” deiera egiten duen bezala. Oihuzko monosilabook dira, izan ere, hizkuntzen lehen mintzagaiak, sinboloen kultura eta hizkuntzen monosilabismoa garaikide datoze-la. (Ikus 2^a eskeman) Milaka urte geroago, erritoaren arian eratu-

5 Arazoa ez da hizkuntzak jainko iragarpenaz ala gizarte erabagiz sortu ziren galdetzea, gizarte erabagia eta eskola zertarikoa zen jakitea baino.

6 BUREAU, R., “Etnografia religiosa”, DR., o.c., p. 576-579.

7 VIDAL, J. “SÍMBOLO”, DR, o. c., p. 1654-1661.

2^a eskema : OIHUZKOAK ZAZPI ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	BA	KA	SHE
ene,eune	otoi	ara	el	bea,vaya	gel,gora	asa,ajai
enei	ut,ux,zut	ra,rau	olé/iole	vae(l)	ka,quia	zaust,zás
ño	txut/ixo	arrano	(h)il	ave,afa	gero	ixi,atx
oino	et/eit	arraio	ola,aló	ba,but	coño	xapi,zape
amen	uju,uju	urra	ala,ela	eup/bua	agur	chao
ainü	otian,utinam	rayos	elas,alto	hip(i)	cáspita	txist,chitón
aan	aida,iso,so	arre,aira	aleluya	uf,huf	kontuz	esti,este
año	uxela,ojalá	arren	alajina	balinba	egian	ezbe

ko ziran *oraciones gramaticales* deitu otoi eredu osatuagoak.

Jainkoekiko oihuzko hitzok jadanik desagertzeraz doaz gaurko literaturan, baina ahoz ahozko euskara bizian eguneroko soinua dira ezpainetan eta arretaz errepikatuz bakarrik, baserriko aurtzarora ezeze, neolitosko giza jainkozalearen oroitzapenena “*inconsciente colectivo*” delako ohargabea gudan iraxekitzeko gei diren ikusi behar dugu. Oihuok ez dira gehien bat gaitzetsi elizako maisutzan, baina batzuk “ez da hori esaten” ohartzerraino, ez egokitzen emanak izan dira. Ohartzekoa da jainkoei egin-oihuok duten otoi edo ainen asmoa, gizarteko oihuen aldean, hoiek bardingoen arteko olesak edo zemak bai-dira. (Ikus 2^a eskeman).

Sinboloetan harrigarriena hizkuntzaren hiru garaietan Jainko beraren izena gorde ahal izan duela euskarak: monosilaboz -*Ino-tean* agertzen denez- *Ino* zena, aglutinatuz *Inko* ezaguna bai-da eta hizkuntza zauliaren garaian *Jainko* eta hirukoitz sinboloei egin oihuzkoak *Inoo!*, *Inko Jaun!* *Ene Jainko!* gordetzen ditugu euskara bizian. Seme-alabok lokartuarren, ez ete da erne bizi amaren bihotza? (Ikus beste jainko familiaren izenek 5^a eskeman)

Herri gutzik izan dute halako zoririk, hitza harrian, ez buztinean edo paperean idatzi barik, mintzo bizian eta mintza ereduaren katean iraunaztea. Bidean pauso gutxi eman orduko, euskara gidari ona dela ikusten da. “Sinistu hizkuntzari” errepikatzen zu-

an M. Müller, aipatu autoreak, gure kasuan euskarari, erraturik gabe, sortu eta eskolatu gintuen amaren etxera bai-garamatza.

1.3. Mitoen kontakizuna

Sinboloaren abentura mitologian garatzen da eta gure asabek mito deritzaien ipuinetan kontaktzen zituzten antxinako gertae-rak. Sumeriak, Egiptok eta jadanik desagertutako beste herri ba-tzuk idazkiz ere eman zituzten. Idazkiz bildutako mito haiek ere antxinagora jotzen zuten herria edo uria sortu zeneko oroitzen bila. “Zirelako, gara” esakuna bezalakoaz jabetzeak sortarazten ditu mitoetako gertakizunak “halakoak zirelako gara holakoak”.

Mitoetako kondairetan jainko eta giza pertsonaiak agertzen dira eta arketipoen lekukotasuna dagokie zeru-lurretako auzian. Mediterranean inguruko herriek izadiko iturri beretik edan zituzten euren historia sakratua osatzen zuten ereduok: zerua, lurra, eguzkia, gizakia. Eredu berberak izanik ere, deieran ez zetozten beti bat. Sumerian *An/Anu* “zeru” zena, Egipton *An+Utu>Nut* zan, *Anu* jainko, *Nut* jainkosa. Sumerian *Utu* “iduzki” zena Egipton *Ra* zan, baina *Utu* sortaldeko iduzkia eta *Ra*, berriz, sartal-dekoa bereizten zutela. Hagatik sortaldeko iduzkari *Utu+Anu>Aton* deitzen zioten Egipton. Orobat Sumerian *Ki* “lur” arketipoz soila zena, Egipton *Ka+Ba>Geb* arketipo bikoitza zan. Hitza arketipoaz josita dagoenez gero, hasierako aldeak hizkuntzen ezberdintasuna gertatzen zuten arketipoen maila orekatzean, baina maila ez-berdinotan arketipo elkarkideak zituzten⁸.

Ez delakoan ere, gizakiak beti jarraitzen dio sinboloari C. G. Jung sikolojistaren gardiz, hori berezkoa eta geroko sormenaren erroko bai-du giza gogoak⁹. Mitoak sinboloaren esperientzia du aurretiko, sinboloaren arragoak berotzen du giza gogoan, mintza-gaia ahozkatzera bultzatzeraino hatan ere.

8 Hasiera baten “mudu guztia zan hizkuntza berekoa” oroitzen du Bibliak (Has 11, 9), arik eta Babel Dorrekoa gertatua gertatu.

9 VIDAL, J. “JUNG, C.G(1875-19619), DR., o.c.p. 936-941.



Amonaren kontuak, ipuinak, esakunak, atso-titzak, erasak... Amoniak lelotan kantatzen zigun! "Amumak, atzamarrekin kontatzen dabena antzeko imintzi-oz berba egiten euskun". Hala-koxea zan amonaren eskola eta haren oroitzak-gugan diraute.

Mitoen hizkuntza hastapeneko eleketa da, ahoz-ahoz gugaraino heldu diren ipuin zaharren antzekoa, baina funtsezko gaiak dituzte kontagai: munduaren sorrera, herrien jaiotza eta gizakien jainkoekiko ezkontza¹⁰. Mitoa elkarte horretako agintzarien ituna da, hitza delarik, ahoz-ahozko hitza berere, itunbenaren agiria.

Mitoak zeruko eta lurreko pertsonai-arketipoak jainkoen eta gizartearen arteko auziaren lekukotzat aurkezten dizkigu, erduzko narraketa egiteko asmotan. Mitooi esker, gizartea, bizitza eta heriotzaren gainetik berrizten doa azkengabeko itxaropenaren lorpenean.

Arketipook, Jung sikoanalistaren arabera, giza ohargabearen zeru makoa osatzen dute eta haren betiko sorkuntza adierazten. Erakundeok, bere ustez, bakoitzaren oroitzua aurretiko enerjia lez eragiten diote, eurak dituela gidari orokor edotariko egikizuntan, eurak lagun izadiko indarrekin baterako ihardunean. Autore honek era bitako arketipoak bereizten ditu: jainkozkoak eta nor-

10 VIDAL, J., "MITO", DR., o.c., p. 1205-1210.

11 VIDAL, J., "JUNG, C.G." DR., o.c. p. 936-941.

berarenak. Giza arketipoak gizakiaren ardatz dira eta norbere ohargabea “yo inconsciente” osatzen dute. Norbere arketipoak “de sí mismo”, bakardade esperientzialakoz norberenez erantzten dira eta, itxasoan untzia izarrez gidaritzen den bezala, goitiar arketipoaren atesuan jarten du, giza arketipoa jainko arketipoak osa bai-dezake arketipo bezala, edo bestelaz esanda, Jainkoagan sinistea dagokio, gizakiagan sinistu ahal izateko. Areago, Jung sikoanalistaren ustez, hizkuntza bera da hasierako asmoen berria mezutzen digun benetako mito bizia. Harritzekoa ere bada, euskara mitoaztertu gabe Jung eritsi horretara heltzea. Horixe delako euskara: gure asaben asmoen eta lorpenen berri ematen duen benetako mito bizia. Berari mito mailan galdetu aurretik, ohar dezagun 2ⁿ eskeman gizakia



nolako ohiuez harrigarritzen, etsitzen, amorratzen edo solasten den jainkoe-kiko edo kideekiko elkarrizketan.

J. Lacan sikiatraren gardiz, Jainkoa hitza sortzen den uneko lekukoa da. Zerbait esaten deno Jainko hipotesiak ba dirau. Izan ere, bere ezintasunak jartzen bai-du gizakia “Bestearen irrikan”. Beste hori “el Otro” elkarrizketa-

No eta to sinboloen arian urliaren bila

kidea da, hitz egiten dudanean adi dagoen heren lekukoa, nire hitza sinistagarria egiten duena eta hitzaren itunbenean egia eta gezurra ziurtatzen duena. “Beste hori” edukinen kodea da “código de los significantes”¹¹. Ikus dezagun 3ⁿ eskeman ze analogiaz izentatzen dugun izenlaguna: norbera, aurkakoa eta hirugarren pertsona.

Autore beraren ustez, giza jainkozalea Jainkoaren pentzudan jartzen denean, erabat bere egia idorotzeko bidea eragozten omen du. Halako jarrerak norbere gogoa Jainkoaren eskuetan

11 CATALAN, J. F., “LACAN, J. (1901-1981)”, DR., o.c., p.970-9971.

3^a eskema : IZENLAGUNEN ANALOGIA, ARKETIPOEN ARABERA

UNO	DUO	IRU	LAU	BOST	EKSA	ZAZPI
en/ni/no	tu/tou	er/ar	ille/él	ba/hako	ego/eketa	txe/je
mi=me	tto/txo	eurak	le/la	beste	gu/kau	txeia
nor/inor	ti/zu	ura	alguien	bat	qui/quién	zein
eni/mihi	tui/tibi	ari	lui/ler	vobis	cui/cuyo	sibi/si
nos/noster	ode/zoin	ori	allelon	vos/vester	gure,ekeien	sfeis/sfon
nemo	deus	urlia	alter	hic/hoc	ekeinos	se=ses
neure	su/zure	euren	illius	berendia	kori/que	ése, éste
mengano	zutano	urlain	alako	fulano	quaedam	sandia
nada	uts/todo	rien	algo	pan	cosa	zer
aina	autos/tal	eren	lo/los	bera	aquel	zerbait

ezartera eta ezeztatzera bultzatzen ei du. Orduan Jainkoaren us-tezko borondatean jartzen du eskaria eta hura edukitzen saia-tzen da, halako maite jokuari bide ematen diola. Autore honek edozein ama-umeen harremanetan ikus zezaken ereguen eta er-reguen maite joku hori. Ohiuzkoetan ere hizkuntzen aurtzaroko hizketa berbera aurkitzen dugu. Edozein sikiatrek agizta dezake, gainera, ama-umeen arteko eregu/erreguen maite joku hori osa-sun seinale ere ba dena.

1.4. Errittoa eta hitzaren artezia

Errittoa arketipoekin harremanetan jartzen du gizakia, honek ekintzan egoki erabaki eta ahaleginean lorpena izan ahal dezan. Era honetan hasiberrien errittoa, adibidez, hasiberria izate arruntetik sagaratu izatera aldatzen du¹². Errittoa hatarako bi-dea erraztu ezeze, giza balditzak ikasketa zorian jartzen ditu, talde berezi baten partele eta maila goitar batera igon delakoa sentiarazteko bultzada ematen diolarik. Eta hasiera baten magiazko artezia zena, ordena sagaratu izatera heltzen da, azken baten erlijio jarreran sendotzen dela. Hagatik errito legea gogoaren beharrezko legeak gainditzen ahalegintzen da.

12 RIES, J., "HOMO RELIGIOSUS", DR., O.C., P. 763-768

Erritoaren eginkizuna funtsean jainkoekiko harremanak erraztean datza. Bide batez, talde baten erlijioa eta kultura errotuz, herriaren batasuna indartzen du. Hala ere errittoa indarge gelditzen omen da ideologia baten menpeko egiten deneko.

Errittoa, taldeak gordetzen duen oroitzari esker, munduaren eta gizakiaren edo herriaren sorreraz eta giza salbazioaz asabek zituzten antxinako esperientziak berritzen ditu.

Garbikuntzako errittoiari errua aitortzea dagokio eta suaz errezen den opariak penitentziatzko garbiketa adierazten du. Garbiketa bera dino Inotean edo elizkizunetan gaitzak aratzeko ixipuz astintzen den urak. Errittoa indar sagaratuaren bidez gaitza gale-razi nahi du. Jaiaren mezuak sagaratuaren garaipena eta poza aldarrikatzen du, jainkozko indarrak azken baten heriotza menderatuko duelako ziurtasunaz.

Errittoa sinboloen eskola berekoa izanik, Sumeriako santuenean *ma-h(s)* jainko irudia ezarten zan eta gizakiaren santutasun arruntak ordezkatzeko zuan *kù-g(s)* izateak eta erritotz jainkoengandik doiki lortu *zi-d(s)* txit santu izateaz eztitzeak omen egiten zioten¹³. Areago, jainkoek eman *me(s)* aduen arabera iharduten zeino aduok indarrean egozen, bestela hutsean gelditzen zirela¹³. Milaka urte geroago hititarrek sumeriarren eskola bereko irauten zuten zizko eta zehatz-mehatz eratzen zituzten errittoa, partele bakoitza bere tokian jartzen zutela: lehen mailan erregea, urren menpekoak, hori baizan euren ustetan benetako eraspina eta jainkoei zor dedu eta zuzenbidea. Hori dela-ta, errittoa “jainkoei kultu emateko jakintza” definitzen zan.

Mari, edo Jonagorri euskaldunen jainkosari sor zitzaion kultoak ere errittoa bereziak betetzen zituan inor bere mendiko tenplora eskabideren bat egitera-edo joaten zenean: a) aurrezka sartu eta atzezka urten behar zuan, b) une guztian zutik egon Mariren

¹³ RIES, J, “SAGRADO -2. La expresión de lo sagrado en el mundo sumero-babilónico”, DR., o. c., p. 1577-1578)



Joaldunak, ibiltaldiko aurrelariak, Iturengo Inotean gaitzen araolari doaz apaiz jantzitan: atorra zuriak, larruzko txamarrak, tuturrodun eta joale=arranen txilinteria zintzilik eta ixipua eskuman. Sumer-Babiloniatik hona apaizen xegunak dira denak ere.

aurrean, c) ez zitzaion hika berbarik egin behar sekula¹⁴.

Anartean hitza erritoari forma berezia ematen dator, gaitzaren kontra ura astintzen denean, gaitza hitzez araozten bai-da eta araoak tenploan dagoen jainkoaren arketipo-otsa erabiliko du aurrizki beste jainko edo giza arketipodun gaizkilearen aurka. Orain arte gelditu

diren magiazko hizkili-miliketan ere halako formulak gelditu dira. Formula huts egiten duenak ez du eskakizuna lortzen eta esankizuna itzuleztara dinonak hako sorgin hasiberriari gertatua gerta zezaioken, bada, “sasi guztien azpitik eta laino guztien gainetik” esanez kosmoko ordena puskatu zuan eta ondorioz, zeharo urratu heldu bai-zan gau batzarrera¹⁵.

Erritoak halako zehaztasunez iharduten duenez, hitzaren konposaketan ere arreta ber-bera hartu behar zan, jainko arketipoak eta giza arketipoak txandatzean. Mesopotamia eta Egiptoko a-

14 SORAZU, E., *Antropología y religión en el País Vasco*, o.c., p. 291. Cf. Ddonagorri/Jonagorri “ekur(s)=mendi tempoko Andrea”=Dona=Señora.

Hizkerak bigarren pertsona barik, hirugarrena, ots, urlia aipatu behar zuan.
15 Mozambiquen 2000 urteko martxoan ugolde handiak izan zirala, herriko jendeak behingoan susmatu zuan: “jainkoek gaizki ulertu dute legortean euritarako egin genuen arrendi larria, eskatua baino gehiago bidalduaz”.

4 ^o Eskema : KONPARAKINEN ANALOGIA ARKETIPOEN ARABERA						
AN=uno	UTU=duo	RA=iru	ILU=lau	BA=bost	KA=eksa	SHE=zazpi
ain/oin	duin	aren	lain	bein/bai	cuán=qué	zein,asina
ansí	zoin	arean	aulan	bezela	gino	zelan,selon
antzo	edu=uti	urreean	lez	veluti	gisa=guisa	jas,yes,ez
onan	idem=adin	orrela	olan	bardin	kide/equale	sic,así,sí
nola	oso/total	eratan	ala/ola	bezain	cual	txit,chic
muy/anitz	sumo	real	alaen	behinen	como	sano,sane
inobre	super	areago	alyn(u)	presque	geiago	ya,según
ainbat	tanto/tal	aria	alako	parecido	igual	semeios
máxime	thusto	eurrez	lar	vix, pene	guzti	asko
nahiko	doi, soil	erruz	alaso	harto, bien	gutxi	assed
minus	ttantta	ralo	labur	poco	ka/quia	eskaz
noski	utique	real	alegia	vere, bai	egiaz	certe
ante	edo	ordea	aliter	bestela	contra	extra
nahiz	todavía	or	alor	baina=pero	agian	siquiera
modo	talante	raso	ley	baremo	criterio	sentido
norma	edu=tipo	eredu=orden	laia	forma	clase	especie=sail

paizek euren jainko eredua bideko harturik, izendegi zerrendak egiten zituzten ohitura zahar bateri jarraiki, berdin teologiaz, astronomiaz, toponimiaz, gramatikaz, etab. enziklopedien antzeko eskola gertaten zutela¹⁶. Izendegiok izan ziran hizkuntzen lehen hiztegiak eta hizkuntza eskola eta mediterranean inguruko kulturaren eragina handia izan zuten, gaurdainoko sinonimia uharria lekuko.

Izenak asmatzen horren zehatzak izanik, hitzen joskeran ere orratz fineko lana egin zuten gai bereko ari puskek uztiatuz, hitzak eta haren arteko lokarriak eratzen, lexikoa gramatikaz burutzen zutela. Erritoen forma horri *oraciones gramaticales* deitu izan zaio gaurdaino, eta gaurko eskolak, izenak aldatuarren, ezin-go du itzuri hizkuntzaren barne-egiturak duen gizaki jainkozalearen predika¹⁷.

16 LIMET, H., "PANTEÓN"(religiones mesopotámicas), DR, o.c., p. 1357.

17 "Jainkoak itzuri ditugu, baina hor dago Gramatika ezin ekidina" esan omen zuan Nietzschek.

Jainkoei izena eman zien gizaki berak asmatu zuan eurekiko eta gizarte harremanetarako hizkuntza, M. Müller erlijio historigilearen arabera eta euskara mitoaztertuaren egituretan agertzen denez. Beraz, paradisuan Jainkoak lehen bikoteari hizketan erakutzi ziolako mitoak ez du funtsarik¹⁸.

1.5. Euskararen oroitzia eta mitoanalisi

Mitoak gizakiak jainkoekiko izan duen itunaren kondaira dira, herriek erritoz aldioro ospatzen duten bezala. Maiz galdetu zaio euskarari, baina haren barnetiko egitura ezagutu gabe. Euskarak jainko eta giza arketipoez osatuta dagoenez, haien edukineko analogiaz erantzuten du. Zazpi arkektipoon izenak euskarak gogotan dituen zera, haiegazko mito erritoen argitasuna hurrago dugu. Zazpikhun zeru eta lurreko lekukoen osotasuna adierazten du ($Is_{1,2}$)¹⁹ $An(s)$ =zeru, $Utu(s)$ =Sortaldeko iduzkia - $Aton(e)$ -, $Ra(e)$ =Sartaldeko iruzkia eta hirurak lotzen dituen al/ahala den $Ilu(u)$ alde batetik eta giza konplexua berez osatzen duten Ka =korpitza, Ba =baita/pneuma eta, txertuaz bezala, jainkoengadik erritoz lortu She =santu izatea, goiko lekukoen kidegorako duintzen duena. Euskara zazpi lekukoon itunbenaren agiria denetz jakiteko, giza jainkozalearen mentu arabera galdetu behar zaio.

Oroimena joaneko aldiak eta ekintzak oroitzeko ahalmena da eta errittoa, berriz, gomunta hori berriztean egiten den ariketa. Gizakiak norbere eta herriaren sorrera eskuratu nahi du, hako Egoameriketatik Euskadira asaben abizenez galdeten dutenen jakinminaz bezala. Erritoon ariketako jaia datorrenean, gainerako arazo guztiak alde batera utzi eta ohitura betetzeko antxinate-ra igez egiten dugu Eguberri edo Inoteetan bezala. Erritook gure gomuta astintzen dute, gaur ere antxina baten gertaturikoa ospa-

18 Izenak izana ea berezko doitazunez ala giza erabagiaz dinoen eztabaidatzen du Platonek (*Kratyle*, or. 51-62, o.c.). Baina arazoa besterik da: gizarteak hizkuntza zetariko erabagiaz, edo arteziaz asmatu zuen jakitea, alegia.

19 "SIETE", Dic, B., o.c., p. 1859-1859.

tzen dugula nolabait. Halakoetan “legea bete dugu” esan ohi da, ohiturazkoak ere eskubideko osoko lege direnez gero.

Erritozko edozein ospakizunek antzinateko oroitzak berritzen du. Ohiturak ezestea erkideak saldu eta burueritsia murriztea da. Saltzaile jo izan ditugu, asaben hizkuntza baztertu eta geheingoen erderara jo dutenak. Euskararen oroitzak berreskuratzeko, euskararen otsak ezeze, asaben jakinduria eta baloreak ere eskuratu beharko dituzte.

Igaran garaiak aztertu eta antxinako baloreak berreskuratzeko bidea sikoanalisian erabilten den teknikaren antzekoa da: norbere joanak oroitu eta hataz jabetu, ostera ere izadian, gizartean, deigun euskaldungoan, edo norberegan halako desorekarik sor ez dadin. Oroitzea nork bere burua jagotea da eta asaben kulturatik aldentzea, berriz, ondorengoak atzerapidean ustea.

Oroitzak giza mugatasunak gainditzen ditu, oroitzak, ostera, gogoaren heriotza dakar. Gogoak bere sorrera oroitu behar du, pitagorikoen arabera, etorkizuneko zirimolak ekidintzeko²⁰. Gogutak dakarkio iraupena gizakiari jainkozko gizaki egiten duela, oroitzak gordetzen bai-du erritoren bidez jainkoekiko ituna. Oroitzak, aldien lehenera itzuliaz, hasierako errugabetasunarekin topo egiten laguntzen dio.

Ahozko kulturadun herriek, ituna liburuan gorde zutenen ondoan, oroitzak ariketa berezia egin behar izan dute eta eskerrak horri euskarak, sumerierak, egipziera zaharrak edo hebraierak ez bezala, irauin egin du. Kondairen oroitzak taulako idazkiari edo papiroaren gordailuari egoztean, haien oroimenak jai egin zezaketen. Ahozko kulturadun herriek, ostera, erritoko ohikunak, imintzioa, imusinoa, kantua, bertsoa, eta ipuina uharitu behar izan zuten eta, batez ere, hizkuntza beraren egitura hasierako aburubide eta erritoren arabera, egokitu eta bermatu. Egitura honen ariari jarraiki, jaso behar da barneko toskan bezala irarrita dau-

20 MESLIN, M., “MEMORIA(funciones religiosas), RD, o.c., p.1162-163

5ⁿ eskema: JAINKO ETA GIZA ARKETIPOEN SENDIA

AN	UTU	RA	ILU	BA	KA	SHE
Anu/Inana	Shu/Thot	Erra/Rea	El/Elah	Balu/Bel	Khnum	Yaum
Ino /Amon	Aton	Aruru	Lahe	Ba-u	Gar	Sadday
Enlil/Enki	Adonai	Arthe,Erle	Elhoim	Ptah	Girra	Shia,Secs
Inko/a	Dumuzi	Arixo	Ilix	Baios/Bako	Ekain	Xainko
Maat/Mayi	Adar/Odei	Aereda	Iluno	Fagus	Kura	Shamas
Mari/Martu	Donias	Urzi	Alar	Herauso	Kingu	Samsu
Ande/Antxo	Tammuz	Erge	Iluro	Ivilia	Ageio	Sandao
Anderexo	Adonis	Renenet	Luna	Abellion	Khonsu	Xekina
Nergal	Tulonio/Usseis	Erditse	Loxa	Haddad	Khepri	Saturgio
Marduk	Osiris/Isis	(H)orus/Eros	Laratz	Aberrri	Uggae	Yahvéh
Nabu/Anubis	Iduzki	Iruzki	Ilargi	Beikorrrix	Kumarbi	Jaungoiko
Ononzaro	Subilaro	Oronzaro	Olentzaro	Putierre	Eguberrri,Gabon	

Ohar: *kursiban* doazenak euskaldunen edo Akitaniatik Ainamendira oroitu diren jainko/jainkoen izenak dira. Giza arketipoz atzizki-aurrizkituak giza jainkotuak edo jainko gizatuak. Marra artean gogoratu izan diren errito ospakizun nagusien izenak. Beltzean **Jainko** izenaren eratorria.

kan oroitza. Euskarak ez du testo zaharririk, baina antxinako garraikideen onomastika eta lexiko uharia du lekuko.

Giza gogamenak argitu gabeko energia ugari gordetzen omen du, "ohargabeko oroitza" deritse halakoari sikologistek²¹. Sinboloaren logikak oroimena astintzen du, eta hizkuntza haren araura eratzen, Jainko mezuak ere ardatz berean ariltzen dituela. Oroitza eskasia dagoenean, Jainkoak gehigarria bidaltzen omen du igarleen eta santuen bitartez. Euskara bera ere, mitoaztertuz gero, gure gizartearentzat igarkizun eragilea ezeze, antropologia-ko edozein eremuko ikerketan hermeneutika aparta da. Baina oroit al da euskara antxinako sinbolo, arketipo edo jainkoen izenaz? Arnasa hartzeko, bedere, ikus dezagun 5ⁿ eskeman jainkoen arketipoen eta giza arketipoen pertsonaia eredu nagusiak, ea euskararen eremuan ezagutzen ditugun pertsonaiak jainkoen sendi ber-bereko ote diren, edo galde dezagun, adibidez, *Inka/Ekain* edo *Inko/Kingu* sendi bereko izanik, zergatik bata beteari aurkatzen diren, erritozko lehentasunak baztertuz.

21 VIDAL, J. "JUNG, C.G. (1875-1961), "DR., o. c., p. 936-941).

1.6. Onomastikaren oroitza

Euskaldunen Itun Zaharra idazki gabeko bilduma bitan gordea izan da, bata Euskal Hiztegian, bestea, Onomastika Izendegian, direla pertsonen edo tokien izenetan. Onomastika honetan, izen batzuk besteak baino euskeraren egiturari atxikiagoak direnarren, Mediterraneo inguruan eta Sartaldeko Europan preindoeuropear sendi bereko kutsua dago, ahozkeraz ezberdinen ginetik.

Onomastikako izendegi hau, gainerako lexikoa bezala, arketipoen arabera imusino ber-beraz analogizatua izan da hasieratik. Bere zahartzaroa oso nabaria da: zenbat eta monosilabismoari atxikiago, zaharragoak dira, eta alderantziz, zenbat eta konposizio luzeago edo zauliagoko diren, mendez gertuagoak. Monosilaboak garbiago analogizatzen dute arketipoaren antza, nastuago, osteraz, hitz aglutinatu edo zauliak. Argi dugu, beraz, *Ainamendi* izena, *Pirenemendi* baino zaharrago dena, soilagoa denetik eta ez euskarazko izena delako bakarrik. Hitzen antza ahozkeran dago, ahotiko soinuan, nahiz eta jeroglifikoak marrazkiraino eraman izan zuan antzekizuna. Ahozko kulturak, beraz, garapenerako entzumena, adikortasuna eta helkarrizketa indartu behar izan zuan mintzoa eta imintzioa oratu ahal izateko.

Ani, Ania, Añua, Añon, Anués, Anieto, Ainoberos tokizen bezala “*aina/gaina*” *An/Anu* “zeru ganga” analogizatzen dute, edo *Ana, Aniana, Naina, Ainhoa, Anatu, Antu*, etab. pertsonen izen bezala, zeruaren “*eina/duina*” antzezten dute, batean gora eta bestean zeru-kalitatea oratzen dutela ariren batetik.

Geografiako tokizenak ere hitzaren erritorea taxutuak izan ziran Sumeria eta Egipton. Gizakia bera bezala, lurra=geb(e) ere, izenetik izanera izadiko legeen arabera egokitu behar zan, une bateko desorekak unibertso osoa iraul ez zezan. Nola izenda zitezken, gizakiak zapaltzeko ez ziran *Ainamendiak*, adibidez, jainko arketipoz ezpada? *Mendiak*²¹, gainera, jainkoen egoitza bereziak ziran. Jainkoei eskeintzak eta otoitzak egiteko igoten zan mendira, jaietako erromerietan berere. Ibarrek bezalako zabaldiak, edo

artzaintzarako egoki ziren ekuriak, gorkuak, gortak, basoak, saroiak, gizakiak, jainkoengandik hartutako ondare bezala, bere arketipoz izenda zitzazken, erritoaren une berriak hatarako bai-mena ematen ziola eta Kura bezalako jainko gizatuak aurreratuz.

Laborantza aldian uriguneko lautadetan, Sumeriako zikuratak edo Egiptoko piramideak bezala, mendi antzeko erainkintzak egiten ziran jainkoen tenplotzat, jainkoengana hurbiltzekotan.

Onomastika hizkuntzaren lexiko eta gramatikazko joskeren aurretik burutu zan eta arian zegon hizkuntzari arauak prestatzen zizkion. Ez da berdin *Ainibar* deitu edo *Pirene* deitu. *Ainibar Ainamendi* ibarra da, *Nabarre* bezala. *Pirene/Beriain* edo *Empireu* deitzeak, ostera, itzulikatu eta latindu egin ditu hitzaren jatorrizko arketipoak eta kultura haro berria bultzatzen. Lehenak dirau, baina ez lehengo mailan. Onomastikak hitzaren barruko arketipoen hitzuliketaz hitzen eratorria erakusten digu, hizkuntzaren eta herrien historia diakronian aztertzen laguntzen digula.

Euskara izenen hasierako formak zaintzen ahalegindu da, erro-manikoa, ostera, izenon itzuliketetan burutzen da. Euskarak *Ainamendi/Ainomendi* dinola? Erderak *Montaigne/Montaine/Muntain/Montaño* ulertzen du. Erderek euskararen soinua entzun bai, entzuten zuten/dute, baina haren mezuaz ez ziran/dira jabetzen. *Ainamendi* "An jainkoaren mendia" da edo *Ainomendi* "Anu jainkoaren mendia". Erderaren interferentzia dugun neurrian euskaldunoi ere urrundu egiten zaigu euskararen barne mezua, *Aina/Aino* Jaun hori nor izan ziteken ere ez galdetzeraino edo eta bertan *Ino, Inkoren* aurretikoa ez ezagutzeraino.

Euskera-erderen aspaldiko tira-birazko kultura honetan esparru zabal bateko hizkuntzen atzizki aurrizkiak eratu ziran horrela, 6ⁿ eta 7ⁿ eskeman ikus ditzakegunez. Berdin gertatzen da Utu jainko arketiparen izenekin. Euskerak *Otoiomendi/Otamendi* edo *Atamendi* dinola? Erderak *Montoto/Munduate* erantzungo.

6º Eskema: AURRIZKIEN ANALOGIA ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	BA	KA	SHE
ana-/ama-	ato-	arra-	lo-	be-/fe-	ek-	etxa-
an-/am-	at-	re-	lu-	ber-/per-	co-	se-/ze-
on-/un-	ad-/de-	era-	el-	para-	com-	ja-
in-/in-	so-	er-	ala-	pre-	ok-	az-
en-/em-	su-	ira-	ela-	pro-/por	oc-	as-
ante-	sub-	oro-	la-	upo-	kata-	eis-
andi-	dis-/dans-	ur-	al-	uper-	gana-	ex-
amfi-	tra-/trans-	urk-		ep-/ef-/epi	- gara-	s-

Batak *Aramendi/Erremendi/Oromendi*, besteak *Monterre/Montera/Montero*, batean *Elamendi/Uliamendi* eta bestean *Montella/Montoliu*, batean *Gamendi/Goimendi/Katamendi* eta bestean *Mundeka, Mondego/Montgat*, batean *Bamendi/Baramendi* eta bestean *Mondovi/Montevía/Monbar*, batean *Etxamendi/Esmendi* eta bestean *Montache/Montech/Montes*, etab. Arketipoek mendi/monte ardurazko hitzaren inguru hartzen duten tokiaz, beste barik, aurrizki-atzizkien altxorra egina aurkitu zan euskerarentzat eta erromanikoentzat.

Euskaldunok beti izan dugu etimologia herrikoiak egiteko jokera, euskal belarria ots batzuk ezagutzeko idekia dagolako. Erata-
tara datozen izenak erraz aztertzen ditu, dela *Etxebarre* edo *Barretxe*, baina *Etxepare/Esper* edo *Perez/Peres* bihurtzen deneko, zurtz gelditzen gara, erderaren aurrean baigengozan. Onamastika guztia zazpi arketipoen ardatzean dago, kultura esparru bereko hizkuntzen lexikoa bezala. Mitoanalizatzea dagokigu, gaur, linguistikan izan ezik, giza zienziako arlo guztietan²³ egiten den bezala. Eta horra mitoanalisia, euskarari ezeze, linguistikari bide berria egin dezaioken metodologia. Euskal linguistak burua jaso eta hizkuntzetan euskarari dagokion erdigunea eska-

22 VIDAL, J., "MITO", DR. o.c., p. 1105-1210

7ⁿ eskema: ATZIZKIEN ANALOGIA ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	BA	KA	SHE
-(e)n	-tu/a	-ar	-illu/a	-be/-pen	-ica/o	-tze/-txe
-ana/o	-tio/a	-er	-la/-le	-va/o	-ko/u	-es/a
-(a)nia/o	-ti/-di	-ara	-ullu/a	-ba/-bia	-go	-ez/a
-enea	-tto/a	-aria/o	-el/a	-via/o	-ki	-sia/-iz
-(a)ña/o	-txu/o	-aire	-lo/a	-pia/o	-gi	-za/o
-(o)n	-dui	-era/o	-li/-lia	-fa/o	-ca/o	-ese/a
-in/ina/o	-so/-jo	-iri	-il/-l	-ap/-p	-aca/-ac	-ex/-ech
-men	-su/-ju	-ur(i)	-al	-av/-v/-f	-aga	-esse/-ssi

tu eta ezarteko ordua da.

Euskararen gomuta zabala da, eskerrak Ainamendi inguruko eskualdeetako euskalkiei. Euskalki bakoitzak arketipo bereziak bultzatu eta forma ezberdinak zaindu eta denen artean bai lexi-kotan, bai onomastikan soinu zabala edatu du. Soinuokin, posible da Mitxelenak amets zuen katea osatzea²². Baina gomuta guztia ez dago euskaragan, beste hizkuntza zaharretatiko lexiko asko eta batez ere onomastika ulertzeko gei da euskara. Euskara hermeneutika zaharrena eta gazteena da erabat giza eremuko edozein ikerkuntzan, hizkuntzen zazpi arketipoak hatzamar puntan dituelako, hitzaren desarroiloa aztertze orduan.

Onomastika arloan tokizenak dira beheinenak, geografian leku-kotasun berezia direlako Kaukasoko Iberiatik Hesperia Iberiara eta euskarak biziki gordetzen ditu tokizenen konposakide arruntenak. Ikustea baino ez dago 8ⁿ eskeman.

23 Euskararen jatorria bilatzen zuan K. Mitxelenak antxinatik honainoko katea osatu ahal izateko metodologia berriren bat amesten zuan, ausaz katebegiren baten peituz, ezinean gengozala ere uste zuan. (MICHELENA, L. *Sobre el pasado de la lengua vaca*, o. c., p. 196)

8^a eskema: TOKIZENAK DESKRIBATZEKO KONPOSAGIAK ARKETIPOEN ARABERA

ANU	UTU	RA	ILU	BA	KA	SHE
une,on	ota,oxa,oya	ara,era	laun/lano	ibai/via	goi/goiti/gota	esi/es
ana,an	ate/atx/ax	arru,ru	alde,alto	ibar,val	gane,gibel	zelai
ain,in	zu,so	aran,arain	larre/lur	ber,vera,buru	kana,gain	zehir,zier
naba,mun	terra,derry	erri,eria	leze/losa	barru,barren	kaba,cave	sakane
ante,and	zuma,sumo	riva,rio	albo/alba	barri,berry/feria	gara,garai	sare,sarre
aindi	tras	ur/aurre	landa/land	beiti/bajo	colle/gaila	zabale
ondo/ando	oste,usta	arte,arda	leku/loc	boste/post	guen,guren	senda,zena
mendi/monte	otero	oru,orbe	leku	bide,vado	coto,cota	sar,sarria
marra	atarre,atar	urte,urda	albo/alba	barrio	gotor	sarale,sel
marka	soló,sola	arruga,roca	loma,lama	portu,puerta	garra,guerra	exitu,ejido
mura,mira	soro,sora	errota,rota	loizun,lizun	hortu,huerta	campo	estu,seto
mallo,mala	zulo,zilo	arruti,rudi	alde,aldea	barruti,prado	ekur/gorku	eskuri,segura
meta,malda	zubi,sub	erial,real	elge	baso,paso	ekur/guarda	saroi
mortu	soto	eremu	legar/lugar	barda,verde	karkaba	zelai
murru/morro	iturri,torre	ordeka	larrain	páramo	carrera	sarratu

1.7. Toki-unearen lekukotasuna

Ahoz-ahokoetan esankizuna esatariaren unera eta tokira zehazten da beti ere, “Behinola Anieko Yonagorri...”, “Antxina baten Anbotoko Mari...” formuletan bezala. Zehazgarriak ematen dira, “koban” edo “harpean” zela, maiz tokizen xumeagoak lagun dituela, unea xerkatzen da “gauetz” edo “ekaiztea” zela, etab. Toki-zenok Yonagorri edo Mariren pertsonaia ezagutu ahal izateko pista bereziak izan ditezke. Kontakizuna bera entzuleei ulergarri zaizkien keinuez eta ahotsez ematen dira. Hizkuntzaren antropologiak horretan du oinarrietariko bat²⁴.

Errittoa ere tokiari lotua dago, aldiari beste: harako mendi edo ermitako erromeria dela, hako santuari, Garaien bezala, urteroko jaietan egiten zaion “Dantzari dantza” edo neguteko Basa-koi-petsu edo kalean ospatzen den Inotea. Herri inguruko toki eta aldi-uneen laguntza gabe, kontakizunak arreta galdu eta aztua izango litzaken. Baliteke inoiz edo behin, betiko formulei jarraiki, Aralarren aurkitzea. Kontu orduan ere, Suge/Sugoi/Erensugete

23 HOUIS, M. "ANTROPOLOGÍA DEL LENGUAJE", DR., o.c.,p. 89-99.

9ⁿ eskema: EGOITZAREN ANALOGÍA ARKEKTIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	BA	KA	SHE
-ne/-enea	udd/ux	uri/iri	uli/ili	house	ekua/oikia	etxe/etxe
mena	thoxa/choza	arobi/arce	legor/lorio	abaro	ekur/gorio	eskuri,segura
masía	dona	arpe	ola/laura	baita/bit	egoitz/carpa	sha-/cha-
mandío	domu	arretxe	locu	hospicio	casa/casba	esol/sala
morada	templo	arjaion	alberge	villa/bil	kabi,cava	sabai/sarabe
mansión	techo/tegi	areto	aljama	palacio	cabaña	eskepe
mansard	tugurio	retiro	alhóndiga	pazo	gorku/gela	zaguán
madrasa	taberna	restop	lekhotz	bastión	cuarto	chabola/sel
monasterio	torre	ermita	alcoba	palloza	korta	estia

lakoa Apokalipsikoaren aurretik, “Erensuge” izenak dinonez, egi-tiar kulturarekin batean geurekotu genuen ondakina den. Izan ere, nola gogoratzen du euskarak Bibliatik ezagun ez duen izenez deitzea?²⁵

Tokia eta unea/aldia arketipoengandik zuzenean analogizatzen dena jakiteko ikus 8ⁿ,9ⁿ,10ⁿ eskemak. Eskemotan ohartzekoa da, behin eta berriro giza arketipoak aurretiaz jainko arketipoz analogizatuko hitzak gizatasun mailan errepikatzen dituztela, *ain/gain, orra/gora, une/gune*, adibidez, tokietan eta *aroi/kairou(g), lehin/behin, une/abuen/abadune* aldietan. Jokera honek argi adierazten du antxinako gizakiak ondo bereizten zuela jainkoei zegokien toki-uneen mugagabea eta gizakiena, aldiz, zen mugatua. She arketipoarekin gozaten dira, ausaz, aldia eta tokia, *une/sasoin, aro/azaro, et(h)/asti*²⁶, *une/etxano* bezalako formetan.

Amaia/muga, antxina bezalako formak *An* arketipotik analogizatzen dira; *-te* atzizkiz eratu *Inote, Jote, gosete*, etab. formak *Utu* edutik edatzen; *Azaro, gaztara, aurtzaro, Olentzaro* eta gai-

25 Bibliak poetikoki *Rahab* izena aipatzen du (Is 51,9) itxasoko edo Nilo mustroei deitzeko, baina inolaz ere ez euskararen zehastasunez.

26 Ohar *et(h)* eta euskarazko *-te* (eurite, egite, aginte) bat datozela. *Et!* ohiuzkoa ere une larri eta zehatza adierazten dator.

Euskal mito-erritoak eta euskara

10 ^o eskema: UNE-MENDEEN ANALOGIA ADITZLAGUN ERATARA						
AN	UTU	RA	ILU	BA	KA	SHE
<i>noiz/inoiz</i>					<i>cuándo</i>	
antxina/ein	atxina	arkhe	lehen/lehin	behin	cum	ia/jam
antes	oxtian	arin	olim	pronto/behingoiz		cito
anartean	edonoiz	aurton	laster	hodie/hoy	gaur	semper
mane	etzi/despés	orduan	lehengoan	bihar/berant	goiz	jamás
nunc/nunca	juis/tunc	orain		postea/fine	gero	atzenez
unquam	atzo	eri	aliquando	behinola		ayer
nocte	tarde	arainegun		bart/belu	gauetz	saepe
interea	tandem	artean		bitartean		sero
<i>non/inon</i>	<i>dónde</i>			<i>ubi</i>		
an/ana	edonon	arriba	allí/illic	bean/ibi	gain/gan	aiz
aindi/unde	ostean	orra/or	allá	post	gora	cerca
ona/amen	sub/supra	ur/ara	lekutan	hemen/prope	gertu	asau
ani-ani	tras/at/ate	urrun	lejos	bertan/hic	aquí	asago
entre	todavía	artean		biran		

nerakoak *Ra -aro* edo *She+Aro* erduek hartzen dituzte.

Erritoak sorkuntzako une osasungarria bilatzen du, eguneko arazoetatik ate. Sorkuntzako uneak munduaren eta gizakiaren hasierako unea, *antxina* eta *amaia* bateratzen dituen unea da. Kultura eta herrialde bakoitzak bere hasierako aztarrenak bilatzen ditu, "ziralako gara" ebazten, edo Inotean, soineko zuria jantziz eta ur garbitzailea ixipuz astinduaz, obenduruak Urte Berrian haurtzaro garbia berreskuratu nahi du. Errittoa lehengo, "Mariren garaietako paradisuaren" edo bizitza barri baten joranez inoz eta inoka dihardu²⁷. Erritoak errepikaz iraupena eta salbabidea bilatzen du. Kristau aurretiko santutegi zaharrak santutegi jarraitzen dute, nahiz eta kristauok dagoneko Jainkoaren eta gizakion auzitan erritoz eta sakramenduz Ararteko berria dugun.

27 MESLIN, M. "TIEMPO PRIMORDIAL", DR., o.c., p. 1748-1750.

1.8. Mito-erritoetako ohikunak

Erritoak antxinako jainkoen ekintzak antzezten=*muthos=imitan* dituzte, jainkoekiko itunbena bermatu eta haiekiko agintzariei iraupena emateko. Erregeek ere holako zintzotasun aitortzen egiten zituzten elkarrenganako begiramena agiritan erakustean²⁸. Errito ekintzak era askotakoak ziran. Ospakizunerako




Lantzeko Jotean: txantxoak, xomorro mozorrotan, urteko uztari egin diezaioketen kalteaz zematzen dute

tako Inoteetan. Lantzeko *txantxoak* kaltea, kaosa irudikatzen du-

deiak, prosezioak kalez-kale edo mendietako santutegietara, Sumeriako Akitu jainan bezala, santuen berreskuratzea, kantuz inotzea, opari eskeintzak, bitimen odol ixurketak, Makil dantza bezalako burrukaz jainkoek kaosa menderatu eta munduan ordena jartzeko egin zuten ekintzan parte hartzea eta haien garai-pena eta eurekiko ezkontza ospatzea²⁹. Ezagunak dira halako erritoak Euskalerriko zenbait herri-

26 BRIEND, J., *Tratados y Juramentos en el antiguo Oriente Próximo*, DB 23^o, o.c. "Con buenos sentimientos y con sinceridad completa pronuncio este juramento por mis dioses..." (*Juramento del rey de Mari al rey de Babilonia* (1777 a.C.)) (*Ibidem*, p.12)

29 LARA PEINADO, F., *Poema babilónica de la Creación Enuma elish*, *Introducción*, o.c.p. 63-65



Ezkerrean: Zubietako *joaileak tuturroz, atorra zuriz, larruzko txaramelaz apaiz jantzitan eta ixipuz eta zinzarrien hostera* espiritu gaiztoak *uxatzen* eta erabat mendiko jainkoei *deitzen* akitika ari dira. Ezkuman: gaizkiñak *uxatzeko* asiriar *zinzarria* (30 cm. koa) VII giz.K.a) Egituran baino areago helburuan dira kideko

te eta Zubietako *joaileak* ixipuz ornitu, zinzarrien otsera baserriz baserri eta gaizkileak arautzen dituzte, ostera. Beste hainbeste egiten zuten Babilone eta Asiriako apaizek³⁰, edo Israelgoak Yahavé esnatzeko artezi bezala. Kristau santutegi batzuetan ere asmo bereko txilinteriazko erroak egoten dira.

Baina erritoen bihotza hitza da, ekintza arteako abestiak, inoak, eta berere otoitzak ematen zizkiotelako erritoei helburuzko forma. (Ikus ohiuzko bereziak jainko bakoitzari 1° eskeman) Errito arautuetan otoitz arautuagoak ekintzaren arian, hizkuntzak harremanetarako ereduak sortzen zirela. Ikus agintezko formak 11^a eskeman. Onomastikak ere iturri beretiko eragin bere-

30 "CAMPANILLA" Dic. B. o.c., p. 261-262.

11^a eskema: AGINTEKERAREN ANALOGIA HARREMANEZKOETAN

ANU	UTU	RA	ILU	BA	KA	SHE
indak	to/tori/toma	ereik/orzu	lege	ofrecer	iguk	txek/txen
mak	otso/eutso/ten	erak/erok	laga	pon/ipini	akio,coge	esti
onaik/onain	tziauri/toz	erdu	el,auli	ven,venez	korri/ken	sar
enaugi	oadi/zoaz	orden	alde/allez	vade,vé	goazen	sal/jali
mueve	tolle/tate	arzan	eleva/lleva	fer/vale	ago/goaie	sto/stote
mira	adi/eutxi/da	erosi	lortu/lograr	bil/bildu	ekan/geinste	ezak/azan
mintza	di,ixo/chitón	errak	loquere	fala/habla	gomak/calla	esan/esak

12^a eskema: EKINTZA/JASAN ADITZEN ANALOGIA ADIZKERAN

ANU	UTU	RA	ILU	BA	KA	SHE
amatu	edere,sortu	oriri,erditu	elucere	parir	genuo	xaio/jaio
nacer	sutu,ixio	argitu	iluminar	fotizo	egosi,cocer	exetu
inutu/nutrir	torra,turrar	erre	elikatu	bazkatu/pacer	curiar/guritu	zaindu/sainar
maite,amar	dôd	ra-mu	love	vollo,fileo	agapao/cupio	estimar
naitu	zoratu	eroo,irrika	liluratu	padecer	gura,querer	seligere
neka,necco	jo,zurrar	eran	laedere	ferire	occidere	zanatoo
mindu	dolutu,doler	eri	laidozta	punire	kalte,castigar	zigortu
mundare	uxuri,uiledu	urstatu	lavar/lisibatu	busti	ikuzi/garbitu	xautu/xaintu
mandar	itoitu,itzuli	roo,urten	ilki	volver	correr	jali,salir
mittere	jun,tor/tornar	ire/ir	eldu	venir/fan	igorri/garraia	eskuratu
aintu	subir	arintu	evare	vadear	igon/gaindi	jatxi
mankatu	itto	erori,irauli	lisatu	baxar	occare,caer	jausi
amaitu	otsi	ortzi	lisiar	beheratu	egortzi	sepultar
morir	tuer	erio/eran	il/ildu	buka/acabar	kali/galdu	zendu

tzuan³¹. Ikus ekintza eta jasate adizkera batzuk 12^a eskeman.

Arao ekintzetan hitza arteziaren gidari zan/da erritoaren magia lortzekotan. Egoki araotzeko arauzko hitzak esan behar ziran, ez hitzik biratu, inori biraua egozteko asmoz, ereguan eregu, erre-guan erregu. Halako arretak zietan sartzen zuan hitza eta hizke-ra joskeraren erraietaraino. Era batera *Ra/Erra* jainkoari “*erre-gua lortzearren*”, beste batera *Utu* jainkoari “*ut operetur/udu-kitzeko otoian*”, *An* jainkoari, berriz, “*antxitu zezan*”, edo *Ilu/El* jainkoari, “*lor zezala elekatuz*”, etab.

31 ZUBIAGA, F., *Analogía del lenguaje*, o.c.,p. 81-103.

II. ERRITOEEN TOKI SAGARATUAK

2.1. Mendi santutegiak AN narearen arabera

Jeroglifikoetan *An* arketipoak zero eta mendien arteko ertza *antzezten* du eta horixe da alfabetoak gero ere bere gora-beheradun marraz *MN* iragarten duena. *Mendiak* urratzen dute *Anen* zerua, *mendiak andiak*, ots, *Anuren majestateaz antuak* eta *mandoak* dira (Sal 24,3). “Berak *manutzen zuan...menditik*”¹. *Mendiak* edo *mortu amaigabeak mugatzen* dute *Anuren magala*. *Mailadiz-mailadi* edo *malkorrez-malkor Anuri ñaka* eta *men egiteko mendira* igoten zenean. *Mendiek Anu maite* dute, eta *Anuk mendiak*, geroago Yahwek bezala² (Sal 95,4). Sumeriako lautadan, *mendirik* ezean, *Etemenanki(s)*=“zeruaren eta lurraren arteko *oinarriak*”, edo zigurat³ deitu eraikintzak, egin ziran tenplotzat. Bustinaz egindako *mendiak* ziran Jainkoaren temploa zeukatela *montorrean*, zero erako *mako* ta guzti. Jainkoaren hurbiltasuna bilatzen zuten. Euskaldunek, gure *mendien nausitasuna* ikusirik, *AN Inkoaren omenez*, *Ainamendi* deitu zioten hako “*antxinako mendien*” goraintzian. *Ainamendi/Montaine/Montagne*⁴ edo *Añomendi/Montaña/Montiano*, *Unamendi/Mendiune*, *Unanuamendi*. *Ainamendi* inguruko jainkoetan bat “*Ande*”⁵, badu *Andamendi/Andamon/Montand*, *Mendiandia/Monte-Andia*, *Anieto-mendi/Mondoñedo/Mont-Anet*, *Anderetto*


1 *El Diluvio*, (44), ANET, 42-44. “temenostik=*menditik*”

2 NOTH, M., “MONTE DE DIOS”, Dic., B., o. c., p. 1299.

3 LARA PEINADO, F.L., *Introducción al Poema babilónico de la Creación*, o. c., p.63-64. Toki sakratuei tenemos(g), *mened(eire)*, *met(bretoiera)* zeritsen. (LOICQ, J., “CELTAS Y CELTOROMANOS”, DR., o.c., p.292).

4 Berdin al da “*Monte de An*” ala “*Montana*”, “*Monte de Anu*” ala *Montano/Montiano* deitzea? Euskararen oroitzak ez zuan *onartu* halakorik.

5 SORAZU, E., *Antropología y Religión en el Pueblo Vasco*, o.c., p.89-92. Cf. Toponimian *Antia=Ande/Ataina=Athenai* bihurritzen da, Akropolisko “ate goiena” dinoena.



Ibarra mendiek mugatzen dute eta mendien *M* zeruak mugatzen du. Mendien ostetik itoitzten edo orzten da eguzkia ibarraldekoen poza eta bizia. Ertzeko mendiek eguzkiaren ituak dira eta haren izena daramate, hala Otoimendi, Udala, Aralar edo Txindoki. Haiek ziran toki sagaratuak, giza oinak ostaz zapal ahal zegizkinak, jainko tokiak bai-ziran.

/Anderexo jainkosak ere tenplotzat zuan *Andramendi*, *Antxo* geinua *Antzomendi*, beste ereduez nastuko *Marik* ere *Murumendi*/*Montemuro*/*Miramón*, *Mayak*, *Maxmendi*. Eredu bereko dira *Anbotomendi*, *Inarramendi*/*Montaner*, *Eneriomendi*/*Montenero*, *Inarramendi*, *Mamendi*, *Mapemendi*. Giza ereduez aurrizkitu dager *Nabú^(a)* jainkoaren oroiz *Nebo-mendi*, *Unbemendi*, *Uncilamendi*, etab. *Munoetako* santutegiak *Amón* egiturakoak dirudite *Munandia*/*Andamon*, *Amunartea*, *Unamuno*, *Monchili*/*Kilimon*, *Munitibar*/*Ibarmunu*, *Mundaka*/*Agamunda* eta *Argamón* izenetan, *Montu*, *Urtemondo*, *Ormondo*, *Munduate*, *Motu*, *Muzumendi*, *Inana*, *Nainarrimendi*, *Min*, *Mimendi*,

Ezagunak dira, bestalde, mendi, muno edo haien babesean eraiki santutegiak: *Ainoa*, *Andion*, *Andikona*, *Andekoa*/*Antigua*, *Unzue*, *Unziti*, *Mañuas*, *Muskilda*, etab. gehienak *Andre Mariari* edo *Sta. Mañe* bezala santaren bati egotziak.

6 "NEBÓ", Dic.B., o.c.,p. 1327.



An sendia: (ezkerretik eskumara) An, Enki, Utu, Inana, Enlil. Anek Enki, ud gozoen antolatzailea; bidaltzen du lurrera, honi sorbaldatik erreka bi darizkio, Utu=iduzkia mendi atartetik/tartetik itoitzen/ateratzen da, haren berotan Inana, maite jainkosaren eskutiko frutaki mordoia soldutzen da. Enlil, makò eta gezidun, gizakien adu-erabagile, muker dager. Uturen adore eta yoritasunaren uduriko uddu.ha(s)=idia=toro eta uzu iduzki goibideen=odos(g) eta udden gaineko Jainko espirituaren iduria rabinoen eskolan. Cf. usu/uso Biblian ere agertzen den iduri ezaguna (Mt 4,16). Leoia Enlilen lagun da eta honek atzizki daraman arketipoak osatzen du.(Seilu baten iduria (2.300 K.a), *Historia de las civilizaciones*, Vol.I, Larousse, 1996, p. 54)

3.2. Mendi santutegiak UTU eduaren arabera

Mendi tontorrak zero ertza joten edo erkingua adierazten dute. Iduzkia urten orduko, tontorrak sutan dagoz, eta begien bistatik sartu ostean ere, iduzkitan diraute zati batetan. Nondik ostuten da iduzkia edo nola zulatzen ditu mendiak, zeharkatzen itsosolak? Sarrakioak dago Gilgames itzal eta txundigarrien aurrean:

“Bikoitzak” deritson tontorrera heldu nintzan, -haiek bai-dira Iduzkiaren ostu-itoitzeak egunero zaintzen dituenak, haien tontorrak zerua joten=tocan dute eta azpitik euren bularrak infernua-”(...) izugarriak dira, eurei so egitea, hiltea!”⁷. (bartzardoak geureak)

⁷ Gilgamés, IX, II, 1-10, DB. n^o 7, 51. Hori dela-ta, mendi zuloak, toila, atolladeros, dolinas iduzkiak egin-bide edo oditzat emoten ziran, etoien, iddituen tokiak. Analogia bereko dira: tutu, tuzulo, uzku, etab.



Udalamendi/Udalate>Udalatx, iduzkiaren neguko itu eta atea, Zornotzatik begiratuta

Mendian iduzkiaren zaindari eta iddituen eta otsoen tokiak dira, *idia=uddi.ah(s)*, berriz, *iduzki-adorearen iduri*. Tutozulo bezalako tokizenak mito hau argitzen dute. Mendion izenotan iduzkiaz otutzeko ituak edo otoi-ikuspegiak idoroten ditugu. Horrela: *Otoiomendi/Momoitio, Otamendi/Montoto, Udamendi/Montouto, Domentx, Atamendi/Mendata, Isomendi/Itxumendi/-Menditxu, Ixumamendi⁸/Sumendi/Zumendi/Montessu, Osmond/Somonte/Ostemend, Uxamendi/Izamendi/Iz mendia/Mendiz/Mendixa, Auzmendi/Mendoza/Oxamendi, Ajumendi/Montajo* edo beste eredukin *Durmienda/Mondor/Montorra, Itturmendi/Mendixur, Trokamendi/Mondorge, Mandoño, Otzemendi/Mendotza, Tuturmedia, Tutuliamendi, Otabiomendi/Mondobi, Itxurrotzmendi/Mendizorroza, Sumendi/Montessu, Udalamendi, Tolomendi/Tollomendi/Montoliu, Soromendi/Montessori, Iturmendi/Montoria/Manduria, Atumemendi/Montón, Otoimendi/Ituñomendi, Zubimendi, Sollubemendi, Digomendi/Mendiko/Mondego, Ajurramendi/Montejurra, Izarmendi/Mendizarr, Tellamendi/Montella, Atxelaimendi/Monte Atlas, etc.*

⁸ Tu>Du>Txu>Zu/Su egiten du, Tollo/Zollo, Dole/Sola/Zola, Ottegi/Otxegi, Attela/Atxela, Otamendi/Otxamendi, etab. egituretan bezala.

Ainamendi inguruko santutegietan idoro diran jainko izen batzuk errepika dute mendiren baten izenean. Hala "Tulonio", *Toloinomendi/Monte-Toloño*, "Usseis", *Ossamendi/Montosa*, "Idiatte"¹⁰, *Atxetamendi*. Mendiaren santutasuna (Sal 24,3) aipatzen dute *Donimendia/Montón/Monzón*, *Mandoino*, *Donienemendi* egiturek. Eredu berekotsu beste jainko izenak: "Ixun"¹¹, *Itxunamendi/Montesino*, "Adu"¹², *Adumeta*, "Addu", *Atxumendi*, "Tinia", *Itxina*, *Txindoki*, *Monte Sina*, "Adar", *Adar-mendi*, *Atxerramendi*, giza ereduari lotua *Tabormendi*¹³. Gure santutegietan: *Oitia*, *Udiarraga*, *Idoia*, *Idoibalzaga*, *Uxue*, *Itxugana*, *Itiar/Itziar*, *Tuda/Dudea*.



Tafallako erromesak *Uxue* mendiko Andre Mariaren santutegirako osterrean San Jose ermitatik behera datozela halako penitentzi ohikunean.


10 SORAZU, E., *Antropología y Religión en el Pueblo Vasco*, o. c., p. 89-92. Cf. *Tutozulo bezala*, *Idiate ere tokizena da*, *Idituek hango geinuak*. *Idi Uturen iduria*, *Itxinako zilokan bezala*. *Idittuak*, ahotik su urtika, izugarri omen ziran. (Ibidem, p.298) Cf. *Ohar iduzki atearen jagoleak*, *utukku*, *etoiak*, *atlanteak*. (*Gilgames*, IX, II, 5-10, DB. n° 7). *Pisti usuen artean Uturen eduko otso=tsobu(ast) Otsomentegi, uso Usamendi*, etab.

11 *Ixun*-en oharrei esker, Errak ez zuen erraustu Babilonia. (LIMET, H., "ERRA(religión babilónica)", DR., o. c., p. 545)

12 "HADDAD", Dic. B., o.c., p.797-798. Ibidem: *Addu*, *Adar*.

13 "TABOR", Dic.B. o.c.p. 1819. Cf. *Tabira zan Tammuzen izengoitia*.

3^o piura: Analogien iturriak.



Izadiaren egitura antxinako gizakiaren irudimenean: goian jainko arketipoak, erdian lurra=geb(e): giza arketipoen egoitza, behean, itxaspean, arketipo nastudun jainko zenduen tokia eta iburnia, deabruen eta Errensugearen tokia. Eguzkiak ere. Rak berere. egunero egiten du sartu-urtena beheko ilunpetan.

3.3. Mendi santutegiak RA ereduaren arabera

Atun-Ra jainko iruzkiak kaosa astinduz, lehen munoa=oros(g) sortu zuan. Piramideen erainkintzak horixe bera adierazten dute. Rari sagaratu lehen piramidea Sakara da. Hango eskaillerak Ra jainkoaren bidera eramaten zuten¹⁴. Han ez zegoen beste

13 LAUER J., Ph., *Le mystère des pyramides*, Paris,1974 en CORTEG->



Aralarreko Mikel Doneak Pazkoetan mendiko santutegia utzi eta Nafarroako ehundask herri bisitatzen ditu, bedeinkatuz eta gaitzak arautuz.

Arizmen-di/Mondariz, Urkamendi/Mondorge, Arolamendi/Manterola, Arrolamendi¹⁴, Ergamendi/Mendraka, Montreuil, Erginamendi, Arzenamendi, Atxerremendi, Artxubemendi, Artxuetamendi, Artzamendi, Urkila, Urkiolamendi, Argaramendi, etab.

Ainamendiko jainko iragarkietan agertzen diren izenak ba dute errepikarik, “*Arthe*”, “*Aereda*”¹⁵ *Artamendi/Monterde/Momarte*

mendirik, *Ra/Erra/Argurtzeko*. Euskalerrrian, oster, hor dira: *Armendi/Ramonte, Arramendi/Mandarria, Armendu/Mendaro, Erremendi/Monterre, Raimond/Monterrey, Montoro, Oruemendi/Mendaru, Orimendi/Orrimendi/ Monte-Ori, Urramendi/Montorra, Urremendi/Mendaur, Iremendi/Mendiru/ Airamendi/Mendiaria, Arramendi/Mondarrain, Ermodo.*

Beste ereduez naste dagertz *Urtemondo, Uretamendi Aratzmendi/Mendiaraz, Eretzamendi, Aratiamendi,*

>GIANI, J. P., “PIRÁMIDE”, DR., o. c., p. 1413.

14 *Arroil, arruak eta barrankak Ra iruzkiak infernurantz eginiko bideak omen ziran, berdin arpe, rendijas, Utuk hako trokak, tollo, zuloak bezala.*

15 SORAZU, E., *Antropología y religión en el Pueblo vasco*, o. c., p. 88-92.

eta beste arketipoen atzizkiekin batean, "Erge", *Ergamendi/Monterrega*, "Erle", *Erlomendi/Montreil*, *Urzi*¹⁶, *Orzomendi*, *Urkomendi/Mondorge*, *Horus*, *Orusemendi/Orizmendi/Orrizmendi*, *Orisolmendi*, "Erditse", *Artasamina*, *Aherbelste*". Beste jainko ereduak atzizki ere badator: *Larramendi*, *Elurmendi*. Giza ereduak naste, *Barramendi/Monbar*, *Beramendi/Vermont*, *Hermón*, *Aseramendi*, *Garamendi/Garamond*, *Garramendi/Moncarra*, *Garomendi*, *Egurmendi*, etab.

Munoetan ere badira: *Armina*, *Orumin*, *Oromuno*, *Oromino* eta ezagunak zenbait santutegiren izenak: *Aralar*, *Arrate*, *Arze*, *Arretxinaga*, *Ereino*, *Erdotza*, *Erkuden*, *Urona*, *Urkiola*, *Urregarai*, etab. eurretan hiru Mikel Enangeruaren omenezkoak.

3.4. Mendi santutegiak ILU leinuaren arabera

Uli/Ili eta *Uri/iri* izenak elkarren lehiakide agertu ziran, feniziarren garaitik Iberian, jainko ereduak eraspenagatik. Zenbait *latxen* izenak ere *Ilu leinuko* dira. Baina gure ardurakoak mendien izenak dira: *Uliamendi/Mendilu/Montoliu*, *Elamendi/Montella*, *Elmendi/Mendel*, *Olamendi/Mendiola*, *Lainomendi/Montellano*, *Alumendi/Lumentxa/Mendilu*, *Montolan*, *Mandolena*, *Larramendi/Monreal*, *Larrainemendi/Monte la Reina*, *Monte Luzero/Luzeromendi*, *Olarizumendi*, etab.

Elohim egiturak *Aloinamendi/Monteleón*¹⁶ formetan du hurrean, *Labiamendi*. Ba'lu, *Iluren* ordezkari *alenak* ere "jainko mendira" igon nahi izan zuan¹⁸, *Alen* mendian/Monte *Alén*. Ba ditu beste mailako mendiak *Belamendi Belmonte/Monteva-lle*, *Bellomendi/Montebello*, *Villamonte*. Ainamendi alderdiko jainkoen izendegian *Ilu/El* ereduko santutegi batzuren izenak dagertz: *Laat* Arabiako preislamiar jainkosa *Letamendi* santute-

>16 "Codex calixtinus del s.XII. Cf. MICHELENA, L. *Textos arcaicos vascos*., p. 49-

17 Bibliak leoiarekin gonbaratzen du *Elohim* (Ez 1-10; Ap 4,7), Dic. B., o, c., p. 1088). Cf. *labi=león* Asian. Beraz, *Labiamendi=Monleón*.

18 *Lucha en Ba'lu y Yammu* 1.2 I 20, MLC.

gian, "Ilix"¹⁹ *Elizmendi/Monselice*, "Alar", *Alarmina/Larramendi*, "Lahe", *Lekamendi/Lekamina*, "Loxa", *Mendiluze/MontLuz*, "Iluno", *Luno-mendi*, *Ilunzarmendi*, "Iluro", *Mendilur*, *Mandaluniz*, "Larrason", "Alardoss" edo beste erduekin nastean, *Lakozmonte*, *Legizamon*, *Legarmendi*, *Elgatamendi*, etab. Beste batzuetan artizki dager: "Selatze", *Etxelumendi/Montecillo*, "Ivilia", *Mendivil/Villamonte*, *Zelatun*, *Atlas*, etab.

Ilu/El arketipoaren santutegiak ez dira bakarrik menditarrak, urtegiak ere maite bai-ditu. Santutegietan ezagunak dira *Olatz*, *Larraitz*, *Alkain*, *Aloina*, *Elgorriaga*, *Elvillar*, *Lekeitio*, etab.

3.5. Mendi santutegiak KA gisara

Gizakiak jainko mendira igon nahi du. "Jaunaren mendira nor igongo?" (Sal 24,3). Moises, Jainkoaren esanera, sandaliak erantzita doa toki santura (Urt 3,1-5). Nor igon zeiteken *ekur(s)* mendi templora sagaratuen *ganorarik gabe*? *Giza kanona* aurrizki erakusten *Gizeh*, *Kefren*, *Keops*, *Akhenaton* piramide-tenploek jainkoekiko ituna adierazten dute. Ainamendi *gailurrak* ezin *igonak* ziran *giza* oinentzat, Anuk bakarrik ezar zezaken han oinik. *Gizakiak* bere jainkoen tamainako mendiak *egokitzen* ditu. Horrela, *Eki=eguzkiari*, *Egimendi/Mendegi* eskeintzen dio, *Ekainari*, *Kanamendi/Mendigaina*, *Kura* jainkoari, nonbait abereen *guriketan* saiatuari, *Gorramendi/Mendigorria*, *Ekur(s)* menditar tenploari *Gurmendi/Mongorio*, *Egurmendi/Monteguro*, *Gorbeamendi*, *Kurtimintu*, *Kurtziamendi*, *Kurutzemendi*, *Gordomendi/Montgord*, *Okoromendi*, *Gorla*, *Grulmendi*, etab

Ainamendi inguruko jainkoetan "Gar" jainkoari *Garmedia*, *Garamandi/ Moncarra*, *Agarramendi/ Agramont/ Mendraka*, *Kartxelamendi*, *Karamelo-mendi/Montecarmelo*. Ba dagertz beste jainkoen izenenak ere, *Gil*²⁰ jainkoak *Kilimon* eta, antza denez, bai eta egitiar *Khnum* jainkoak *Kunbiamendi*, *God*, *Agota-*

19 SORAZU, E., *Antropología y religión en el pueblo vasco*, o.c.p.88-92.

20 *Gil* Marduken goitzenentariako bat. (*Enuma elish*, VII,80-81)

Txiki eta handi akitika mendian. Asaben ohiturak eskutik tiratzen du.




tamendi/Montecoto, Mendikute/Montagut, Aggae Nergal, galernen jainkoaren izen-goitia, Agamendi/Mundaka, Ake mendin/Mendiaga eta, ausaz, sumeriarren akitu(s) jai nagusiko erromeri ospakizunaren oroitzan, Agidomendi eta Agga, Akemendin/Agamendi/Mendiaga. Beste erduekin bat eginik dager Okilomendi, Gudamendi, Kolitzamendi, Katamendi/Mongat/Moncada, Kalamendi, Kalamumendi,

Garindomendi, Gondramendi, Gazumemendi, Gazteitximendi.

Ainamendi inguruko santutegien zerrendan agertzen direntan, berriz: "Ageio", Ajumendi/Mondejo, Goimendia/Montego. "Baicorrrix, Baikorrixo", Baigorri, Begoria, Gorbea, Goribar egituren parekideak dira. Giza eredu bikoitzekoetan: Agazamendi/Mengatxea, Eskumendi/Montesco, Eskuriamendi/Monsegur, Eskamendi/Mentxaka, Mengorio, Garramendi, etab.

Santutegietan, Okon, Koro, Goiuri, Gorriti, Agina, Akorda...




Piramideek An(s)/Nut(e)=zeru ertza antzetzten dute, arratzean berere, Ra iruzkia orzten denean. Hagatik M da zeru ertz horren jeroglifikoa eta An/Anu bere arketipoa. Egipto Behean, mendirik ezean, toki sagaratuena antza ematen dute harrizko piramideek. Haien pean behetuak "vita beata" amesten zuten.

3.6. Mendi santutegiak Ba bezala

Giza baitako arketipoak Pardes(h), Paradeisos(g), Baradisu barrundatu izenak gogarazten ditu. Babel torreak edo Piramideak ere ez zuten gutxi harrotu. Eredu horrek birbateatu zuan Pirene-mendia ere, Ibero/ibarra bertan aintua, "empireu" bailitzan. Piramideak, hala ere, Raren bidetik abiatu zirenen hilerriko tenploak ziran. Hona eredu bereko: *Ibamendi/Mendibaia/Mendibe/Mendavia/Piamonte/Pimenta, Obamendi/Mondova/Mondovi*. Ra eta beste jainko edo giza-jainkotuek ere *Beramendi/Bremond/Hermón, Horeb* (Urt 3,1-5) santutegiekin batean, *Baramendi/Monbar*, eta *Paran/Faran* jainko-agerpenen mendiak (Dt 33,2), *Haramendi, Balzamendi/Mendibeltza/Mendibelzua, Belhaimendi/Montevalle, Boroamendi/Mendiburu, Villamonte/Mendivil, Mendilibar/Montpellier, Beriainmendi, Forkalemendi/Monteforcale, Pikamendi/Menfica, Basalmendi/Montsalvo, Basanomendi, Basatemendi, Badalamendi, Monte Vitoria, Bidebiamendi, Bidartemendi, Bostmendi/Bustamante,*

21 BENAZETH, D., "KHUM", DR., o. c., p. 958.



Beriain "ibarraren eina"/Aini-bar, piramide berezi antzo dager. Bere antzeko ikuspegiak dituzte Euskal Herriko mendi askok. Txindokik, Udalak, etab.

Monteverdi, Burgoamendi, Frutumendi, etab. Ainamendi inguruko jainko aipatuak: "Aberri, Baerlisto, Baeserte"²² Basarratemendi, "Baikorrix, Begorri/Begoria, Baios", Bayomendi/Montebajo, "Basce", Basamendi, "Ivilia", Mendivil, "Vinvuro, ausaz Ipinaburumendi, Uvarna, Ibarrena, Fagus", Pagamendi, "Belisama, Borienco, Baiosis", Belatemendi,

Santutegietan: Barria, Beriain, Paresi, Busturia, Bizkargi, Begoña, Villar, Belok, etab.



3.7. Mendi santutegiak She jasera

"Nork igon=escalar dezake zerura?"²³ dino Gilgamesek. Zerurainoko eskailera du ames Jakobek ere (Has 24,10). Eskantzu ta guztiko eskailera luzeak dituzte Ziguratak eta Piramideek, Sakarakoak berere. Jainkoen aurrera joateko ziran. Baliteke jainko agintzariak ezetsiz, haren aurka norbaitek Babel dorrea erabiltea (Has 11,2-9). Babeleko gizakien jarreran beste kultura bateko jendeen iraulka ikusten da, indoeuropearrena agian. Joanes artzaina ere Jainkoagandik hurbillago sentitzen zan mendian, kalean baino²⁴. Mendiari Eskaleramendi/Montescalier edo Eskalamendi deitzeak hako mendi sagaratuaren sumoa du. Orobat sagaratuaren seinuko She+Ka+An/Utu/RA/Ilu ereduak dituztenak: Eskanamendi, Eskitxumendi/Montesquius, Sagarmendi/Montes Sacros/Monsagra, Eskolamendi/Eskiulamendi edogara erdiko mendi den munari Sagarmina/Sacramenia edo arkaitzari Peña Sagra deitzeak berezko santutegien susmoa dakar. Hala-

22 SORAZU, E., *Antropología y religión en el pueblo vasco*, o.c.p.88-92.

23 *Gilgamésh*, III, 5 (Versión bab. ant.) ANET, 72-79, 83-90, 92-97, 514-515.

24 AGIRRE, D., *Garoa*, 12, Durango (1912)



Ziguratu(s) “*etxe goratu*”, *Esagila(s)* “*etxe gaila/gailen*”²⁵ ere deitua, Sumeriako Ururiko *santutegia* (3.000 urte K.a.) *Esagila* egiturak *eskaleak*, *eskaritan* igoteko *eskalak/eskilarak* berak analogizatzen du. *Esca(l)*=jana *eskain-eskatzera* eta *eskerrak* emantera igoten zan. Goiko kapera ospatzen zan jainkoekiko *eskontza* eta *eskalas* “*jataldi handiaz*” amaitzen zan urteroko ospakizuna.

Sakara “*etxe garai*”, piramide zaharrena, Egipton (1800 K.a.) *Eskilarak* eta arteko *eskantzuak*, garaian dagoen *Ragana* igoteko. *Etxagara/Ezkarai/Ezkarra/Sagarra* bezalako tokizenak gogoratzen digute. Bertatik analogizatzen da *sachara(l)*=ezti eta *sacratu/sagardo* idea, *sagar* ezitika bezala. *Sagar/eskar* “*goitiko eztitua*” analogizazio beraren jakinduriatik dator.


koak ziran geroago Sumeria eta Egiptoko iri guneetan jasotako *Zikurat*, *Esagila*, *Sakara santuegiak*.

Beste izen batzuk mendiaren *santutasuna* adierazten dute (Sal 87,1), *Santiomendi/Montesandeu* edo “*Sandao*” Ainamendi inguruko edo *Sanda Ziliziaikoari*²⁶ *eskeiniak Sandamendi/Mandazzen/Montsand*, bezala, *Shamshu(a)*²⁷, *Santxomendi*, *Sansomendi*, “*Selatze*”, *Mendizelai/Monselice*, *Shadday(h)*, *Sadamendi*, *Yatamendi*, “*Asto*”, *Aztiomendi*, “*Secs*”²⁸, *Eskasmendi*, *Eskumendi/Montesco*, *Eskutximendi/Montesquius*, *Montesquieu*, *Monse-*

25 *Zikurat(s)/ziquratu(a)*=*etxe goratua*, ausaz *zagaru(a)* “*gora xagia*” aditzetik (LIMET, H. ZIGGURAT(religi3n sumeria y acadia), DR. o. c. p. 1856-1857 Ekur(s) da berezko temploa mendian, uriko *etxe garatuak* erritox *sagara-tuak*, basa *sagarrak eztituaz* daukan aldea du, *sachara/sacra* izatea, alegia.

26 LEBRUN, R., “*HITITA*(religi3n)”, DR.,o.c.,p.1605.

27 *Shamshu(a)/Samsu*(amorritera)=*Shamash(a)* (LIMET,H.,”*SOL* (religion mesopot3micas), DR, p.1673.



Aitzkorrirako sendan, *Senderate*: *Sandrate*<*Santa Andere*+*ate* zena orain *Sanctae* Trinitati egotsi-ermita. Ekur(s) "mendi tenploa" denetik, ekuri/ekuru/kura/kuria. Ekur+ate denez, >korta/gorta/grotta(i) ere bada. Berezko gorkuak eta bertako guruak: *Sandra te/San Andrianek* gorde egiten du, "San Antoniok *gordeta*" esan ohi den bezala. Ate>atx/aitz dator, beraz, aitz+ekur>Aitzkorri/Aizgorri. Idiazabaldarrak hara joaten dira *sentoralean* "erromerian". Hortik *senda/sendo*, *zenda/zaindu*, *senda/sandu*, eta *sentorale* "erromeria/osasun" jakinduriaren *sen*a (Ikus *via*>*fe*, *bide/fede*, *vereda*> *verita* egiturez 16^a eskeman)

*Hishkur*²⁹, *Eskuriamendi/ Monsegur*. "*Saturgio*"³⁰ ermitadun. Sortaldeko beste jainkoen mendi izenak: *Sara(s)*, *Sarramendi*, *Asera(u)*, *Aseramendi*, *Asharu*, *Azeromendi*, *Assur(sir)*, *Asurmendi/Azurmendi*, *Asar(sir)*, *Asarmendia*, *Xekina(ara)*, *Askinmendi*. *Jainko/Yainko* izenak ere ba du bere muno eta santutegirik. Beste jainko edo giza ereduen aurrizki dator, *Salsamendi*, *Sardamendi/Monserrat*, *Saibimendi*, *Janmendi/Mandojana/ Montseni*, *Santutuxu*.

She erdua bakarka ere ausartzen da eta orduan etxearekiko hurtasuna azaltzen du hurrean: *Etxamendi/Montech*, *Esamendi/Montesa*, *Asmendi/Mandas*, *Eizmendi/ Mundaiz*, *Aizmendi/Mendaza*, *Semendia/Montes*, *Ezamendi/Méndez*, etab.

Santutegietan ezagunak dira *Jainko*, *Estibaliz*, *Estigarrabia*...

28 SORAZU, E., *Antropología y religión en el pueblo vasco*, o.c.p.88-92.

29 LIMET,H, "ISHKUR (religión sumeria)", *Ibidem*, p. 868.

30 *San Saturgiok* ere ba du ermitarik Txindoki pean. Ez da harritzeko Sorkaldean eta hemen ere *santu* batzuk mitoen garaitikoak *izatea*.

III. ERRITOEEN UNE GARAIAK

Erritoen une garaiak hasierako garaiak azkenekoekin lotzen dituzte, hasieratik bai-dago jainkoen borondatean sortea emana eta sorte on horrek iraulik egin ez zezan, jainkoen burrukan parte hartzen zan eta haien garaipena ospatzen.

Negute uneko erritoak Ononzaroz sorrerari begira dagoz: “Dagoneko goian zerua izenez aipatua ez zela, ez behean lurra (...) jainkoak bereenez sortu ziran”¹ gogoratzen dute Babilonian. Eta milaka urte lehenago Sumerian: “Anu, Enlil, Enki eta Ninhursag (jainkoen) ostean burubeltzen herria sortua izan zan, landaretza joria erne zan lurrian eta abereak (...) arteziaz lortu zuten izatea”². Jainkoek esan eta egin gertatu zan sorkuntza: “Erregetza zerutik jatxia izan zenean berak (Anuk) osotu zituan erritoak eta jainkozko agindu gurenak eta eraiki zituan bost uriak (...) Euren ize-nak ahozkatu eta kultoaren erdigune izendatu zituan”³.

Anagenesis(g) “goitiko jaiotza” honi *Anum.zaro(s)*⁴ “Anuk sortzen du/*Anuren* sorkuntza” deritzaio. Sorkuntza honen *natoz naza/enda* berria dator lurrera, *Anuk* bere *un/muinetik* gizakia berez den buztinari *mendua nastatzen* diolako eta halako gizakiari *Gixnumunab(s)* deitu. (Ikus 13^a eskeman)

Ekaineko erritoei ekiaren eta bizitzaren garaipena ospatzen dute, *Ra* iruzkiak *Errensugea* garaituz⁵, kaosa menperatzen zuelako⁵. (Ikus 61 or.) Negu eta udako eguzkimugen artean bizitzaren lorez eta ereite errito gogoangarriak ospatzen dira.

1 *Enuma elish*, I, 1-10

2. *El Diluvio*, 45-50, ANET, 42-44

3 *Ibidem*, 50-95. Cf. “esan eta egin”, “izena duen guztik ba du izana” arabera.

4 *Zaru(s)* “ernaldu/engendrar” (LARA PEINADO, F., *Enuma elish*, *Introducción*, o.c., p. 34) *An(s)/Anu/Anum(a)*, *Anum.zaru* “*Anuren* ernaltze”. Cf. *azaro* “sementera, óvulo de simiente”, *-zaro* “época”, gizakiaren bizi-haroak horrela adierazten dira: *umezaro*, *hautzaro/gaztezarro*, *zahartzaro*. *Zaro* “gaua/noche”, *jentilzaro*, *jentilen* bizi zuten haroa, izar distizaria agertu zeino.

5 GUILLEMETTE, A. “APOPHIS”, DR, o.c., p. 112.

3.1. Erritoen une garaia An arketipoaren arabera

Ononzaro/Onenzaro: Ez delakoan ere hor dago sumeriar teogoniaren oroitzia euskararen umezarotiko altxorrean gordea. Hitzak *ona*, *ungia/ungoa* eta *umezaroa* gogarazten digu behinpehin, ots, *naza*, *natu(l)/ume* berrien haroa. *Ononzaro* “Nochebuena”, *Nativitate(l)*, *Noël*, gelditu da, forma guztiotan *Anuren* arketipoak jaurritzen duela eta, erritoaren helburu denez, antxinateak azkenaz lotzen direla. Euskarak ere erabat iragarkizuna eta kunplimana bateratzen ditu: “*Inotzi*, *Anu*=zeruok, gueneko *inontzia antzo*, *inotz* egin, *ainubiok*=nubes, *mendetza*” (Is, 45,8).

Inote/Inauteri: Erritoak une bereziak ditu eta *Inotea* “*Inoren* garaia” da, antxinatea “antxinako garaia” bezala. *Anu/Ino* egokitu du euskarak. *Inori inoka* dei egiteko tenorea da. *Inoteko* ohi-iturei jarraituz, ikus ditzagun *insoak*, *inudeak*=*ainak*=*nodrizas*, *unaiak*, eta gainerako *anodunak*. *Ino* jainkoa *inoz* goraltzen eta *nahitzen* eta erabat *inoka*, *inkaz*, *inkezaz* eta *aienez* enoiatzen dutela, *Anuk* urteko=*annu(l)*, *nahiko anho/anoi*=*anonna(l)* *inon*=*annuere(l)* eta *eman* dezan. (Ikus *An* aipatzen duten ohiuzkoak 3^a eskeman) Ohiuzkook ez dute arrakasta handirik gaurko gure literaturan, baina bai benetan handia, baserriko emakumeen hizketan bederen. *Norbere animuaz* eta sentikerez *dinoe*, gaurdaino *antxinako* eta betiko *Inkoa* dutela *mintsoan*, hizkuntzak ere, erritoak bezala, bere ohiurak eta ohikunak jarraitzen bai-ditu gizaldiz gizaldi. Eta *insoak* -Sumerian *Anuri* sagaratu *anutuak antzo*-, urteko *anoa* “vino” eskatzen *unatu* eta *enkeinuz enkoniatzen* dira, *inudeak inutumeak inutzeko eñea*=*esnea inoka emarazten* dira, *unaiak makilekin anhoa undatu* dezan eskatzen die *An/Anu* jainkoari, eta *nekazalgora nabasekin lurrak ungia* eman eta *onegin* dezan eta era berean, *nahitu/maitemindu* berriak helkarri *nabastarrea* erakustean. Herria *anotuz*=*anorexiaz unatu* ez dadin, *Ino/Inkoren antza*=*imagina* kalez eta inguruko santutegieatik erabiliko zuten lehenago *An/Anu/Ino unaratu nahiez* eta *An/Anu ainaninoak*=gaizkileak



Donostiako *inude* eta *unaiak*. *Iñude*=*unide*=*aña*=*nodriza*=*nurse* eta *inutumeak*. *Amek* eta *inudeak*, *An* jainkoaren ekintza, ots, *umeak inutu*=*nutrir* aintzineran daramate. Lan berean ari dira *unaiak* eta *nekazaleak*. Baserriko ekoizleek *ano* eta *mokauak* anzokatzeko azoka bereziak egiten dituzte gaurdaino kaleko negutean.

ainatu/*aihenatu* ziztzan. *Ino* himnoz/*inoz* aintzat ez zutenak *ainenka*/*oinonka* eta *maiz* *madarikazioz* *inkoniatzen* zuten.

Ino, aieneak: arkeologia konparatuari bagagozkio, *Inoteko inno*, *enoiu*-kantu eta *aieneak* ba dute agian sumeriar *aiene* kantuekin edo *ainenekin* zerikusirik. *Inul-inozoak* *intziri* dagi:

“*Ene Inko* zure aintzinean (...) *aienez* mintso nahi nuke (...) eta *ene* bideko *minkatza* *negartu*”². (baztardoak geureak)

Enekatu eta *minduak* *ainenak* ditu *mintzagai*:

“*batzuk ongian* bizi dira, *inkoengandik* ate (...) *nik* uztarria bezala eramanean, dut *onura* gabeko *morrontza*; baina *inkoak* *ongia* barik, *urribizia*=*miseria* *manatu* zuen (...) *Nere* *inkoren* *gurtza*=*mena* *nardatu* nahi dut”³. (baztardoak geureak)

Ainenetan *mendekuraino* *meatxatzen* du *eneguan* *Inanak* *Enlil* aduen jabea, bere *meneko* *Urmannu* *ain* *mindu* duelako:

“*An*, *inkoen* *unaiari* *ainena* itzuli nahi diot. *An-en* *mintso* aintzatsua *nork* *malmuzkatu* du *mintzo* hori?”⁵. (baztardoak geureak)

2 *El hombre y su dios*, 56-58, n^o 26

3 *El Diálogo acróstico*, VII,70-75, DB.n^o 26. Cf. *onura*, *morroi*, *narda*...

5 *La Lamentación de Urnammu*, 206-208, DB, n^o 26.

Aieneak edo *negar-kantak emakumeei zegozkien Sumerian* ere, bizi ta heriotzean *emakumea* zeruarekin ararteko hobea izaki⁴:

“Ekarri *ninduen amak* ez ditzala *inoiz nitazko mindurikak amaitu*.
Ene arrebak *aieneak* abesteko berak duen *ain* abotz eztiar *negarrez*
mintza diezaizula *nire ondamenaren zioa*”⁶. (bartzardoak geureak)

Mendu, inausi: *Inoteko* ohikunak ekoizpen munduko teknika-
rekin batera, osatzen joan dira, *emendatu*, *mendu*, *inautsi* ekin-
tzak gizaki eta abereengan eta landaretzan eginak, beheko jakin-
duria eta ahaleginak goikoari laguntzen ziela, ohitura zaharra
eskola berri bihurtuz. Era berean urteko *anoa* eragozten dituen
ainaninoen, *moxorroen malura/maler* salatuz. (Ikus 33 Or.)

Inotea urteko=*annu anoaz* lotzen da, beraz, *inoak* eta *aieneak*
dinoenez, *ino*, eta euskarak *An/Anu/Ino* arketipotik *anologizatu*
mintzo biziaren *mezuà* aldarrikatzen du *mentutik mintsora*.



Altzatsuko *Inotean nabasa/nabarra* lurra *nabasi/nabaste*ko lanabesa erakusten dute. Berak egiten *emangarri* lurra. *Nabasa* ugolde ostean *An* eta *Enlilek* gizakiei *emandakoa* ⁷.

4 Hala Lastuko Miliak bere aitzaren heriotzean: “Iausi da zerurean arria/, aurkitu dau Lasturren torre barria/, edegi deutso almenari erdia” Cf. *Arri=oinaztarri*, Enlil, aduen jainkoaren jaurtinki ezin ekidina.

6 *El hombre y su dios*, 65-66, DB, n^o 26. Cf. *aien*=“kanta zahar”=*endecha*. Euskarak *aienlarien*=erostarien eredu bikoitaz oroitzen du.

7 LIMET, J., “COSMOGONIA (sumero-acadia)”, DR., o.c.p. 443-444.

Ama-mendea=matriarkalisma: Sumeriatik hona ama(s) izena zabala da. Ama-mendea sinboloen garaiko gizarte kultura dirudi. Dana dago amatasunari eta nazari lotua. Mitoak dinonez, Inanna, Anen alabak, “me(s)”=adua ostu zizkion aitari eta haren menduaz manatzen dio Dumuzi senarrari, unaiari bezala:


“Manatu egin diat (...) Ez diat utsi (iriko) manua amaren eskutan=mano, ez manatua=mando (Enki) nebeari laga”⁸.

Amak An jainko sorkuntza aurrera daroa. Euskara ama-agintearen lekuko da man, men, manu=mando, mende, manatu, manaiatu, amarratu, amarru=amaño, amatigo, unai, ensi(s)=nagusi formak arketipoz “agindu, aginte, ugazaba” baino zaharra goak direlako, baita ere amatu, maite, nahitu, mindu, amore, formak “gura=querer” baino. Amagazko nabastarreak ematen die izena=nomen(l) etxekoei, monosilaboetan nabari denez: no, nai, ama, aña, nini, ñeñu, naina, anaie, edo aglutinadoetan: neba, andere, anabi, amatxi, amona, neska, naditu(s), mutil, mirabe=ancilla(l), morroin=mancipiu(l), eta. Euskara zaharrenak amatar marka darama manu eta maite esparruko mintzairan.

Maia/Mayo, Maiatze amatar mendeko ohikuna dirudi Maia Erreginarean eta Mayoan ohikuna. Maia Erregina Inanna gogoratzen du eta Dumuzi Erregea, ostera, Maiatz/Mayo. Ain zuzen ere udaberrian berbizen da Dumuzi izadiarekin batera. Maiatzean eta arramaiatzean jasotzen zan atxa/atzea⁹ herriko plazan. Plazaratzen diren neskatto berriek Maia erreginea aukeratzen zuten eta aren inguruan dantzatzen doterako kantak abesten zituztela: “ezkongai zeralarikan, nai zaitugu koplatu eta koplatu saria bildu behar dugu, gu ere neskatxa gazteak gara, dotea bildu

8 *Courting, Marriage, and Honeymoon*, 20-30, ANET, 639. Cf. Dumuzi=Tammuz Inanaren senarra unaiaria zan, baina damuz hilkorra. Dumuzik Inanarentzat nabasten du, (*Prosperity in the palace*, III, 28-36, ANET, 642-649) unaitza nekazale morrontzaz nastatzen duela. Hortik dator nabastarre, nabarmen, etab. Naditu(s). An jainkoaren temploko mirabea.

9 Mayo tantaiaari “Donien atxa” deritzaio Garaien, Donienetz jasoten delako. Atze “arbola” da. Maia+atze>maiatze dator, lerratze, aretze, astigarra-tze, etab. izenak bezalako konposizioan, “árbol de Mayo” dinola.



Neskattoak Erreginearen *inguru* Iturengo *Inotean*. Jantzera ohiko etxeko-*andreena* da, *mottoa* tunturtzen dutelarik. Ohar irudiaren orientalismoa: nolako *quintasuna, halako tamaña*.

behar dugu”, bai eta erregina eta errege ezkongaiak aipatzen¹⁰. Erreginerrege eztaiak ugalpen sinbolo eta ohikuna dira Sumeriatik hara.

Hitzaren aurretiko bezala, *Maat*>*Matia*/*Maiti*-*Maxa*/*Maya* datorke eta *Matu*>*Mayo*>*Maju*. Egipton Ra jainkoak *Maat ama*=*matri(l)* jainkosari egozten zion gobernu

goitarra, gizakien zuzentasuna jakinduriaz ebatzi zezan. Bereak ziran gizarte-jardukerako aginduak egiztatzea, *Maat* bera baidan, azken baten, Osirisen epaian gizakien bihotzak pisatzen zituena¹¹. *Marduken* garaiko Babilonian Tiamat jainkosa (h)andiaren *mendea madarikatzen* da, Qingu gizakiarekin ezkondu zelarik, harekin *An* jainkoaren *nausitza* gainditu gura zuelakoaz¹². Bera izan daiteke *ama-mendeak* jaso zuen lehen erantzuna

10 JORDA. H., *De canciones, danzaz y músicos del País Vasco*, o.c., p. 46. Cf. “Ni errege balin banintz, erregina zinate” (Etxepare B.) *Potaren galdatazian*, 1, agertzen da gai bera.

11 BOURGET, P., “EGIPTO(religi3n.-La moral)”, DR., o. c., p. 524.

12 *Enuma elih*s, I,158; II, 37-50;IV,82. Marduk jainko zahar guztien makilaz agertzen delarik, haren emazte Zarpanituren eginkizuna ez dager. Babilonian (1.200 K.a) indoeuropear kutsua dager. (Ikus, oster, 132 or. Tebasiko Mut jainkosa Amon jainkoaren eskuman (1850 K.a)



Mitograma honetan ikusten da *ama (h)andiaren mendea*. *Nut(e)* “zeru” de-ritso Egipton eta egunero Ra iruzkia erditu eta altzoan (h)artzen du, Horus biloiak, eskuak zabalik, laguntzen eta gidatzen duela Erensugearen *amarruak* itzuritearren. Ra iruzkia *ontzian* dabil ur goienen eta ur barrenen zehar. Azpian etzanik dago Geb(e)=lurra, erdian laino gainean, Shu(e) airea.

Mari, Mairi izenez ere ezagutzen den uskaldunen jainkosak ere badu kidekorik *Mari* uriko *Nin.Mara* “*Mara andrea*” jainkosagan¹⁴. *Mari* euskaldunak, *Maatek* bezala, bere agindu eta epaiez jaurritzen zuan euskaldunen etika eta zoria:

“ez gezurrik esan, ez ostu, eman-hitza bete, elkar lagundu, kontu harrotzeaz eta lagunurkoei errespetoa galtzeaz...”(..) “Gaizkileak egin duenaz eta huts egin duenaz beraz zigortuak izango dira”¹⁵.


Hagatik, “ezaz eta baiaz bizi naz” bizi zan *Mari*, gaizkileek huts *eman* edo hutsean baieztu *ondakinez*, arean. *Maat* jainkosaren

14 *Mari* neosumeriaren garaiko (3.000 K.a) uria zan, kulturaz eta ekonomiaz ospetsua inguruko herrietan eta Eufратres ibaiaren eskumaldeko erdigunean kokatzen zan. (BERGMANN, E., “SUMERI”, *Enciclopedia Cattolica*, o. c., p. 1508)

15 SORAZU, E., *Antropología y Religión en el Pueblo Vasco*, o. c., p. 290. Cf: (BARANDIARÁN, J. M., *Op. Comp.*, I, 344-429)




Lamgi-Mari sumeriar erregeak jainkosei eskeini-irudia (Mari uriko aztarrenetatik Alepoko museuan gordea. XXV giz. K. a.



Iberiar dama/andrea, (Cerro de los Angeles). (VI giz. K. a) Andere/Anderexo Dona/Yona deitua



Maat egip-tiar jainko-sa: zuzena, doia, egia, egokia, eskubidea dino. Berak ordezkatzzen du nolabait izadiko jakitea. Maat amak ebatzia Ra jainkoak onetsia.



Marduk jainkoa, eguzki irudiez jantzia, Anen makila esku baten, gibilia bestean, Tiamat "mare/itxaso" ta haren monstruen gainean nabigatzen. (Zilindrozko silu batetik harakoa (20 cm), s. IX K.a.

epaitegian arimak itzuleztara aitortzen zituan bere pekatuak: "Ez dut ostu, ez dut inor hil..."¹⁶ etab., ukapenaren *magiak* berak pekatua desegiten zuelakotan. *Antza* denez, jainkosa biok dute *magiaren* eragina, baina ez dira, nonbait, artezi berdinekoak. *Mariren* senarra *Maju*<*Mattu omen* zan eta *Mari Maya*<*Mattia*>*Maide* ere bai *omen* zeritson, mendien santutegiak ere egizatzen dutenez: *Mairumendi*/*Mayamedi*, *Maxamendi*, etab.

Maia eta *Mari* kultura bi haien ondare dira: sumeriar teogonia eta teologia irudipenez egipziarra baino, zehaztuagoa dela.

16 CORTEGGIANI, J.P., "MUERTE Y VIDA DE ULTRATUMBA EN EGIPTO.-El juicio de los muertos", DR., o.c.,p. 1257-1259.

3.2. Erritoen une garaia Utu arketipoaren arabera

Xiularo, Suilaro/Subilaro: Neguko iduzki-muga Anu eta Utu sendiko bien batzean datza, Ononzaroz Xiularo ere ospatzen delarik. *Iduzki* ulduari laguntzeko, neguteko *iduzki*-mugan *otza* uxatzeko *subil* berria *ixiotzen* da, *izurriak itzuriteko*, *joaleak joten* ziran, *Subil ixiotuak urte duztian eustea* zan asmo, bertatik eguneroko *sua ixio* ahal izateko. Hatarako *subazterreko autsaz osturik edukitzen* zan¹⁷, *sutiletik su berria suzpertzekoz*. *Sutondoko berotasuna basoko zuhaitzak gordetzen zuten iduzkiaren ordekoa* zan.

Subilaroz zur tokor=tronco berria ebaki behar zenean, *zuraritz/zuhaitzari* baimena eskatzen omen zitzaion¹⁸, *zuhaitzak*, berezko izadi *duztia* bezala, jainkoen arlo zirelako, jakinduria zaharrarren *eduz* eta, hagatik, Basajaun *eduko* jainko *ttiki edo etoi zurkatxen* ardurapean egon ohi ziran.

Xi+ul “*iduzki ula/uldua*”, *Su+il/Otsil* “*iduzki hila/hilduratua*”¹⁹, *sutil=otz* bezala, arketipoek hitza aztertzen duten arabera.

Jote/Joteri=Turruturaz *joaileek joaleak*, *adarra=yobel(h)*, *turrunta joten zuten Adei=jubileu Urtea deitzeko*. *Sortalde* Hurbileko herri zaharretan berrogeitamar urteoro, zorrak kitatu eta baitu lurra jabeari itzultzeko, bakeak egiteko, pobreei laguntzeko deia zan. Halako deiaz zazpi urteoro landu lurra, ohitura zenez, lantzar uzten ziran²⁰. “Lantzar” hitza ere lekuko da, bai eta Urte Berriz abesten zen “dekonak ez dekonari” aipamena.

17 Horretarako *suaren* ingurua errito berezia egiten zan, gauez “*etxe*ko *sua* *etxe*ko *autsaz* *estal zazu*”, edo ezer gaiztok “*ez piztu ez itzali*” zezan. (SATRÚSTEGUI, J.M^a, *Mitos y creencias*, o. c., p. 91-93).

18 AZKUE, R. M^a, *Euskalerraren Jakintza*, I, o.c., p.91-95.

19 *Utu>Su* dator, *Uturri>Itxurri*, *Otua>Usua/Ixoa/Izoa*, *Otola>Otxo-23 la>Uxola>Isola*, bezala. *Su(s)* “*argi*”, *sua* eta *argia* *Uturen* emariak bai-dira.

20 “Año jubilar”, “Año sabático”, Dic. B. o.c.p, 116-118. Cf. Honela dino ume abestiak: “Urtebarrikari, dekonak ez dekonari. Nik ez dekot eta zuk niri, ezpabe txarri belarri”.



Ezkerrean: *Joaleak. Adei=Jubileu urtea deitzeko ere adarra=yobel(h) joten zan antxinako Sortalde Hurbi-leko herrietan. Jotea zan aldioro egiten zen deia, hagatik deia/deiadar*

Goian: *Utu=Shamash Iduzki jainkoa bere tuturro eta bizar sugar-tuekin. (Hammurabiren oroitarritik, 1972 K.a) Behean: Debako emakume ezkonduen tuturroa (XVI.K.g.)*

Jote hitzari dagokionez *jo+te* “*jo* garaia”. *Adarra, tuta, turuta, joaleak, doinua/soinua* eta inoak *joten* dira. *Turruturu* txistuetariko da, *Turrutura/Turrutaro* “*turuta joteko aroa*”, *Jotea* adierazteko hitza da: Inotean inoz, *Jotean joz ospatzen* baizan, euskararen *otsak* “*jo* eta *ots*” *ospea* ematen dion bezala.

Tuturro=toca: Lehen emazteek kono *edo adar eduko, tuturroa-tourin(f), txuria* eroaten zuten burkotzat. Ez zan Euskal Her-



Sumeriar *tuturro* loretuak Enki, *Utu* Sagar *dantzako tuturro* lumatuak eta *Inanaren buruan=tête* (2.300 K.a.) egunotako gure mutilen buruan.

riko ohitura bakarra, baina, beste ohitura askok bezala, XVI. garren gizaldiraino gure artean iraun zuan. Halakoxe *tuturroaz* estaltzen zuten burua=*tête(f)* Sumeriako jainko-jainkosek. *Zubi=adar* antzeko *tuturro* hori *Utu* beraren babesesana nahi zuan. Emakume *izorra*, “*iduzkiz jantzia da*” (Apok 12,1-3), *ots*, goiko *uddez joria*. “Emakumea *Utu* *edu da*, *gizakia edatzen= edere(l) du*”²² dino *sumeriar* jakinduriak, *Utu* arketipoaren *-tu/-du* atzizkia jantzen du eskeintzape dagoenak: *naditu(s)*, *neskatto*, *lilitto*, *sinistu(s)*, *andretu*, *maritu(l)*, *donadu*, *kadishtu*, *xaxatu(s)*, etab. Egiptoko jainkosak ere *adar* arteko *Ra=iruzki=iduriko* borobilaz *dotoretu* agertzen dira. Emakumeak zeraman *tuturroak*, bere nortasuna eta egoera erakutsi ezeze, erraietako umea zain tzen zuen *Ersugearen* amarruetatik. (Apok 12,3-5)

Donienak deritse Ekainean *ospatzen* diran *iduzki* mugako jaiak. Bezperan “*Donien suak ixiotzen* dira. Bertan *utuldu* nahi ziran, gaitzaren sinbolo diren, “*apoak eta sugeak*”. Ohar *Apothis* *Ersugea*. *Su/suga/suge* formak elkarren aurkakoak dira. *Sute* beratan

22 *La Enseñanza de Shuruppak* (258), DB. n° 26.



*Iduzkiaren ome-
nezko dantza da
agian Elziegoko
nesken irradako-
a, iduzkiaren ji-
rabirak idurika-
tzen bai-dituzte.*

“artoak eta
gariak=trigo”
gordetzeko=
tutare(l) kan-
tuz otoizten
zan. Zorio-
nezkoa omen


zan *suteko* keak etxea hartzea “*Donienez iduzkia dantzan*” aipatzen dute, *iduzkiloreaz txukuntzen* zan/da etxeko atea. *Donien-dantzaz, Uztai-dantzaz* eta *idduzkiaren* garaipena ospatzen zan. *Dantza-soinua tuba, tibia(l), ttuta, ttulubitu, txistuaz* ematen. *Gizarte ospakisunetan, ostera, tobera jotzen* zan.

Done/Don=Jaon/Jaun. Jaun *Done* tituloak santuei egotzi-goitzenak dira. *Jona(h)/Joane/Juan* izena ere *Adonai* edukoa da. *Donias* eta *Joanes Aton=iduzki doru* jainko edukoak egiten dira analogiaz, hako otoitzean bezala: “Bihar artio; Joanes! Zauri bihar muga onez”.

Iduzki Saindu, Aton(e) “*iduzki dorua*” (Ikus 136 or.) zan hasieran, gero *iduzki-doruan* zegoen “jainko *adorea*” adierazteko. *Atonen* salmoak dinonez, “Sortzaldetik *itoitzen* zarenean zure *duintasunez dotore doitzen* duzu...Sartaldean *iduzkitzen* zarenean lurra, hila bailitzan, ilunpe gelditzen da” eta bere Inoak: “zu nere bihoztean zagoz”²³. Eta gure arteko *otoitz* batek dinonez: “gaur kontsola nozu, eguzki, bihar *etorri* zakidaz, kontsola naitean”²⁴.

23 CORTEGGIANI, J.P., “ATON”, DR, o.c.,p. 147-148)

24 SORAZU, E., *Antropología y Religión en el Pueblo Vasco*, o.c.,p.185-188.



Sinboloa eta artezia=magia: a) *Iduzki-lore*a, b) Larzabaleko *Iduzki Saindu*, *tonba* buruko harria “buru beltza”=*swastika* eta *duztikoa*, c) *tregoa*<*Utu*+*Ra*+*Ka* “*iduzkiaren ostatua*” goizeko eta arratzeko *iduzkiarentzako zirrikitu* eta *duzti*, haren *distiren arteziak duintuz*, zendua *iburnitik sorosia* eta *itoitua izan zeiten*. *Tregoharriak tholoen, taulen, talaioten helburu berekoak dira.*

Iduzki dorua (Ikus 133 or.) antzezten dute *toskan* edo *zurean*, hiltzak *iduzki sortaldera so zurtu, itxutu, iduzkitzen* ziran *Atonen duintasuna idoro* ahal zezaten eta *Osiris jainkoagandiko* anziz *sorosia* eta *soltia* izan zedin. Etxeak ere *Iduzki* aldera begira eraikitzen ziran, hemengo bizitokia=*domu otsakiko tonban, tregoa*n osteaz. *Utu* “bizi sortzaile zan/da. *Deiak, (h)eitak, dei-thorak, uzi, uxingak*=sollozo bezelako *otoitzei* adi zegoen.

Su/suari, *Utu*=*iduzkiaren eduko* mandataria bailitzan, *otoiak* egiten zitzaizkion *supitu*=*suplex(l)*, batez ere, norbait etxekotu behar zenetan, *ots, utxarako/etxerako* sagaratu -*tu* atzizkiak adierazten duen lez. Hatarako *sutearen* inguru bira bat *edo* beste emanarazten zitzaion, nor haren atxikitasuna *zihurtatzekotan*. *Suaganako* txera=“amor a la lumbre” ta Gabon-*zuzi* sinbolo harenaganako jaiera eta ohikuna ezin ulertuak lirake, bertan Jainko-maitasunaren sakramentalakoa *idoro* ezik, Mezkirizko emakumeak aitortzen duen bezala: “Iruditzen zitzaute Jaungoikoain amoriua bezala iduki behar ginuela etxean”²⁵.

Ardurazkoa zan gero arrautzei *subil* ikatzaz kurutza markatzea, *txitoak osasuntsu* urten zezaten²⁶.

25 SATRÚSTEGUI, J.M^a, *Mitos y creencias*, o. c., p. 91.

26 AZKUE, R.M^a., *Euskalerrriaren Yakintza*, I.o., c., p. 100.



Su, sute, sukalde, sutondo, supazter, beheko sua, kebide, su-txakur, auspo, zur, zotz, sugarri, iduri eta duztikoa, batez ere Suilaroz eta Otsilez gozatzekoa. Suak, Utu iduzkiak edu, tuldu, turra eta suzpertu egiten bai-du

Su eta ud: beroa ta ezoa, baratza jori egiten duten *Uturen utu-rritikoak* dira, baina *usuak* direnez, *izua edo zorigaitza sor* dezakete *ustegabe*an. Hagatik esan ohi da: “*Uda eta sua* belaunetik berakoa”. *Sutegiko sua* ohikuna bereziaz *ixiotu ta itzaltzen* zan²⁷.

Urte berriz *uddak* berriztu eta lehengo *edukiak* kanpora jaurtitzen ziran *Dohostin*, jantziak *udolean*=*torrente* garbitzen ziran. *Uturri/iturri* batzuk *done*=santu *uzena* daramate, hala *Doniturrieta* Aralarren. (Ikus *uddaren* analogiak 18ⁿ eskeman)

27 J. M^a Satrustegik *sukaldeko* jakintza hau jaso zuan neskatto baten-gandik: “Jaungoikoak emandakoekin sua egin. Oira fatekoan hautsez estaldu, gero Paternoster bat errezatu, eta Jaungoikoak gordetakoekin hurrengo goizean sua piztu”. (*Mitos y creencias*, o. c., p. 91). Hitzak ohikuna elkarrenak dira. Sua Jainkoari eta aingeruei eskeiniz, esan ohi da: Jainkuak duela parte Aingeruek bertze hainbertze, etsai gaiztuek batere”, *sutondoan* belau-nikatuz gurutzak egiten zaizkio eta laratza kakoaz joaz esan: “ez piztu ez itzali” (*Ibidem*, 92-93)


3.3. Erritoen une garaia Ra arketipoaren arabera

Oronzaro: Oronzaroz antxina baten Ra jainkoaren eren ernaldiko (H)orus Osiris eta Isisen (h)aurraren=rorro, ertaroa=ortus(l)/ertzaroa ospatzen zan. Oronzaroz iruzki ori/orailaren=aureu(l) jaiotza ospatzen zan."Erkingu-ertzeko Horus=Horus del Horizonte"²⁸. Lege zaharreko eta mitoetako giza ametsak beregan betetzen direlako dauka Liturgiak. Kristo da, be-raz, askatasun "goiz iruzki/goiz argi" hori. "iO Oriens!" eresten dio jaiotzear dagonari eta beragan dakus ilunpetan dagozan herrien argitzailea. Hori delata, Orontzaro jaiaren egitura zaharra, Kristogan azaltzen den edukin berirari ere egotsi zezaioken.

Ur goiena, ur barrena, Urteberri: Urdiaingo Urteberriko Ura-
ren errittoa da. Antxinatean eskatzen zena bera eskatzen du ere-
siak: "Ur goiena, ur barrena/Urte berri egun ona/Etxe honetan
sar dedila/Pakearekin osasuna/Urarekin ondasuna". Bestelako
erreguak ere ba ditu uraren errittoa honek, baina denak jarraitzen
dute aurreko ereduak: "Ur goiena, ur barrena". Ur aipamen honetan
hako (Has 1,7) goiko ta beheko uren banantze-goraintzia somatzea
burubidezkoa da hurrean, baina Antxinako Sortalde Hurbileko uraren
erritoeekin zubi egitea Thalamas Labandibar eta J. M^a Satrustegi ikerleen
zuhurtzia izan da²⁹. Ur+ ate>Urte= Januarius(l), eta atetik abian urt egitea ere bada eta errittoa
Urte Berria urezta/ugalatzeko agintzen dion urte/uraldia. Hori esan
nahi du Urte Berriz ur zaharrak urtiki eta berriak uturritik jaso
ta xurru padaz Urteari hasiera emateak.

28 MALAISE, M., "HORUS ", DR., o. c., p. 768-769.

29 SATRÚSTEGUI, J.M^a, *Mitos y creencias*, o. c., p. 40-43. Cf. THALAMAS LABANDIBAR, J., *Notas sobre cosmología vasca*, Bol. RSVAP, 1977, p. 76. Cf. *Ur* barrenen artean Hubur dago. "Ama Hubur" deitzen zaio Tiamati. (*Enuma Elish*, II, 19). Cf. uber=burar. Eleizak ez zuan ikusi, agian, paganokeriarik errittoa honetan Bibliak berak eta kosmogonia hau, orduko kulturak emana bezala, onartu egiten duelako (Has 1,6-7; Prov 3,19-20). Altxatzun "Uronako Andre Mari" ere ospatzen da.




a) *Erostariak eroi* (h)eriotuaren erotsa erosten Egipton, b) Hazpainen erostaka, erosta joten, heriotuaren arima erosi ahal izateko, Maat eta Osirisen auzitegian edo Kristoren Arartekotasunari erreztatzen, erresak egiten, erresaka, haren errukiak erruen ordaina ordezka dezan. Eros-tari egitura ez dator beraz, erosta joteko diruz erosiak-edo uste izatetik.

Arrenak, errogatibak: Erregu erromerian santutegietara igoten zan, santuei euria ardiesteko arrenak=letainak arrangurati eresiz. Santua hatartzeko arteziazko ekintzak ere ardurazkoak ziran: errekan urstatu, ur tantak urtiki, itxasora urtiki-keinua egin, etab. Ereguak erregua errazten du, hagatik otoitzak eregua daroa aurretiz: "Oi gure ararteko handia/Oi santu miraritsu/artetsua..., emaguzu, arren,...". Jainkoarren, Jainkoaren amorriarren erregutzen da. Harrezkero hizkuntzak gramatikaraino lotu du -arren balorea funtsezko arrazoia adierazteko edo helburuzkoetan: "ardieraztearren", osterakoetan "egin dugunarren", etab, hizkuntza mitoaren lekuko bizia dela beti ere.

Iruzki Saindua: "O Iruzki Saindua, eman zahuzu biziko eta hileko argia" dino J. M^a Satrustegik Zudairen jasotako erregu bateg³⁰. Arratzaldean (h)eriotzera doan iruzkiaren erruki/urrikal sentitzen da: "adios, Iruzki gaxo"=errukarri. Sentikera bera darie arraltz-liturgiako eresi batzuei, Jesusen heriotzearen oroi-penez. Iruzkia Jainko irudi eraspengarriak orzargitik arratze-

30 SATRÚSTEGUI, J.M^a, *Mitos y creencias*, o. c., p. 40-43.



Hilerrietako Iruzki Sainduak: a) *Ra orgaren aroa/erruda orbian, ardatz eta guzti*, b) *Arberuko iruzki Saindu erdikiak* (15 cm. gora) *eratara eta itxuleztara*, c) *Sarhapuruko iruzki Saindua aro barruan zendua (h)arrapatu, arintu, eroana eta erosia*, San Paulok (1Tes. 4,14) darabilen analogia berberaz. (Ikus Faraoiaren *eraztunak Raren arrano-erpetan*. 99 or)


ra, jarraitzen dio giza jainkozaleari. Berari otoi egitea santuen irudi aurrean erregutzeak egitea bezala da kontuizu.

Iruski Sainduak eroria eta ertua errutik erosi eta errukiaz arintu egiten du *erio*, egunero bere zoriko egiten gaituela³¹, *bera ere, ortzien* infernua=*Orcu(l)* igaroz, egunero berbiztu bezala *urteten* delako, *bizi orzargiaren orkian* dagozanen *argirako (h)aurren arramantza errukiz ordezkatu* ondoren³¹.

Erio=(H)eriotz: *Bizi-arratsari* lotua *dager Ra eredu*a, Osirisen (*h)eriotza* Seth seme setatiaren *erruzkoa oroitan* bailuen. Izen egitura hau *Eros(g)*³², *eroi, erraldoi, ero, erogo, eroso, erori, eri, eroan, ortzi, eroiu, erosta, eregu, erregu, errezu, orki*. Hilo-biaren buruan jarten diren (*h)arri* biribil, (*h)arrigizon* edo *irargia iruzkiaren irudiak* dira. *Zendua, (h)arrizko irudian (h)arrigarritu dago, Raren arteziagandiko eroskundera hartu arte*. Ez zan *hagatik orron=errante urrunduko*. Hortik *harritu/harrigarritu*

31 *Rescate de la Humanidad de la Destrucción*, ANET, 10-11

32 MOTTE, A., "EROS (Grecia)", DR., o.c., p. 544-545. Cf. Hortik ulergarria goa da herriko esakera: "Requiescat in pace --Hemen sartu eta Burgosen urten". Utu soter(g)=sorosle den lez, *Ra erosle* da. Jainko *erogari* egozten bai-dio Paulok gizakien *Eroskundera*. *Otsi/erosi* "enterrar/redimir".



Behetik Nun itxasoak *Raren* untzia *arintzen* du eta goitik Nut jainkosak (*h*)artzen du, bere oinpean Osirisek infernuko *Erensugearen* ardaila bere soinaz *orapiltzen* duela. Kakarraldoak/*arkameluak* errodarazten du Ra kamelatu/*arrobatua*, Isis eta Nefthys jainkosek laguntzen diotela azpitik. Sia ta Hu *arraunlarien* zuhurtziaz *erriatzen* du *Rak* lurbira=*orbe*. (ANET 188)

esakerak *haragizko* zentzuetatik ate dagonaren jarrera azaltzeko. Uturen eduek horixe bera “zur-tu”, edo biak batera “*harri* ta zur” esaten du hizkuntzaren lekukotasuna beti agertzen dela.

Nahiko zan *harrigizoniari* kurutzea ezartea Osirisen *artezia* Kristo-

ren graziaz truka ahal izan eta misteriozko *erresak* eta itunbenaren *eraztunak* aldatzeko. *Raren* barkak *iragoan* (*h*)arrapa eta *airera* noiz *arintuko* orkitzen zan, “eta horrela *airean* erasoak=*harrapatuak*=*rapiemur(l)* izango gara”, Paulok (Tes 4, 17) Kristoren zoriko kristauen bizkundera aipatzen duen *eratan*. Mitoa beti *ere* aldiari aldiko pentsamoldeari *erantzuteko* hizkuntza bizia eta fede eskola bai-da.

Hortu Santua: Oru+-tu, Horus=*iruzkiak* maite-orua da, ots, baratz horutua=*iruzkitua*>*iruzkitsua*. Horus santua zenez, hilerriari “*Hortu santua*” deitzea hur dago eta “*Iruzki Sainduaz*=

Done Santore” sagaratu eta santutzea bezala.

Errensuge/Ersuge: Infernuko Apophis sugetzarrak egunero orzantzean eta arratzean, urten-ortzi eretian, eraso egiten zion erraldoiaren arkari, berarekin batera izadiko *eredua=orden irauli-irrikaz*. Ra erraldoiaren arteziak egunero gainditzen zuen *Erensugeagandiko eraso*³². Mitoa *aurre*-eskola edo pedagogia zaharra denez, San Joanek *irudi* hau darabil jaiotzear dagoen *Erregearen aurka* jarki nahi duen *Ersugea* salatzean (Apok 7).

Aralarreko Mikel Enangerua=Arcángel Jainko-herriaren jago le dager profetarengan (Dan,7). Mikelek *Aralarreko* bakardadean Teodosio jauna *eraso* nahi duen lurpeko *Ersugea* azpiratzen du. Ez du, halare, ezpataz, *erasoten*, edo *Raren artezi*az>*ardid* itzuriten, kurutzearen *eragin*az baino, euskararen *araberako* mito zaharra *erësi* berriaz, ain egoki *ere*, kristautzen delarik.

Arao/birao, erregu/erresuak: Egipton otoitzak=*oratione*(l) *artezi*az *ere* laguntzen ziran. *Arao*ak ona *ardiezteko* ziran, *birao*ak, inor kaltetzeko. *Erse*(e)=*arenga=eregua* jainko *ardura* deitzeko gorralpenak ziran, ots, *artez/artezi*az, beraz *erregua arin artetsi* ahal izateko da. *Artezi*otan horoskopoa eta *irradako*ak, *errondak*, *rondó* biribilketak eta kalejirak zerbaiten edo norbaiten biran=*rededor* haren *eraspena eros/erosi*, *artetsi/ardieste*-ko. *Irradako*ak Ra *iruski*aren birak antzetzten ditu. (Ikus 61 or.) Hagatik *Osiris* jainkoak *ere* inpernuko *arerioen ardaila* bere *ardatzean* lotzen zuan, Ra *iruzkiari* *erasorik* egin ez zeaion. (Ikus 76 or.) *Arriskutsua* zan, behin *arratzeraz* gero, etxeari *hiru bira* ematea, *arerioaren/deabruren* batek *harrapa* bai-zezaken halakoa ezustean.

32 GUILLEMETTE, A., “APOPHIS”, DR., o. c., p. 112. Cf. Nut amak Ra, egunero *erditu* eta *irenzte*-uneak uztiatzen ditu *Errensugeak* haren untzia *erasotzeko*. (PFEISTER, P., “NUT”, *Ibidem*, p. 1293-1294). *Erditze*ko *harriskuak* ba dute Ainamendi inguruko *Erditse* jainkosarekin zerikusirik (SORAZU, E. *Antropología y Religión en el País Vasco*, op., c., p. 90) eta, ausaz, baita *ere* Bizkaiko “*Erdotzako Andre Mariren*” bi santutegiekin.



Olentzaro lehenengo aldiak adierazteko jainkozko azken alegia bere mezu herriko eta guzti guganaino (h)eldu dena. Olentzaro Anu, Utu, eta Ra/Horus jaikoen ostetik datorren ospakizun ber-bera da. Ino barik, oles egin Olentzaroz, oleri alaiak eta, Noelak lelotuz.

3.4. Erritoen une garaia Ihu arketipoaren arabera

Jainko arketipoetan azkenenaren oihartzuna argiago heldu zan guganaino, gaurdaino gorde ahal izan dugun, *Olentzaroren* piurari eta mezu-kantuari ezker. Baina gure irudimeneko piura ez-baikor horren ostean milaka askotako *lezioa* gordetzen du euskarak. *Alegi* hori *liluragarria* da *lehendik* eta *heldueraraino*. Mitoak bere *helburuetan* Kristoren agerpena *elekatzen* du aurretiaz.

Olentzaro: Gainerako jainko arketipoak bezala *Iluk* ere bere *aldia* agertzen du. *Elohim(h)*="jainkoen jainko", gehientasuneko ZEIN kasoan dager Israelen, *l'yn* Ugariten³³, *alaena/alena* "sumo/alhaltsuena" euskaran. Kasu berean adierazten da *Iluren aldia* latinak *len/lein/lehen=olim(l)*=behinola, "An" jainkoarena unea "antxina" formaz bezala eta betiera, berriz, *lm(u)=ilimini*³⁴. *Legezkoa* zan, *alegia*, hasierako *aldi uhun/ilunak lau jainko-leinu alaenekin elekatzea=legere(l)*. Eta ihuntze haretan, "*aldiak hel-*

33 DEL OLMO LETE, *Mitos y Leyendas de Canaán*, 1.6.VI, 25 (MLC)

34 *Ibidem*, 1.3 V31

duak heldu zirenean..." (Gal 4,4) jainkoen *laugarren laiako Olenzaro/Olentzero heldu* zaigu Jesusen Jaiotzaz *lokarria* egitera. "Aditu duanian, Jesus jaio dela..." *Ole! Iluri* egindako behingozko *olesa* ezeze, otoia da, (h)el! *Iole!* haren Seme gizatuari *oleriak* edo *leloak* eta *noelak/nouvel*=berriak *elekatzeko aldia* bai-zan.

Noël(f) formak *Anu+El/Emmanuel(h)* "Inkoa *el/eldu/ondora-tu*". *Noelak*="ele ona/ele berria" deritse "Gabon kantei".

Lotazil, Iluil izen bitxiez ere deitu izan zaio Abenduari, Bizkaian bere. *Lotazilean* ospatzen bai-zan, hain zuzen, Horus aur-raren jaiotza, *loto lorearen* ziletik³⁴ harrigarririo bezain *liluragarririo* jaioa. *Lotoak* urpekora du ama-ahiena eta ur gainekoa, berriz, *lorea*, ahienetik *lorera*, zila bezalako *lokarriak lotzen* duela. *Lotoa latx, laku, lingirdatsu*, eta *Ilu* jainkoaren gainerako *leku lirainetan* ematen da, *Iluri lotu-lekuetan, alegia. Lilutu(s)* ezeze, *liluratu* dager Horusen jaiotza eta *Lotazil lilurapen* hatako beste *ele=logos(g) lekutua* da. Irudi *lez*, ez dago, bestalde, Isaiasen hako "Jeseren muskila *loretuko* da" (Is 11,1) iragarpene-tik *lekutu. Iluil "Ihuren ila"* deitzeak, gainera, gehiago *lotzen* du gure *lehengo elea* eta *alegia* beste herrietakoekin=*laos(g)*.

Laino: *Lainoa* iragarpenen zantsua zan eta jainkoen hurbiltasun seinale erlijio guztietan³⁵. Jentilak *lainoa* etorten ikusi zute-nean Kixmiren ordua zela igarri zuten. Yahveren ordua ere lainotsua dager.(Sal 7,2) *Lain* "tanto", *Laino*<*Ilu+aina/-ino* "hasta".

Laratz=llar=lares(l), Larunbata: *Laratzak* beheko sua hesten eta babesten du. Hatarako erritoan etxekandreak *laratza* jotzen du, sua autsaz estaltzeko darabilen palaz³⁶. *Laratzean elorria* ipinten zan kebidea *laminen liluratik* edo *ilungien erasotik lar gatzeko=librar*. Erromatar enperioriak, herri xea *linburtzea rren, legeztatu* egin zuan *Laratz* "dii lares"jainkoenganako *lehia*,

34 MALAISE, M., "HORUS", DR., o., c., p. 768-769. Cf. *ilutu, loto=Iluz liluratu-lorea. Lotoa Nilo latxean ugari emoten zan*"

35 "NUBE", Dic, B, o.c., p. 1347

36 SATRÚSTEGUI, J., M^a., *Mitos y creencias*, p. 92-94.

errepublikan *legetik* kanpo gelditu zena, errito guneak jende asko bildu eta zalapartak sortzen zituelako. *Iluren leinuko Laratz* jainkok, *Baalek* bezala, baita/bet(u)/bit(s) deturiko betilo edo tenplotxoak zituzten *larreko* kurutzebide edo ateetan³⁶. Errito-aren *leku* beretik hartzen du izena *Larium(l)+baita> Larunbata*. Egun berari Yahwe jarraileak *Sabbatu(a)/Sabbat(h)* deitzen diote. “Be+ate>baita” “beko atea”, gertukoa, ekur(s) “mendi tenplo” *le-kutuaren* ordezkoa bide zan, “ate” edukina, berriz, “almen”, atea takatzen eta atakatzen zelako etxe eta urietan.

Laratzak auzian *lekuko* izaten ziran: “*Laratzak* ezagutuko nor nolakoa den”, “*Laratz*a bezain segur”, “(juro) por estos *Lares*”, hizkuntzek aitortzen dutenez. Feniziarren garaiko kultoa dirudi.

Ilargi, iletargi=luna: Bartzuren ustez, *iletargia* mendarteetan sartzen omen da, eguzkia=*elios(g)* ez bezala. *Iletargiak* bera gutxietsi zuen gizon bat baitu omen dauka, gizonak ote-sorta daroa bizkarrean. *Ilargi* amandrea, Nana(s) eta Sin(a) bezala jainkosa denez, andreen eskubide *alde* dagoke. Beste jainko nausiek zerrua eta eguzkia dauzkate euren arpegitzat. *Iluk, aldiz, iletargiaren=luna* arpegi *aldakor* eta erabat *liluragarria* hartzen du beretzat. *Ilargiari* maite-*leloak* abesten zaizkio³⁸.

Iletargi egiturak “*ileko* argia” dino. Erromatarrak *ilerik ile* “*Luna prima*”, etab. zenbatzen zuten urtaroa. *Ilargi* “argi hildu” *uler* diteke, eguzkiarena den bizi-az, baina ez “hileta-argi”.

Lekore>legor>lehor>lur dator bide bat, *Lekora>Legura>Lora/Lauro/Laura* beste bat edo *Elkorri>Elgorria>Elorria*, etab. Ekur(s) “mendi temploa” gero guru=*anakoreten lorio/ laura* zeritzaien *lehorpei* bide eman zien. Hortik *loria/lohor* ere.

37 MESLIN, M. “LARES”, DR, o.c., p. 980

38 “Euskal zerutiko *ilargi* gozo, biguna/aldendu maitekiro gure aldetik *iluntasuna*” (*Cancionero popular vasco*, II, or. 67, (1968) Cf. “Argizagi ederra lagun egidazu/oraino bide luzean joan beharra nuzu;/gau hontan nahi nuke maitea kausitu./Haren bortharaino argi egidazu” (BORDES, Ch, *Douze Chansons Amoureuses*, Paris (1910)



“Zeu zara Aruru, Gilgames sortu zenuana. Orain kide bat sortu behar diozu bihotz berotasunean haren duin izango dena. Elkarren lehiakide izan daitezela, Uruk uriak bakea izan dezan (...) Aruruk eskuak garbitu, buztin moltsoa ebaki eta txu egin zuan gainera. Eremuan Enkidu gudaria sortu zuan (...) Ninurta jainkoaren zatikia (*Gilgames*, I,II, 30-35). “Anuren koskorra bezain indartsu”(Ibi, I,III,16)

“Ez dago bere adinako indartsurik. Anuren une/muina bezalakoa da, ain da itzala bere indarra!” (*Gilgamesh*, I, III, 4ss, ANET,72-79,83-90,92-97,514-515) Amatasuna Egipton (XVIII dinastian) Irudiak ere zenduen **Ka** deitzen ziran

3.5. Erritoen une garaia Ka arketipoaren arabera

Anu, Aruru, Mut eta beste jainkoek eman zioten hasiera bizitzari eta Inko, Ninhursag, Marduku, etab., jainko gizatuek, jarraitzen die sorkuntzan. Baina *Kingu giza* jainkotuak Anu *gainditu gura* izan zuan Tiamat jainkosaren eskutik³⁹ eta *gailendu* zelako *galendua* izan zan. Mardukuk *Kingu galdu* eta haren odolaz oreztzen du *gizaki* barrirako buztina: “Gizakia sortu behar dut bizi...eta jainkoei atsegin emateko den kultoaz arduratu daiten”⁴⁰.

“Egiaz *gizaki* usua egingo dut. Jainkoen otseintzan *ekingo* dio, haiek *egotaroa* goza dezaten”⁴¹. (bartzardoak *geureak*)

(Ikus Marduk Tiamat=itxasoa jaurritzen 56 or.).Harrezkero, jainkoek sorkuntzako lanetatik atsedena har zezaketen (Has 2,3) *Gilgamesen* aihergoa zela-ta, Anuk *ogar egin* zion Aruru amari eta Aruruk Enkidu sortu zuan, *Gilgamesen kide* lehiakaria, Anuren *koxkor* bat bezain *gotor* eta Anuren une/*gune* bizkorra.

39 *Enuma elish*, III, 37-50.

40 *Ibidem*, VI, 7-8.

41 *El Poema de la Creación*, VI, 6-9. ANET, 60, 66-69, 514.

13^a eskema : GIZA=HOMINE IZENEN MITOAZTERKETA

“Gishnumunab (...) gizakiak bere muietik egin zituen” (*Enuma elish*, VII, 89) (Marduk jainkoak jasotako izengoitietariko bat da)

- “Anu-ren une=muina bezain itzalgarria da bere indarra” (Enkiduz esaten dena) (*Gilgamesh*, I, III, 4ss, ANET, 72-79, 83-90, 92-97, 514-515)

- Anu/une=“Anuren muin den gizakia.

- ka+iza>giza=“gorputs+izate” Cf. Ka=korpitz+She=iza(n)=esse=ser,

- giza+une>gizun/gizon=“hombre”, une=mun/muin, ba+mun=munab

(itzuleztara)>women/homine=“mujer/hombre”=barne muindun=gune(g)=ungia=“Anu-unea korpitzean duena”. Cf. kaizu=“talle del cuerpo”,

- Ba=barne=baita=pneuma, ba+iza> bizi=vivir.

- (*Ohar: munab,*minabe/mirabe=“doncella, criada”)

- giza/gizakiaren izenordeak: quis, quién, kori, ego/eketa, gu, kau, ekeinos

Gizakiak jainkoek hasi-lana aurrera eramateko agindua dauka, hatarako gaitasun=capacidad, gomen eta gnosis(g) egokiak hartu bai-zituan (Has 3,22). Lurreko An den Enkik banatzen dizkie hatarako lana eta lanabesak⁴² eta halatan gogoa eta giharra ekintzan ezarri beharra gizakiei egokitzen zaie.

Kixmi gizakia: bere ganoraz mintza ahal izateko, bere gizatasuna jartzen du kanontzat, gauzak bere kixa/gisa gogoratzeko. Gentiltzaroa igan zeneko gune berezian, Kixmi=Kristo=gudu(s)=gantzutu=gaizkatzailea agertzen da. Araz gero gaua Gabon da Jainko gizatuaren jaiotza eta Jainko-semea geure gizako/ganorako, jaio=genna(g) bai-da. Kixmi⁴³ eta Kristo egituraz giza arketipo berekoak dira; gudu(s)=gantzutu, sagaratu, adierazi nahi du; gudu(s) da ausaz, gudari hitzaren guraso ere, gudaria gudu=guerra=jarkipenerako ganoso egon zedin, gantzuz eta krisma(g)-olioz gantzutzen bai-zan.

Equberri: “eguzki berri” arketipoz Kristoren jaiotzarekin egoikiago datoz jainko arketipoz hasten diren Ononzaro, Suilaro,

42 LIMET, H, “COSMOGONIA (sumero-acadia)”, DR., o.c., p.343-344.

43 Ki+She>gixa/giza. Kixmi kixa egituraren gehiengoa dirudi. Ez du behinpehin “simiu(l)=tximu” formekin zerikusirik.

Eskuman: Larzabaleko Iduzki Sainduaren itzulzarakoa. Hilarriok, alde batetik edo bestetik, edo bietatik, denak agertzen dute *kurutz sei-nua, izar, iduzki eta ilargi, etab.en gainetik.*



Grekoen argiak “Artzainen *gurtetan*”. Zeru-lurrak bat *egiten* dute. Jainkoa *gizatasunez* janzten da, Jesus izena *giza* arketipoez ere ahozkatu ahal dadin. *Gertakaria* Mari izeneko emakumearen erraietan *gertatu* zan. “*Grazia*z betea da” eta aingeruek “herriarentzat *pozgarri* den berria: *Kristo gaizkatzailearen jaiotza aldarrikatzen dute*”(Lk 10-11)

⁴³Oronzaro, Olentzaro izenekin baino, *Kristo delako gozamen* eta *gogo berria* dakarren *Eguzki berria*. Sentzu berean erabili ohi dira “*Gabon kantak/Eguberri kantak*”⁴³ euskalkietan.

Gau+on>Gabon, Anuren *gaua* bailitzan, beste *gauetatik* be-reizten da. *Gentiltzaroak* ba zituan *Gaueko*, *Gauargi* zeritsen *geinu gautiarrak*, eta jakinduria zaharrak ohi bezala, izarren *gidaritz*a *galdetzen* zutenen, *Kixmi* iragarri zuen Argaintxabale-tako agure itxuak bezala. *Gabonetako* argiak behingoz uxatzen zituan *Gaueko* izu eta *Gauargi* ezbaikorrak.

Gentiltzaroa eta *Kixmi*: *gentilen gomuta gordetzen dute* *Gentilbaratz* bezalako tokizenak eta koba, trikuari eta harrespilakin

43 “Oi Eguberri gaua, pozjariozko gaua...”, “Oi Gau dohatsua, Yaunak hautatua...”

lotzen da euren ospea. *Gentilak* ziran *kristau* ez ziranak eta *kristautu* ez ziran euren santutegiok salatzen dituzte. Enda/jende/jendakin “etxetiarrak” esan nahi du, baina latinak bere mendeko ez ziren jendei “*gentile*=paganu=baserritar” zeritsen. Badu, hala ere, edukin hoberik “dama jentil”, esakerak.

Ekain, kina: *Eki*+*gain*, udako *eguzki* muga adierazten du, baina *gune* haretako ilaren izentzat *gelditu* da, erritoen ospea Donienak bai darama. *Guen*>*Kin* egiten bai du tokizenetan, ba du *Kingu* jainkoaz eta *kin/king(i)* zerikusirik, Marduken izenetarikoak dinonez: “*Kimma* (...) jainko guztien *gidari* bai-da”⁴⁴ edo “*Ziukinna* (...) jainkoentzat zeru distiratsuak gertatu zituena”⁴⁵.

Akiti(s), akitika: *Akiti* zeritson Sumerian Anuren omenez ospatzen zuten jai handiari. Martxoan eta Azaroan, ots, azia ereiten zen hileetan. *Akiti* ospatzeko tenploak “bit akitu”(s) “jaialdi baita” bereziak egozan, Esagilatik aparte. Jarraipen handia izan zuan jai honek Asirian eta Babilonian⁴⁶. Zortzigarren egunean erromes joaten ziran mendiko *Akitira* eta hamaikagarrenean itzultzen zan ostera jainkoen zutoiraino urteko aduak jakitekoz. Egunez egun otoitzak, garbiketarako ur eta abereen odol ixurketak, erregearen pekatu aitortpena apaizaren aurrean, *Enuma elish* eresi zatiak abestea, jainko irudiaren bilaketa, *gudu*-dantzen *ekitea*, eta bakearen lorpenaz hierogamia/jainkoekiko errege-eztaia ospatu eta jataldi batez amaitzen zan⁴⁷.


Kale kale eta mendiz mendi (ohar *Agidomendi*, *Akitiola* Eskaleramendiko ikustokia) hainbeste eguneko ohikunetan, *akitian*, eta *akets* *ekinen* *akiturik* utziko zituzten azkenean, gure arteko Inotean edo gure mendi ermitetarako erromerietan bezala.

44 *Enuma elish*, VII, 107.

45 *Ibidem*, VII, 15-16. Cf. *kin* “punta, agujón”, *kinatu* “*akuilatu*”.

46 LIMET, H., “AKITI (religión sumeria)”, “AKITU”(religión asirobabilónica), DR., o.c.p. 42-43. Cf. urigailu(s) “sumo sacerdote”/*gailur* “supremo”.

47 LARA PEINADO, F. *Poema babilónico de la creación (Enuma elish)*, *Introducción*, o.c.,p. 60-71



Thot jainkoak, eskribauen zaindaria, Faraoiaren izena idazten du bizitzako zuhaitzean. Handik datorke zuhaitzetan izenak zizelatzeko ohitura. Thot jainkoak asmatu ei zuan hizkuntza, gizakiek eta jainkoek elkar uler zezaten.

Thot jainkoak Seti I^o faraoiaren izena ezarten du *persea* Raren zuhaitz santuan. (PLJOAN, J. *Summa Artis*, III, p. 365, Espasa-Calpe (1945). Ohar: *persea(e)*, *pardes(h)*, *pardisu(sirio)*, *paradeisos(g)*=*Baradisu*. *Pharas(ara)*=*beraza/baratz*, *baratz-berezi*, *baratxi-baketsu*. *beraz*, *beresi* "jara". Urrun joan gabe, euskara mito biziak gure *baradisu* mito-ametsak oroitzen ditu. Ra jainkoaren atzea: Ra+atze>are-tze/arce/arte=arbola. "Gaitz eta onaren jakintza zuhaitza" (Has 2,9) "Bizitzaren zuhaitza" berari lotzen direnentzat (Esa 3,18). Hala ere, gizakia *Baradisutik* aldendua izan zan. Jainkoak ez zuen nahi bera baino beste jainkorik. (Has 22-24)

3.6. Erritoen une garaia Ba arketipoaren arabera


Giza osakaietan Ka gopuzkeraren ganoa, gogo da "ánimo" eta *Ba*, *barnea*, *baita*, *pneuma(g)* "ánima". Giza osakaiok hizkuntzaren norbere arketipo *bilakatu* diren *bestean* mito bizi dira.

"Ene ba!"="Ene bada!", "Ea ba!" esakerek Egiptoko jakinduri-azko literaturaz zerikusia dute eta gizakiak norbere *buruarekin* elkarrizketa egiteko, *pentsatzeko*, duen ahalmena adierazten du:

"Oi ene *ba*, *bizitza* honetan *beharra baretzeko* ez geia (...) Ene *bak* estakuru *barik* entzuten *badit* eta *bere bihotza* nirekin *bat* badator, zoriontsu izango da"⁴⁸. (*baztardoak* geureak)

Batek ba daki *bere baita*=*habitación behingozkoa* duen eta, *bere Ka*=kaizuak huts egin *balezaio*, txoriak=*ave bezala*, *hegan*=*volar* egin *beharko* lukena, (Ikus 77 or.) *beraz*, *beheko bizia*=*vida* egonean *baino*, *aboro ibilian* *betetzen* dena. *Beraz*, *fatean* egiten

48 *Diálogo desesperado con su ba*, 15; 39-45, Db. nº 26.




Egorketa=*funeral* arranditsua Egipton: *Balbea pasa* da eta *bizitza* eten Nilo ibarrean=*valle*. *Ba bere bidean abiatu* delarik, *Ka/gorpua barkan bildu* eta *ibaian doa bere piramidera* edo *obira*. Erritoak hitza sortzen baidu, *ibaia>via>fe* dator eta *ibai+ate>bide>fide/fede*. Hagatik *barka* “ataúd” da eta *barku*=perdón analogizatzen, *bada*, Maaten *epaitegiko balanzan zenduaren bihotza pisatua* izango da: *obenak=bekatuak alde batera*, *birtuteak, fedea*, *bestera*. *Pisuak berak emango du epaia*, *baina pena barik*, *balia diezaio-la aboro Maat eta Osiris jainkoen beratasunak eta pietateak.*

du *bidea* eta *fedez* darraikio *bideari*, *bidea/fedea bizi* eta *hizkuntza jakintza eginik eginik*⁴⁹. Egipton Nilo *ibaia>via* dator denerako, bai eta *piramide=obirako* ere. Agatik, *Baren pentzutan ibai>via>fe*, *bide>fede/fide(l)* berez analogizatzen da.

Balbe=Herio: Izen biok *heriotzaren* nortasuna adierazten dute eta *Iburnian* dute euren erregetza, beste jainko askok bezala. Ilu/El/Allah jainkoei al/ahal/(h)el/(h)il indarrak egosten zaizkionez, haren *bitarteko=valido* eta *biloi apaldua bezela* dager lurrean *Balbe*, *bitarteko=valido* eta *biloi apaldua*. *Balbe*, *Baalen peko* edo *Iburniko Baal*=“jaun” bezala: Ilu lainotan, *Balu behean*.

Birao=bidana: *Arao/Birao* elkarren aurkakoak dira. Araoa gaitzak uxarazteko otoitza da. Jainko-araura taxuturiko hitzak,

49 *Bizitza* eta *heriotza bidea*, Jainko eta giza *bidea bereizten* zuten, “*bide zuzena*” eta “*bide okerra*”/*bide bakoa*” bezala. Halako *bideak fede jarraipenarekin bat egiten* du *Biblian*. (Dic.B., “CAMINO”, o.c.,p. 261. Cf. *Bidezkoa=zuzenbidea=eskubidea* elkarrekin batzen dira. (Ikus 16^a eskeman)



Tutankamon faraonaren bularrekoa

Hiltean gizakia osatzen duten konposagaiak *banandu* egiten dira. Ka korpitzaren edo haren irudiaren zorikoa da. *Bak* berpiztu dezake *berera*. *Ba* giza *burudun* txoria antzera irudikatzen zan.

berezkoa du adierazten duen asmoa egiztatzeko indar. Araoa hitz arautua da *beraz*. *Biraua*, ere arauaren artezia darabil, *baina*, asmo *baldarrerako*. *Birao*-jeinua, *biraoa* ahozkatu orduko jabetzen omen da aurkakoaz⁵⁰. *Berbearen* artezian sinisten zutenek uste zezaketen halakorik. *Hitzak* egin eta desegiteko indarra bai-zeukan⁵¹ jainko arketipoez eginda dagoenez gero. *Birao* jeinua, *bide* onetik *bira* eginez, *bihurritu* egiten zan. *Bidana*/dana formak ere elkarren aurkakoak dira, dena ta ez dena adierazteko.

Basa/Ptah: *Ptah* giza jainkotuak, *biotzaz* ohartu eta mingainaz *abozkatuz* dena sortu zuala dino menfitar teologiak. “Eta hagatik jainkoek zur, harri, *buztin*/*basa* mota *bakoitzaren* gorputzaz eta haietan hazi daiteken guztiaz jabetu ziran eta euretan *forma bilatu*”⁵². Hil-jantzian momifikatu agertzen den jainko hau idi itxurako *Apis* jainkoarekin *berdindu* zan, *Basajainko bezala*.


Patuak, pamerialak: *Patuak*>*Fatum/Fata(l)*>*Hados/as*. Euskal geinua Erroman eta erromanzeetan agertzen dena *baino* urrunduago dirudi, haren *sexoaz* ez *bai*-da arduratzen eta aurrizki-arketipotik hurrago *bai*-dago. Haren aurretikoak, jainko ereduak, alegia, “*Adu/Adur*” ere ezagunak ditu. *Addu/Hadad(a)*⁵³.

50. *Gilgames*, V,II, 3-4.11

51. *Ibidem*, p. 35. (N. del T)

52. *La teología menfita de la Creación*, 60, ANET, 4-5. Cf. PFISTER, D. “PTAH”, DR, p.1459. Grekoek *baldar* edo *pazema* jo zuten *Ptah* jainkoaren ganora, artezia handiaz, baina *basa*=barro *bezalako* gai *basaz/bastoaz* sorkuntza egin zuelako nonbait. Hortik *basagizon*. Fonetikaz ohar *patxaran*.

53. “HADAD”, Dic.B., o.c., p. 707-08.



Addu/Haddu(a), Adar(h) jainkoa esku ba-koitzean *hiru* jutzuri errainu dauzkala eta olatu gainean *bi pisti* uzu gidatzen dituela. (Babiloniar zilindrosko silu batetik) (Dic. B., or.797). Adu/Patu, Odoi/Hodoi/Hodei, Adar “ekaitzaren ur jasa”, Utu jainkoaren sendi bereko indarrak ziran, Utuku/Udug lez, soinekoan dituen iduzki seinuak adierazi bezala. Bide beretik Adar/padar/padre dator.


Adar(h) izenak agertzen dira Akadian, Odoi/Hodei formen ereduko eta egin-kizuneko dira. Izan ere, *hodeiaren* zar-tadak eta ezusteko gaitzak Adu jainko-en edo *Patu* geinuen eragina ziran. Hala ere, lan harrigarriak egiteko laguntza ere ba omen ziran, *pamerialek bezala*⁵⁴. “Pamerialak ditu” esakeraz, *bizien begietan, bilobenetan* adibidez, atton-amonen argiak eta *begirakunak* antzematea atsegina izan daiteke, asaben lilura gogarazten dutelako, baina

zendumen gogoekin ez *berdintzekotan*, noski.

...Apophis/apoa: Hala zeritson Egipton Raren sugeari=Eren-sugeari. Ra jainkoak Ureus izeneko sugeñoa zeraman *bekokian Apophis apotxarraren* amarruak *begizkoz* salatu eta eraso zit-zan. Hagatik “egoki da Ureus onartzea eta *Apophisi* txu egitea” dino egitiar jakiteak⁵⁵. Gure umetzaroan ere ezaguna izan dugu *apo* edo suge hilaren ondotik igarotean, txu egitea. *Apo/apo-tzar/apotxar* hitzak iraingarriak izan dira gure artean eta nekez azal ditekete iguin hori egitiarren *pentzakera* kontuan izan ezik.

54 BARANDIARAN, J.M., *Diccionario de la Mitología Vasca*, o.c., p. 55.

55 *La Enseñana de Amenemope*, X, 20, DB., nº10. Cf. “(s)apoak eta suge-ak erre” esaten da Doniene kantuan ere.



Ur-Nanshe Lagashko erregea erlijio ohikunean. Goian: tenploko lehen harria edo otarkada lurra ezarten. Behean: ixipua astintuz, tenploa *sagaratzen*. En(s) "apaiz guenarena" e-giten du, ensi(s) "uriko nagusi" berberak. Ohar sumeriar jantziaren aloz-nak eta irudien orientalisma: nolako duintasuna halako tailua. (K.a. 2800). Ikusliarren eskuak otoitzean kurutzatzen dira.

3.7. Erritoen une garaia She arketipoaren arabera

Gizakiak ez zuan bere burua jainkoen aurrean aurkezteko nahiko duin ikusten. Tenploko *jainko* irudien aurrean *jaiki* edo *exerita* egon ahal *izateko santutasun xit zehatza* behar zuan. Nola *sagaratu* zezaken ezer, norbere burua *sagaratu* ezik?

Anuren menduko *kù-g(s) izateak* duintasun arrunta ematen zion gizakiari, *mah(s) izenak* tenploaren dagoen *jainko* irudiaren *santutasun* gurena adierazten zuan eta *zi-d(s) izateak*, *jainko santutasun eztiore txit zihetza* ematen zion⁵⁶, haiekin *eztaitu/*

56 RIES, J, "SAGRADO -2. La expresión de lo sagrado en el mundo sumerobabilónico", DR., o. c., p. 1577-1578. Cf. Gizakiaren osogarrietan Egipton Ba eta Ka arketipoen ondoan *Akh* agertzen da. *Akh* zeruarekin lotzen den jainko indarra da, argia, aintza eta artezi eragina duena. (BERLANDINI, J., "AHK", DR., o. c., p. 42). *Akh* edukinez bateratsu dator *Zi-d* izateak aurrizki daroan arketipoarekin eta *ats>asperatu/spirare* forma eta edukinekin. *Ahk* "jainko indarra" eta *ats* "bizi-arnasa", "aitaderak *atsa* emon zaun aur koni", elizkizuneko erriotan aitabitxik *atsa* ufatzen bai-zion besoetakoari.

ezkondu ahal izateko. Haraz gero, *santutasun seinu* diren *zi-d* eta *ahs(a)* arketipoak egiten du aurrizki tenplo *sagaratuen* izenetan: *Zikurat, Esagila, Sakara*, etab. *Santutasun* hori mendiek berez diren tenploetara heltzen da: *Sandamendi, Sagarmina/Sakramenia, Sacromonte, Eskaleramendi*, etab. eta ekur(s) zirenak *eskuri/segura* egiten dira: *Egurmendi/Eskorrimendi/Eskuriamendi*, etab. eta akar/acre(l) *sagar/sachra(l)*⁵⁷ egiten dira, *eztikera* berria hartu bai-dute, *Agarramendi/Ezkarramendi* bihurtzen dela eta jainkoengandiko *karra/eskar=kharis(g)=gratia(l)*, gizakia *jakinduria* berriaz *jantzi* delako, erritoaren hitz bizi den hizkuntza lekuko agertzen denez.

Xaon/jaun: *She* ereduari *esker*, An>*Sam*, Anu>*Yaum(a)/xaon/jaun*⁵⁸, en(s)>*Sem(e)/sen/seny(ca)*, *sene(l)*>*seniore/señor*, bihurtu da. *Euskal sendian* ere Anu/*sanu(l)=sano*, Iño>*seinu/sino=signu(l)*, *sinu(l)=seno, sin, zin*, *aña>señá*, *eñe>esne*, *nini>sein*, “me/eme”>*seme*, *sema(g)=señal*, *semeios(g)=semejante*, Ra>*zar/zahar*, hizkuntzak arketipoez *jakintza seinuak* ematen dituelako.

Xainko/Jainko: Inko>*Xainko*, Anttu>*Shansho>zantzu/santu/santo*, Ada>*aizta*, Ba/aba(ara)>*xabe/jabe=chef(f)=jefe/aizpa*, abel>*chaval/chavala, sabel*, *narea>senar* etorri dira. *She jatorri*-eredua atzizki dela, berriz, An>*antz=antzi=ansia*, eme>*emazte*, *atta/aita>aitaxe*, *ama>amaxe*, *anaie>anaixe*, *Euskararen aurreneko (h)azkunde-iraultza izan* zan eta nonbait giza *jakinduriaren* garapen aldia Neolitosko mediterranean kulturaren.

Esku, eskubide: *esku/eski/sc/sch/x* egiturak agertzen dira *eskola, schola, skire(l)=xakin*, *noscere(l)*, *jakinduria sailean* eta *eskar=kharis(g)*, *sachara(l)*, *sacra*, *sekretu=segeretu* jainkoegazko erritoan. *Xainko* hitzak berak ere giza arketipo biok Ino eredu *jainkotiarrarekin* batzen ditu. Erritoetako *eskarietan esku* biak jasotzen dira: *eskui/ezkerrak*. *Eskuak eskubideak*, ots, zor dena

57 *Sagardoa* edari *sagaratua* dirudi, Mariren gonbitea ere *sagardoa* zan.

58 “K.a. XX gizaldian *Yaum* izen edo *izengoitiko jainkoak* egon ziran Akadian. (“YAHVÉH, IV-Antigüedad”, Dic.B., o.c. p. 2055-2056)

eskaten dio gizarteari, ezkerak, ostera, zor ez dena, *eskar/eskerra*=mesedea, *eskaten* dio Jainkoari.

*Eskanuan exeritzen zen eskudunak zigor eta eskarmentatu zezaken ezbidetz zebilana eta saritu zuzena. Inor auziratzeko zinezko aitorra eman behar zan, hatarako, Jainkoarren, Ino/sino=signu(l) ezaguna eta zeinu berezia emanetz, zintzo eta sinistagarria zenetz jakitekoz. Zintzoa askatu eta jaregin geldituko zan. Esku ereduaren goraintzia eskondu, ezkondu egituretan gordetzen da *securu*, *segur*, *zihur*, *ezkuta*=*escudarse*, *eskutu*=*escudo*, *eskatu*, *escuchar* formetan bezala. *Eskondu*=alcanzar den beste da *ezkondu*=casar. Hortik gaztelaniatzko "pedir la mano" edo casar/cazar formen artezia ere. Izan ere, egituraz *eskara/eskuerak* eta gaztelaniak ez dituzte ordena berean *jartzen* Ka/She giza ereduok. *Ezku*, *azkurriatu*, *azkortu*, *eskatimatu*=*escatimar* arazoa *etxe*+*ekua(s)*>*esku/eska* edo *ekua(s)*+*etxa*>*casa* taxutu zirenetik dator, *Eskual* Herrian *etxe* ereduak *txit* *jaio* eta *txairo* *jaurritzen* zuan.*

Eskuarak *She* ereduari sor dio bere bereiztasunik handiena, bera *izentatzean* eta *eskual* *etxe*ari *xeguna* *ezarten* bai-dio. Gure hitz-erroez *eskuarari* galdetzean, mitoazterketa *izan* dugu gogotan, eta erantzun fidagarririk *etxaroten*=*spero(l)* dugu.

Shedu, *xede*: *Shedu* geinuak tenploen eta palazioen *etxezainak* ziran, *etxetuak/etxekotuak*-edo *bailiran*⁵⁹. *Shedu(a)*⁶⁰ aingeru *ja-gole* dager. Berari dagokio *xedeak ezartea*, *erratua xedatzea*, Ofizioz egonean *sede*=*exertoki* >*xedatu* datorke, *zela*>*zelatu* bezala, biek ere *zaintzari* emanak. *Jakinduriak* ere hala dino: "gizonak asma, Jainkoak *xeda*".

59 *Enuma elish*, I, 10. (N.del T.)

60 LIMET, J., "DEMONIOLOGÍA (religión sumeria y acadia)", DR, o.c., p. 416-117

IV. MITO ERRITOEEN UNE ARRUNTAK

Mito-erritoen une garaietan jainko nagusien sorkuntza ospatzen da eta herriak bat egiten du halakoetan, izadiko ikuskariak ere hataratzen dutelarik. Baina jainkoen sendia ugarituz doa, eta jainko seme-alabak eta biloak nausitzen dira, unean uneko, arbasoen arrastoa eta ohorea ezetsi gabe. Alatsu erreinuko dinastiak ere aldi barriak markatzen dituzte eta gizarteko sendien bizitza ere aurrera doa seme-alabengan eta seme-alabek guraso zirenen ekintzak berdindu nahi dituzte.

Ospakizunetako maila nagusiak ez badira ere, jainkoen sendiko seme-alabek bere ardura bereziak izango dituzte, kristaudian santuen aratekoatasunak bezala. Hagatik bizitzan funtsezko gauzak Jainko Jaunari eskatzen zaizkion artean, etxeko abereen osasuna-eta, adibidez, San Antoniori edo mendiko santutegietan ararteko diren santuei. Bestalde, erritoaren une garaiak urtean behin edo birritan izan ohi dira eta arteko utsunea norbaitek bete behar zuan, gizakiaren beharrianak amaigabeak direnez gero.

Gizarteko familietan bezala, jainkoen sorkarrietan ere aiergoak eta nor nausi-gureak sortu ziran. Qingu giza jainkoetarikoak, adibidez, Anunnakuen-eta laguntzaz, Anu gainditzea erabagi zuan eta, hagatik, zigortua izan zan¹. Beste demorrio batzuk ere gizakiei gaitzaz sortzeko aieria dute eta infernuko jainkoek ilun joka-tzen dute gizakien bizitzarekin.

Jainko alabekin ezkonduz, nahiz jakinduriaren puruz, Adapak bezala, gizakiak hilezkortasuna bilatzen du. Jakinduria bai, jainkoek gizakiari jakinduria eman zioten, baina betiko bizitza eurentzat gorde zuten². Paradisutik lekutua izan zan eta, hagatik, jainkoekiko harremanetan okerren bat egin duelakoa du gizakiak. Zer egin jainkoekin itun egokia lortu ahal izateko?

1 *Enuma elish*, I, 150; III, 37-50; IV, 82. Cf. *Blibia de Jerusalén* (Has 6,2-4) Notak.

2 LIMET, H. "ADAPA(religión babilónica)", o.c.. p. 23. Cf *Adapa*, ANET, 101-103

4.1. An sendiko mito-erritoen une arruntak

Inko/Inka: Inko Inoren partekidea da egituraz, haren semeko bailitzan, seme gizatua, alegia, Enki(s) “lurreko An”² den bezala. Inkori inka egiten zaio otoitz. “Hala Inka!” zin egiten da. Inkaz jardutea “con aínco” ekitea da, gaztelaniak ere soinu beraz baidino; inka-minka, “Inkori inka eta lanari minki”. Arazo inkonia-garriak dagoz, egotez. Inkoniatzailea ezezaguna denean, nork da inkoniatzailea, nor errudun? “Finka” ote genezake orduan gure Inkoagan? Bada hitza, “hincarse” bezala, hor jaio da.

Anunnaku(a)=ainaninoko/inimicu: Inka egiturak ainenka du kontrako, aienak aienena bezala. Ainaninoak Anu jainkoaren angeruetarikoak ziran: anunnakku(a), anunakene(s) eta ainaninoko deitu izan dira gaurdaino ume bihurriak. Ainen=maldición, aineneko=maldito. Marduk jainkoak zeruko eta lurreko anunnakiak banandu zituan, bere arerio=inimicu(l) Tiamaten alde urten zutelako³. Anunnakiok langile bikain izan omen ziran, Esharra, haren tenploa, eraikitzen, tresnak asmatu eta arriluak egosten⁴. Eraikintza harrigarriak egotsi zitzaizkien anunnakuei hako “Kastrejanako zubia” ipuinetako ainaninoei bezala.

Andere/Anderetto/Anderexo/Andre: Jainkosa goitzen hau Aquitania eta Ainamendiko oroitarrietan agertzen da⁵ eta Andramendi eta Andrach bezalako santutegi izenak ziurtatzen du. Ander da irlandera zaharrean “andere gazte”, neteret(e) egipzieraz “jainkosa” eta Antroxo(ga) ausaz, andretu berrien sagaratze-ko emazteki ohikuna. Izan ere, andretu/anderexo dator eta partekidetasuna adierazteko -tu atzikiak sagaratzea dino, naditu, anutu, gudu(s), maritu, donadu sumeriar formatatik gureeneta-raino. Ohartzeko da, bestalde, andere/andre/matre egituretan

2 Anunnaki, Anunnaku forma bikoitzak dagoz, hala dirudite Enki/Inko ere

3 *Enuma Elish*, VI, 39-50.

4 “Anunnakiak lanabesak egokitu zituzten (...), harrilluak landu (...) Esagila jaso zuten” (*Ibidem*, VI, 59-64). Cf. ainen =maldición, ainanino=demonio.

5 MICHELENA, L. *Textos arcáicos vascos*, o.c., p.16.



Ezkerrean: *Ama* bere umearekin (Alikanten Albuferako hilerri batetiko terrakota, IV K. a, *Hist. del Arte Español*, I, Planeta, p. 79) Eskuman: Euskal eskolako *Andre Maria* tailua (Gasteiz, XIV) Mila ta zortzireun urte doaz irudi batetik bestera, iberiar deritson artetik Euskal Herrikora. Arteziarenaz aparte, narotasun eta eraspen berdina erakusten dute biak. “Jung sikoanalistak jainkotze mistikoa dakus Mariagan, Asentzioko misterioan berere”.

arketipo bereez taxutuak direla, *Maat+Ra>matra/matre* bezala.

Euskal senak Jesusen *Amari*, Jainkoaren *Amari* dagokion tituloz, *Andre Maria* deitzen dio, Efeson grekoek, artean Isis jainkosari deitunekotik, “Theotokos” deitu zien bezala. *Andraena/Andrane* geheingoaren egituran ere deitu izan zaio. Arketipo berdinez dager *Renenet(e)* eskribarien eta artearen zaindari jainkosagan Egiptoko jakindurian⁷.

Marti/Martu(s)/Martio(l)>Marzo jainkoaren izena ere ondo txertatua gelditu zan gure kalendreran eta hizkuntzan. Ba du Akitaniatik *Ainomendira* gurtua izan zen *Marte* jainkoarekin zirikusirik. *Martu=Amurru mortuko* jainkoa zan Sumerian⁸ *inoiz* Hodeiaren *amorruekin* parekatua. *Marti* udaberriko baratzaren *ongile*, *martioilar*, *martigari*, etab. *emoile*, *Martintxu* lanabesen asmakari trebea eta *Marte*, berriz, *medikutzan* aritua, erromata-

7 *La Instrucción de Dwa-Jeti*, 30, DB. n^o 10, p. 34.

8 LIMET, H., “AMURRU”, DR., o.c., p. 63.

rrek guda-mutil izentatu aurretik. *Marti/Marzo* eta *Mayatz/Mayo* elkarren ondoren. *Maiatzean* ospatzen zen *neskatto* berrien plazaratzea *Nafarroan* (Ikus 55 or,) edo *Mayatz-aretza=Mayo* plaza erdian jasotzea⁹. Jai honek ba zuan *nerabe-jendea*, *morroinak* eta *neskaxeak*, gaztaroan, otoz-otoan barik, halako erritoen herri-eskolaz eta abegiaz gizartean egoki sarrarazteko asmo ederrik. XVIII^{an} Eleizak "*Maiatzeko lorak*" debozioa bultzatu zuan¹⁰.

Mardo/mardul, malats: Sumeriar mitoak dinonez, *Martu, mortuko* jainko edo gizaguren zelarik, kalera eskondu zan¹¹. *Mardo* ospea zuan nonbait. *Marzak* ospatzen dira Kantabrian, Canpomartxo jataldia Durango aldean. *Marduk* jainkoa ere eredu beretik gizentzen du bere ospea, "Sir-sir (...) ereintza deritzaiola, eta bere ziriak ildoan, *Malah* ere deitua bai-da"¹².

Mamau=Mamu=Momo: *momo*=loaren *inguru* sortu lolagun jainkoa edo irudikizun bildurgarriak dira. *Momo/Momolo*=loak, edo loaren *onulariak*, sikologisten arauz, hasiera bateko *mundu* sakonera eramaten gaitu, Babiloniako *mitoak* bezala:

"Apsu, etxunik, loari *emona*, zegoela, *Mummu*, bere *onularia*, ezin zan *mugi*"¹³. (bartzardoak geureak)

"Loari *emona*", "loak hartu>lokartu" esakerek personatzat hartzen du loa. *Momo*, ume-hitzak, iraupen handiago izan du, *umenen* loa eragozten duten *mamuak/mamauak* eta *mamuskoak* bezala. Ipuinok *ama-umeen* arteko harremanetan irauin dute, poesia maiz *mitotik* bereizten ez dela, eta batak eta besteak, landare batzuk bezala, bizirik irauteko, giro berezia behar dutela.

Inguma, Anxo, Mozorro izakiak, *amets* gaizto, *mamurru* edo lagun ere esan *nahi* du. Otoitz batek "*Inkoa* ta *Andre Maria*" hartzen ditu euren kontrako lagun. *Anxo* ere izaki *nozigarrien*

9 SATRÚSTEGUI, J., M^a, *Mitos y creencias*, o.c., p. 70-72.

10 JORDA, E., *De canciones, danzas y músicos del País Vasco*, o.c., p. 53.

11 BERGAMANN, E. "SUMERI", Enc. Cattolica, Ed. Vaticana, p. 1514

12 *Enuma elish*, VII, 70-77). *Malats* "batidor", "hur emankor".

13 *Enuma elish*, I, 66. Cf: *momia* "bizi antza du, baina ez da mugitzen"



Eskerean: *Antiguako Andre Maria*, Beloki magalean (Zumarragan). Eskuman: Dantzaria belauniko eta ezpata buru parera jasorik, *Andre Mariaren* ohorea gordezteko zin egitera bailioan. Erdi Haroko ohikuna aparta. Zer ospatzen da? Ausaz *Andre Mari* Izazpiko menditik euren "etxe aurrera" jatxi zenekoa, hori esan nahi bai-du *Antekona/Antigua*, harako menditar arartekoa "etxetiar" dela, ziurtatzeko.

artean aurkitzen da, gizajale *nonbait*, eta ba du *Antzomendi* izeneko santutegirik. *Mozorroak/momozorroak* urteko *anoaren aino* eta kaltegile bezela salatzen dira *Inotean*. (Ikus 33 or.)

Andekona>Andekoa/Antigua: Hauxe da Euskal Herriko *Andre Mari* santutegi askoren tokizen eta izengoitia. *Ante/Ataina* "ate goia"+ekua(s)=etxe, eta ekur(s) mendi templo zaharra aurkatzen dira deitura honetan, Yonagorri eta Aizkorriko Mariren tokiak. Hala ere ba dirau Gorritiko, Koruko *Andre Mari*¹⁴ tokizenik. Erdi Haro-an mendiko imagina, Galdakon bezala, kalera urreratzean lehengo toki goitarra adierazteko hitza da: *Ante*+ekua/*Gailate*+ekua, ots, *Andre Maria* lehengoa dela adierazteko. Eleizateak ere herri eskubideen zaindari zihurratgat emanak izan ziran.

Oinetsitu/oinestu/inisitu, oinestarri Anuren inkesak dira ma-

14 Gorritiko *Andre Mari* Lumo garaian dago, Gernikako Zaindaria, ostera, "*Antiguako Ama*" da. Errigoitin tokiaz eta tituloz estabaida izan zan XIV.an uria izendatzean, "Idoibalzagako *Andre Mari*" ala "*Andiko Ama*" deitu ahal izateko. Era berean elizatea ala udala nusituko.

koa indarrez estutzean, oinestarria bera ere jainkoek urrunetik jaurti dezaketen arma bai-da, "gizakiek ulertzen ez duten zur eta arri arazoa"¹⁵ alegia. (Ikus 38 or. *Enlil mako* eta gezidun).

Malatu/Malato zuhaitza: "Bizkaiko Foru Zaharrak"¹⁶, VI legean, emanten du horren berri. *Antxina* bateko ohitura-lege horri ezker, bertako gizonak herritik ateko gudaritzatik jaregin gelditzen ziran. Sumeriarrek *An+En-lil* jainkoek sagaratu=*enlilutu(s)* ohitura-lege berdintsua aipatzen zuan nausitu-berri erregeen buruketatik jaregin gelditzeko:

"Sippar, Nippur edo Babilonia gudara deitzen ba ditu eta aldarriz lan eta gudura behartu, Marduk, jainkoetan jakintsuena den onulariak, etsaiari emango dio halako erregearen herria; haren gudariak lanera behartuko ditu etsaiak, Anu, Enlil eta Ea jainkoek (...) batzarrean erabagi bai-zuten bere jendeak halako beharretatik aske zirela"¹⁷.

Marduken garaitik *Anuren mendera milaka* urteren aldea dago, baina sumeriarrek idazkietan eta oroimenetan gordetzen zuten euren jainkoen eskutik lortu-ohiturazko legea. Sumeria bezalako *nekazari* herria, bakezalea zan kulturaz, jainkoen batzarrean erabagia baino beste legerik ezagutzen ez zutela, edo eta eurek burujabe izan zireneko garaiak aipatzen dituzte atzerriko errege berriei erantzuki. "*Printzeari oharrak*" deritson idazkiak herriaren aldeko ohitura-legea aipatzen du. Era berean Bizkaiko Foru Zaharren idazkia eta euretan VI legea, Gaztelako erregeari eginiko "oharra" da, haren asmo berriei xedea jartzekotan. *Malatu* hitza hako *enlilutu* sumeriar legearen antzekoa da arketipoz.

Jainko herrietan harekiko ituna, beste herriekiko itunaren gaitetik zegoan (Dt 6, 14-15). "Jainkoa eta Lege Zaharra" gizarte asmoa ere xede zaharreko txingarrak dago, herria sortu zeneko jainkotiar itunbena aipatzen, historian zehar, herri oroitzan eta ohitura zaharretan agertu izan zaigunez.

15 *Lucha entre Ba'lu y Yammu* (1.1 III 26-30), MLC.

16 "MILICIA, SEÑORIO DE VIZCAYA", *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, o., c., vol. XXVIII, p. 343.

17 *Advertencias a un principe en forma de presagios*, 25-31, DB. n° 26.

Nainarri: *Inannak An* aitaren zerutar alabatzakoa adierazteko *anil/urdinarriz* bederen, *ainantzen* zuan silborra, *maite=nahi* eta ugaltasun jainkosa bai-zan¹⁸. *Emaztekien* jakinduriako *nainarri* ohiturak *ama mendeko* aztarrenak izan ziran.

Andana, Enten: *Andana*=uzta eta *Enten(s)*, *Enlilen* kidea uretan, azitan ugaritasuna *ematen* zuen jainkoa zan¹⁹.

Nebiru(s)/empireu(l), inguru: *Marduken* izengoitia: “*Nebiru* zeru-lurre gurutzei eutsiko die (...) berak gidatzen ditu euren jirak”²⁰. *Nebiru=enbiron(f)*=biran=*inguru*=in giru(l).

4.2. Utu sendiko mito-erritoen une arruntak

Adda(s)=aita: *Amaren* arketipoa *An* den bezala, *aitarena* Utu da. *Utuk* bere sendiko jainko orde asko ditu: *Adad*, *Addu/Haddu(a)*, *Eate*, *Aide*, *Odei/Hodoi*, *Adar(h)*=zubi, etab. Anuri sor-kuntza dagokio, baina *Uturi udd ixuriz* eta beroz *soldutzea*. Itxas uinak, zerukoak bezala, kresalak dira, *itosura*, *turrusta*, *uturrietakoak*, *ostera*, gozoak. Bien arteko nasan *sortzen* eta *joritzen* da bitizta. Ama da *udd* kresalen analogia duena, *aita ud* gozoena²¹.

Adu/Haddu(a), Adda/Hadad(a), Adur, Odoi=Hodej: “*Addu* da bere izena, zeru guztia har dezake. Bere orru onuragarriak zeru-lurretan jarrai dezatela”²². Hortik *adu/hado*, *adur*, *betadur*=“betargiez *tutulikatze*ko/*txolintze*ko indarra”, *adu/adur zorione*ko edo txarrekoak izan ditezke, *Aide* on eta *Aidegaizto* bezala.

Adar(a)²³: *Addar/aiar*=deabru/*aier/ostadar* analogiak ere ba

18 *Love in teh Gipar*, 8-24, ANET-638


19 BERGEMANN, E., “SUMERI”, o.c., p. 1512-1513.

20 *Enuma elish*, 124-129.

21 *Apsu(a)/Su.ap(s)* eta *Tiamat* bion elkartetik *sortu* omen ziran jainkoak. (*Enuma elish*, I,10 (Nota) Cf. Ohar *Su.ap/Apsu* eta *Tiamat/Amatia* egituren itzulia. *Amatia*>*Amatxi/Amaya/Maya*, *mayin(h)*=*uddak*.)

22 *Enuma elish*, VII, 119-120.

23 *Adar=Adad*, (“ADAD”, Dic.B., o. c., p. 18) Cf. *Adar* euskaraz “ostadar”, “euri jasa” eta “ots egiteko tresna”, *addar* “deabru”. Hitzak fenomenomoz guztiak analogizatzen ditu. Ba-/Fa-/H- aurrizkitzeak haien Ba/gizatasun>



Ezkerrean: "Arpeko Saindua" Zelaharburuko koban estalimitak ematen duten *iduripena*. Eskuman: Massabielle arpeko-gruta Ama Birgina, Gabe ibai gainean. "Ene *usoa*, harkaitz *zirrikitueta*n, *hutsune* malkorrean, *ostua*" (Kant 2,14) Kristo, gizaldietan barreiatuak askatzera jaitxi zan, mitoen Iburniraino eta Andre Mari, jainkoaren Ama, jainkosen *harzuloraino*, mitoen uste eta eskakizunak osapen *doia dutela adieraztarren-edo*.

dute euren nortasuna eta jardunaren aurretikorik mitoan.


Zubi, Osti, Ostadar, Utu=iduzkiaren edu eta iduripen ziran, udd goienak eta udd barrenak ornitzekoz. Uddak itzuliazteko odi dotorea ziur, Utuk itoitzen=subir bai-zituan zubi=adar=uztai=ostadar odiaz uddak otara, uddolak eta zopernak sortzen zituen osti/ostots artean. Zubi txundigarri horren petik igaro zeiten emea ar bihurtzen zan eta alderantziz, arra eme, zuba udd goienen eta udd barrenen ornitzailea zenez gero, ots, seksuen zori banatzaile. Sumeriako Dilmun=paradisuan jainkozko giza bikoteak Tutu jainkoari zuzentzen zizkioten otoiak, Tutu bera zelarik hango argi=tu(s) eta giro tonpor²⁴.

Jonagorri Anie mendiko koban bizi zan, Mari bezala, eta ez zion inori hara hurabiltzen *uzten*, Leskunen esaten denez²⁵. *Donna+ekur(s)>Jonagorri* "Kobako Dama", Aizkorrikoa edo Anbotoa bezala. *Utuk* eguneroko *itoitu/osteko odi* eta *zulo* berberak maite zituan *Jonagorrik* ere. Bere artzulo, *idoi* edo mendi asko Andre

>barnea adierazten du: Fatu/Fata>Hado/Hada.(Ikus Hadad 79 or)

24 Enki hand Ninhursag: a paradise myth, ANET, 37-41.

25 SORAZU, E., *Antropología y religión en el País Vasco*, o.c., p. 268-9 Cf. Ekur(s) "mendi tenplo"=koba. Cf. Okurri>Gorri egiten du tokizenetan.



a) Zintadantza amaieran *usoa* askatzen da,
b) *Soka-dantza* Lekeition, merkatuan edo
plazan neskak mantuaz ornidu egiten duten
aureskuak ba du *ušo* hegadaren antzik.

Mariaren agerpenetakoak izan dira: *Otia*, *Idoia*, *Uxue*, etab.

Uxu, uso: *Utu udden* jainkoa denez, haren maskota den *uzu(s)* *uxua* haserako *sorkuntzaren ud* gainean hegatzan²⁵. (Ikus 60 or.) *Usoa* maite=*dôd(h)* eta *joritasun edutzat* ere hartzen da (Kant,2,14), “*Uso txuria errazu*” abestian bezala, edo *Zintadantza*-ko pasadizoan, zero *zolan* haren hegada *uzua* da (Sal 55,7), Egipto-ko mitologian Ra iruzkiaren arranoa arina den beste. Santutegietan *Uxamendi* eta *Otiamendiko Andre Mari* behenipehin.


Telitu, Marije Teilatuko: *Telitu*^(a) “ahaltsua” *Utu+Ilu-tu*, Ishtar jainkosari eman *tituloa Hammurabi Arauen Atarian* agertzen denez²⁶. Euskal Herrian, *Teilitu, tokizena* ezeze, Mari hagin zaindaria da, hagin jausiaren ordetan berria eskatzeko, *teilatura* jaurtitzen zitzaion hagin zaharra, *otoitz* hau esanez: “*Marije Teilatuko, gonagorria/eutsi hagin zaharra ta ekazu barria*”²⁷.

Itosurak izan duen babesa ere hortik *sortu* da, Inanak dinoen

25 “PALOMA”. Dic. B.. o.c., p. 1424-1425.

26 *Las Leyes de Hammurabi, Introduccción*, DB,15º, p.30.

27 *Teleuteo(g)* “eman”; “gonagorri”/*Jonagorri* formaren igadura dirudi.



Iduzkiloreen artean horra, a) idibegi, b) txiribi, c) txikori. Iduzkiarekin batera ideki/itxi egiten dira, izakeraz, irudiz, kolorez eta izenez harekin bereziki lotu bailegozan. Ohar loron egitura eta iduzki hilarrietako iduzki sinboenak (Ikus 62 or.)

bezala, “*itosura* estaltzen duenak, beretzat estaltzen du *itosura*”²⁸. *Itosurak Utugandik txutzen=itera etozen udak* ziran, hagatik *itosurean ozten* ziran haren pean *sortuak*, *Utugandik etorriak Utuk itoitu eta solthü* zitza bere *odi eta tuzuloetatik*.

Idittu/Iditxu: *Uddua-ah(s)=idia* zan *Uturen adorea adierazten* zuen maskota eta, *Tutozulo* bezalako, *Uturen itoi/ostuko zuloen* zaindari zena. *Uturen atezainok izugarri* ematen ditu Gilgamesek, begituaz bakarrik bat hil-zorian jar-adinekoak²⁹. *Iddituak*, laino gorri *iduzkituen izugarria*, *suzko zezenez=“toros de fuego”* eta *Idiarena/Iriarena* soinuaz, plazan antzeztuak. Gilgames zehatua izan zan “*Zeruko Zezena*” Ur uriko plazan azpiratu zuelako³⁰. Haraz gerokoak dirake *sokamutur*, eta *suzko zezenen* eta gaine-rako zezenketen *ospakizunak*.

Iduzkilore, idibegi, txiribi, atxikori, itxulore: *Iduzkilorea ospetsua* da bere taimaina, *usain* eta mendi goietan *sortzen* delakoz eta etxeko *atean=osti(u) ozti* aurka *ostutzeko* jartzen da. *Iduzki eduko* lore apalagorik, bata besteari *so bizi* diranak eta ezin bestean haren izenetiko *otsa* dutenak: *idibegi, txiribi* (haue

28 *Pride of pedigree*, 29, ANET, 637-638

29 *Gilgames*, IX, II, 6-7.

30 *Ibidem*, VI,I,94-190;VII,I, 1-25. Gilgames eta Enkiduk azpiratu zuten “*Zeruko Idia*” Ur plazan eta hagatik herioz zigortu zuten jainkoek Enkidu.



Gilgames eroia "Zeruko Zezenarekin burrukan" (2.500 K. a.ko zilindrozko silu batetik)

tan begi ba-koa, *itxulorea* da), *atxikori* margoz *txuri* edo *dundu* direla.

Utukku(s)/Udug>tuku "zelo", *tukuz* zelatatzeko=*tutare(l)* "jagole bat ezarri zuan, *udug* ongilea bere ahoaren zelatari (...) jeinu begi ongile *tutoreak* eman zizkion"³¹. *Utukku addar* gaizto, tuxuri ere bada. Egituraz *Utu+Ka* "*Utu* lurrean/ *Utu* gizatu" edo *Uturen* semea, *amako* amaren alaba den bezala.

Damu, damuz: Sumeriako garai zaharretan *Dumuzi* izeneko jainkoa zan, Inanaren senarra, hebraieraz *Tammuz*. *Damu* jainkoa ere bere kultura erakarria izan zan. *Damuz Dumuziren* zoria udaberrian birbiztu eta udagoienean hiltzea zan. Landaretzaren berpiztea ordezkatzan zuen, lorak *zimeltzean*, zenduen infernura *damnatu(l)/damtu* bai zegoen. Haren eraspentak arrakasta handia izan zuan *Sartalde duztian*³², grekoek *Adonis* zeritsoela.

Idizko>izko: *Uturen* lurreko beste mazkota *uddu.ha* (Ikus 60 or)=*idia>idizko>izko* du ondoretzat. *Izkomendin* santutegia edo *Uturen itoi/osteko* zuloa.

Tartalo: *Uturen atarteko*=*atezain etoetarikoa* bide zan *Tartaro/Tartalo* begi bakar, *so uzu izugarriduna*. Latinoek, bestalde, *Tartaro* ere deitzen zioten Pluton, infernuko erregeari.

Dagan, Dagenil: Eufrates erdiguneko Mari irian aipatzen den jainkoa, bere jaiera Mediterraneo inguruan zabaldu zan³³. *Dagon* bezala *dager* Biblian (Ep 16,23) Aldien jainko izan behar zuan eta ala zeritson *Dagenil/Dagonil* gure aurretikoen Agostu/Agorrari. Sugaar=Sugoi *sorkariek su/suga* bezala, aurkatzen dira egitu-

31 *El hombre y su dios*, 128-129, DB n^a 26.

32 LIMET, H., "DUMUZI(religión sumeria)", DR, o. c., p. 505-506.

33 LIMET, H., "DAGAN(religión babilónica)", DR. o-c-. p.404.

raz, nahiz *tximist* eta beste *distirekin* berdintzen diren. *Tximistaren zirkun-zarkutik* hala deitzea ere baditeke, *Sugarzulo toki-zena* ere ba dago Balzolan.

Eten/eden, txerren: Bizia *edenak eteten* du, baina *edena*=po-zoina ezeze, *ozte* erritua ere bada. *Etemna(s)* da, egortzi gabeko arima erratua eta *etemnu(s)*, berriz, *edenak* bezala, sabelean erasotzen duen eritasun *addar/aiar/aier>aiarren/txerrena*.

Toka: *Ttotorentzat ato* da anaia nagusia, harekin *toka* jardungo du, *oto*=*tío* da, *atta/aitaren* anaiea eta *suin, tto, totto* ere bada arketipoz, *Aitoren* semeak, hain zuzen. An amatar antze-modelo den bezala, *Utu aitatiar edua* da; no eta *to*, beraz³⁴.

Udal/udaletxe, jus: *Udal* "casa solar", *utor>usu(l)=oitura, jus*=eskubide, *juste(l)=ttutten/zuzen juskatzea* norbait *jus*=ekubidez gabetzea, edo xedatzea, da hitzaren egiturak dinonez.


Otsein/otseme, jopu: *otsein* egiturak *osaba/ozaita* aurritzki berberak ditu. *Otsein/sein, otseme/sem*e eta *jopu/jabe* aurkatzen dira, *autx/etxe, autxerdera/eskera* bezala. *Ud/ux* "etxe" adierazteko arketipo zaharra, *tokizenetan* ugaria da, *etxe/She* arketipok señalatzen eta xedatzen du, *ostera*, senitarte berria.

Sorta/zorthe, zotz, sorginak: *Ozolanean* egindako *sortak*-eta *sorte/zorthe/sorte(l)>suerte/subertea* zozkatzen zan. *Zotzak/txotxak zorthea* nori *suertatuko* artezia zan. *Sorteginak/sorginak, ostera, uxatuak* izanten ziran (Ek 8,21).

Ziraun: *Dirona/Sirona* zeritson uhaltasun jainkosari Mosela eta Rin ibarretan Galian, eta Erroman. Inoiz, kretar jainkosak lez, eskuan *zirauna* duela dager zelten artean³⁵. *Zirauna* eden gabeko sugeetarikoa da, nahiz euskalki batzutan hala deitu zitaldunari ere. Tokizenetan *Tiron, Duronea, Ziroña, Ziurana*, etab.

34 Sumerian "eme-sal" hizkelkia emakume eta jainkosekin egitekoa eta olerkian erabiltekoa zan, "eme-ku" hizkelkia zeritson hizkera arruntari. (BERGMANN, "SUMERI", Encic, Cattolica, o. c., p. 1514)

35 LOIC, J., "SIRONA, DIRONA", DR, o.c., p. 16651666.



Raren untzia, ortzi ertzetik ertzerera arranoak arin=raudo arintzen duela. Alde bakoitzetan Anubis Horusen orak orratzen du erritoaren ariketa. Egape=protección orokorra. "ahalak guztiak dituenaren kerizpean" (Sal 90.1-2). Ala=poder ala=hego datorke.


4.3. Ra sendiko mito-erritoen une arruntak

Hizkuntza dena ere mito bizia denarren, izaki batzuk *urbilago-tik* jarratizen dute *arkektipoaren erroa*, Raren ordezkari berezi direlako. Hala *arranoa*, Raren txoria, *Aretz/arte* etab., Raren *arbola*, *arkamelu*, Raren *kamelua*, *orga*, Horusen *gurdia*, etab.

Arrano: Utuk aideko bere seinutzat uzu(s)/usoa bezala (Ikus 60 or), Rak *arranoa* du. *Arrano* izena "putre" adierazteko ere erabili ohi da. Bere arketipoak Ra+Anu "Ra gurena" adierazten du. *Arrano arranpaloa erpadun (h)arraparia* da eta gure erio ostean *airean arintuak*, *(h)arrapatuak=rapiemur(l)* izango garela dino S. Paulok (Tes 4,17), mitoaren *irudia oratuz*.

Iretxo/Irel-suzko/Ireltxo: Utuk bere Idittuak bezala, Rak ere *arratzeko irudikizunak* ditu, *iruzki-printzak* edo *errekien txinpartak* bailiran. Utu/Ra, iduzki sortalde/*iruzki* sartalde arketipo bi direnez gero, iduri/*irudi*, iduli/*iruli*, ostu/*ortzi*, itoitu/*urten*, tuldu/*erre*, tantai/*arbola*, etab. sinonimiak dira Idittu/*Irettu* ere.

Arbola=arbore(l) eta euretan *arte*, *aretz=roble*, *arce* eta hebraierazko *erez*, *armon*, *araba*, etab. jakinduriaren ezaugarri dira (Has 2,9.17), (Ikus Raren *arbola* 76 or). Zuhaitzak *eroriarren ere*, *errotik* kimu berriak sortzeko eta bizirik *irauteko* ahalmena duelako (Job 14,7), herri-nortasun eta *iraupenaren* kerizpea delako. Egiptoko herrian *uri/iri* bakoitzak bere *arbola* sakratua zeukan. Israelek *ere*, herri-batzarrak *arbola* pean egin zituan eta



“Gernikako arbola/da bedeinkatua,/euskaldunen artean guztiz maitatua./Eman da zabal zazu munduan frutua./Adoratzen zaitugu, Arbola santua!”. Mitoak bakarrik azal diezaiguke halako debozioa ezin daitekela Jainkoagandik ate uler, hagandiko doahiak, oster, ba direla ein batean “santu” erritoaren arian.

han *erabagiak hartzen* (Ep 4,5). Mambreko *artearen* azpian Yahwek Abrahami “zure jatorriari emango diot lur hau” (Has 12,6) agindu zion. *Artzeniegako Artea*, edo Gernikako *Aretxa* beste (*h*)aritz edo *arte* askoren *eredu* dira Euskal Herrian. Herria batzartu, *araudia eman*, (*h*)*errigintza* antolatze-

ko *ardura* eta egitura Sortalde *Hurbiletik* etorri zaigu nonbait Euskal Herrira ere. “*Arbola Santua*” deitzeak eta inoiz kurutzatu agertzeak (*h*)*erriak erritoz* Jainkoarekin egin duen itun eta *erabagiaren* adierale du.

Erkingu: *Erkin=erten* adizkeratik *Erkingu* dator, Sortalde sortu-tik bezala; *Ra/Utu* bikoizketak dira. Eskerrak horrer, euskararen aideak ezagutu ahal izan izan ditugu, hala goraipatzen bada Marduk: “*Irkingu* (...) denen gidaritzat egiten du-ena”³⁵.

Arkamelu: *Arrastiri* beroetan *urreratzen* dira karraldoak gorotz-pilak borobildu eta habira *errodatzekotan*. (Ikus 67 or.) Halako *amarruz-eta erratuazoten* du *Rak Errensuge erraldoia*, haren *eremutik arteziaz arrobatzen* delarik.

Erron/erran: Sorkuntzan edo bizi *ernaltzean*, *Raren* teologoen *eritzi* ezberdineko ziran eta *horra orapiloa*: “*Raren erraietatik ernalduak*, naiz Amon-*Raren arrautzetik urtenak* edo *Ptah-Raren erratetik*. *Artezia* biak *oroitzen* ditu euskarak.

“Oi jainko, zeuk *eratu* bai-zendun *ernarazi* zintuen *arrautza*, ezeza-

35 *Enuma elish*, VII, 105-106.



Raren orga orbian/orbidean "órbita" iraulka/errodan, Farioiaren orga da. Orga/carro arketipo iraulduak, orgato/gurdi eratara. Aro/erruda ardatz eta araz arketipo berdinak, Rari egotsiak Barón/Barón/Parao(h)/Faraón bere (h)aurragan, erraz analogizatu ahal izateko. Zamaria, aldiz, "rocín". Orbian=ar-rapaladan, roo(g)=rodar, irauli, eroan, urrun/urbil.

gun ertaldiko arrakastaz, jainko uren berez ertena/urtena=ortu(l)³⁶. Arrautza Tebasiko Amon-Ra jainkoaren abere kutuna ur-antzarrara zelako. Ra arbasoaren arrabatiko urak ere aipatzen dira:

"Sudurren bizi den airea eratu zuen, bada, eurak (gizakiak) bere iru-diko dira, bere (h)aragitik erne direnez gero"³⁷. (bartzardoak geureak)

Sumerian Anuren une/muina aipatzen zan, Babilonian "esan eta egin" artezia eta Menfisko teologok Ptah jainkoaren bihotza eta mihina iragarri zuten, Horus eta Thot beraganatzen zituela:

"Bihotza bezala zertu zan eta Atunen eratako mihinaren eratan (...) Bihotzak eta mihinak gorputzaren zati bakoitza erriatzea gertatu zan (...) Jainko urentasuna bihotzari eritsi zitzaionetik eta mihinak erabagi zuenetik zertu zan"³⁸. (bartzardoak geureak)

Arrautza errutea Raren erronka, eritsia erratea, Raren artezia.

Erru, erruki/urrikal: Errua gizakiek Raren aurka erabagi zuten arramantzatik dator. Rak, errabiatu-rik, gizakia erauztea erabagi zuan, baina errukitu-rik=rahamin(h), ordea ordainduz, (h)eriotzetik erosi zuan³⁹. Kristau Eroskundearen teologia ulertu

36 CORTEGGIANI, J.P., "AMON", Dic., R., o. c., p. 62.

37 Instrucción del rey Mericaré, 130-135, DB. n° 10.

38 La Teología menfita de la Creación, 53, ANET.4-5. Ohar: "korde, kordegabe, akordatu" formak eta corde(l)=bihotza, Egipton eta Israelen eza-guera eta sentikeren tokia da. Cf. eritsi, oroí, reor(l), aieru,

39 Rescate de la Humanidad de la Destrucción, ANET, 10-11.



Amon-Raren tenploko esfinjeen etorbidea Karnaken. Soinkeraz *ariel*=leoi dira eta buruz *ar*, *arkume*, *ari*, *aritto*, *artxo*, *ardi*, abere hau bai zan *Ra* eta Harmakis jainkoen batasuna zen Amon Tebasko baseritar izanaren sinbologia. “*Arixo deo*” *iragarkia* dager Akitania aldean. Jakintza berriko hizkuntzak *ar*>akar/aker/carnero eratu ditu, jainkoen esparrutik giza zaintzapeko abere bihurtuz. Halatan inkisizioak aker zaharra susmo zezaken sorginen dantzan.

ahal izateko, euskarak hitza gertu izan zuan. *Arketipo* bata gutxi bazan, zaharragoa zen Uturena ere gogoan zeukan, harek ere sorta eta zorthetik sorosi bai-ginduzan mitoaren amesetan⁴⁰.

Erra, errabia, ira: *Ra* jainkoari *erra*, *errabia*, *ira*, *arrankura/arregura* egozten zaizkio: “bere *arerioak eran/erail* zituan eta bere *haurrak* zigortu bere *aurka arramantza erabagi* zutelako”⁴¹. Bardin Yahweri: “*Erran=iran ere oroi, arren, errukiaz*” (Ha 3,2) eta Paulok “berak askatuko zaitue geroko *erratik*” (1Ts 1-10).

Eros/Erio=Eros/Zanathos(g). erosi: *Eros* maitasuna *ordekatz*en zuen jainkoa. Maitasun eziurra: batean *erosi*, bestean *eroriaz*i dagikena, *erabat eri* eta *erigi*, *erosoa* eta *ergarri*, *eratsu* eta *erratsu* dena⁴². Ba al du *eroa ere* ba dela esateko *arrazoi* gehiago? Kristoren gurutz-(h)*erioa erogotzat* hartzen zuten judeguedi Paulok erantzun: “Jainko *erogoa* gizakiena baino jakintsuagoda” (1Kor 1,18-25). “*Erosiak* izan zarete (...)ez *urre*, ez *zilar galgarriaz* bildotx *errugabearen* odol *baliagarriaz* baizik” (1 Pe 1-18-19)

Erio, arerio: *Rak* “gizakien amoreagatik *urtikatu* zuen *Ersugea*”⁴³. Berau da *arerioa*. *Erio erabagitik erosiak* izan gara (Rom 5,9), *erioa* bai-da *eratz*i behar den azken *arerioa*” (1Kor 15-26).

40 *El Diluvio*, 252-56, ANET-42-44.

41 *Instrucción del rey Mericaré*, 130-135, DB. nº 10. Cf. Paulo: “Bere Seme berari barkatu ez zionak, gu guztiokaitik eman baino” (Errom 8. 32). Cf. *arrankura/arregura* “providencia, precaución” *Raren* kura/gura “arradura” da.

42 MOTTE, A., “EROS(grecia)”, DR. o.c.p. 544-545.



43 *Instrucción del rey Mericaré*, 130-135, DB. nº 10.



a) ertzeta-
ra ikusita,
b) gainetik
ikusita.



Arkamelu=es-
carabeo irudia
duen eraztun-
silua. Dic. B. o. c., p. 572



J.M.Barandiaran,
O. C. XX, o.c., or. 913.


a) Arkamelu irudidun eraztun silua, b) Faraoiaren eraztunak Raren arranoak erpetan arrapatu,(1Tes 4,17) daroaz, c) Eraztun eratako iruzki-arrria Sorhapurun. Gainerako gizon-(h)arriak ere eraztun ereduko aroak biltzen ditu. (Ikus 62.66.74 or.)

Eri/erhi, eraztun, erpe: Uturen arkektipoz atz=dedo dena, erhi da Raren araura. Doru=sortija han eraztuna hemen, benetazko=real maite=ra-mu(e) iragarkia da, "erhaztunak joan ta erhiak gelditu" esakeran bezala. Ohargarriak: arrakada, arras, etab.

Erretu>errezu, rogu(l)>ruego: Uturekikoa otoi/otoitz dena, Ra-



Obi aurrean: Guraso zenduen (exerita) orez, semeak erreopariet orioa erioten die, ezkerrean erexegiteko intzentsugailua duela. Erreopariet azpian erregai zorta prest dago. Orhe/orekaietan molde askotako opilak, zenduen jaki. (Uturi ttoinak) Erretua>errezu dator, errito ekintza anarteko hitzarekin bat datorrela Mutila gurasoen aldeko errezuak egitera doa. (Pijoan, J., Summa Artis, III, o.c.,p.434)




a) Ogi/toin eta *argizarizko* hileta opariekin eleizara, Otxagabiako(N) emaztekiak, b) apaizak otinak jasotzen ditu Elosun(G), c) *argizari erexegiak*, emakumeen *erre-zutan* Otxagabian. Kristau eleiza ohitura zaharrago batzuren edukina *orekatzen* zaiatu da. *Argi* sinboloari, “Kristoren *argiari*” bide eginez. Ohar *erreaki*=trance, *errekitu*=eliku, *errekitatu*=“gaisoak elikatu” (lehenago zenduek ere bai), otin “ogi aukeratua”, otar “cesta”. (Argazkiak: *Ritos funerarios en Vasconia*, o.c., p.142. 483.

gazkoa *errezu/erregu/ruego* da. Rari egin *erreoparia* berari eginiko *erresuak/erreguak* dira. *Rogu(l) erretuen* txondorra da eta *rogare, ruego, errezu* ematen du. *Errito* ekintzak hizkuntza pizten du eta hizkuntzak *erritoari argi* egiten.

4.4. *Ilu sendiko mito-erritoen une arruntak*

Lamina=lamiq: *Iluren latx, laku* eta *lezeetan ilalamiak/ilamiak/lamiak* egoten ei ziran, erdi neska eta uretakoak erdi arrain eta lehorreko, barriz, erdi oilo ziren sorkariak, tokizen askok zihurtatzen dutenez: *Laminoria, Lamiako, Laimizulo, Lamindano*, etab. Josceta-*lanak*-eta egiteko *alkartzen* omen ziran eta gaztelu, zubi eta beste ardurazko eraikintzan gizakiei *laguntzen* omen zien. *Lajamu* eta *Lamasu(a)* ziran sortu zen *lehen* izakien bikotea. Euren *lana*, tenploak eta jauregiak zaintzea. Ako *lan-mina! Lamma(s)*, aingeru zaindaria ziran eta *lamashtu(s)*, jeinu eme gaizkileak erdiberri eta jaioberriei erasoten zietenak⁴⁴.

44 *Enuma elih*s, I,10 (N.del T.) Cf. LIMET, H., “DEMONIOLOGÍA (reli>



*Ileko argia>ilargia da, ilberri-
tik ilberara doana. Ilberri-
ilun dagonez, ilunberri ere
deitzen da. Ilgora, ilbetera da
eta ilberan, aihenatzen da.*

Ilun/Ilumber="Luna/Luna nueva": Semantikaz aldatuz, ilun "noche/oscuro" da eta Ilunberri denean ez da iletargirik ikusten: dena ilun bai-da. Aste+lenua, jainko honen eguna da eta bere jainkoa Asto Ilunno zeritson⁴⁵.

Ilixon/Luchon<Ilutu+une, iturri beroen tokia da, Ilu jainkoari opatua. Larrason:<Larratu+une: El+Ra jainkoen babeseko unea.

Lekore/legor/lehor>lur: ki(s) eta geb(e) giza arketipoaren fisikotasunaz adierazten da, lur egiturak, ostera, Ilu+Ka+Ra arketipoez osatzen, gizakia lurretik bereizten duelako: gizakia lekurtu eta lekutzen den lekukoa da. Egoitzik edo etxerik ez duen gizakia lekorean dagoke. Gizakia egoitzaren jabe da, baina ez lekorearen jabe. Hagatik jainko eta gizakien arteko esparrua da. Atzizkiz -re, daroa hitz zaulietan eta Lekora/Legorri/Legora/Legorra leku izenetan bezala, materialtasun balorea itsasten diola. El+ekur>lekore "Iluren mendi tenploa", hagatik lehor eta ekuri da erabatera. Jatorri bera aitortzen du "itxasotik eta legorretik" esakerak. El+ekur>elkor/elkhor/alcór/legor/lehor>lor/lur ere egiten du esparru askotako edukinak analogizatzen dituela.

Lur+ekur>lurgorri: Lekoreko ekur(s)/ekuria, edonor egurukitzeko lekua, ez norbera bizi izatekoa. Ba dago, hagatik, Lurgor deiturako jainkorik Autxen, Iluro eta Ilurberrix Comin-gesen⁴⁶. Hortik "kale gorrian" bizi, "gorriak ikusi" etab. esakerak eta bertatik eratorri gordin zelakotzailea.

Lege, legena, leihal: Kontu legeari (h)alan edo (h)olan jardun orduan, denetan legeak laguntzen duen legez/lez ahalegintzeko,

>gión sumeria y acadia)", DR., o.c., p. 416-1417)

45 SORAZU, E. *Antropología y religión en el País Vasco*, o.c., p. 90-91

46 *Ibidem*, 91-92. Cf. Legor<El+ekur>Legorri>Lur, Lur+ekur>Lurgorri.

bestela bat zigorrez=*látigo lauskitu* edo harrikatu=*lapidare(l)* izan ziteken. *Legeak* bai-dino nor den *lehial*, zer *lege*=*lícito* edo zer *legena*=*legendar*=*lepra* (Lc 17-14), ots, *la'bu(u)* antzeko *lupua*=*lobanillo*, *laudo/laidoa*, berak *laudatzen* eta *laidotzen* du. *Laido* edo *laidorio* hitzaren sorbatzean dago. *Legetik* nork *largatuko?*

Lahe/lake: *Lahe* jainkoa ba dager⁴⁷. Ausaz *Lake/Laga* irakur daiteke. *Lakeleku* "atsegin leku". *Lakeitu*>*Laketxo* dakar, eta ausaz, *Lakata*>*Laita/Laida*, *Laga*>*Lea* bezala. *Latx*, *lacu*, *lizune*, itxaso=ym, "Iluren maitea"⁴⁸ eta plaiak *Iluren leku lakegarriak* bai-zian. *Lumentxa ere Iluren* santutegi bezala dager *Laketxon*.

Ele/abele. ele/elesia: Beste izen monosilaboak bezala, *ele* ere esanguratsua da, batean "hitz, *elkarrizketa*, *eztabaida*", etab. eta bestean "abele". *Ele/eli/abele/bele* dator, giza arketipoaren mendean gelditzen denean. *Ele/elesia/eleiza/eliza* dator "ele etxe/etxe=asamblea" adierazteko. Hori bera egiten dute grekoak eta latinak *ekua+elesia*>*Ekkelesia* "batzar tokia" egitean.

Alaen/alén: *Al/ahal* egituraren gehiengozko genitiboak "máximo" adierazteko erabili oi da, "tonto *alena*" esakeretan bezala. Berez ez da kalifikatze ezkorretan bakarrik erabiltekoa. Ugariteko antzerkian "alim b'l" "Ba'lu/Be'el garaitu" deitzen dio *Iluren balido*=ordezkariari⁴⁹. *Alagina/alaina/alaña* formak ere hortik heldu dira.

Alu. aul/ahul: "alú deabruak soinekoz bezala jantzi dik gorputza (...) *ahulezia lisatu* zait belaunetara"⁵⁰. Gaixo mota honek ere nonbaiteko jatorria izan behar zuan.

Lukur: zerbaiten prestakizunaz dirua *lortzen* zutenei, eta ez *lausenguz* deitua, *lukurreri*=*lucru(l)* bera egiten bai-zuten *lukur(s)*=*lilitxoek* tenploan, euren prestakizunaz.

47 SORAZU, E. *Antropología y religión en el País Vasco*, o.c., p. 91

48 *La lucha en Ba'lu y Yammu* (1,1 IV 15),MLC.

49 *Lucha entre Baal y Mot* (1.5 VI 9)-MLC.

50 *Ludlul bel nemeqy*, II, 71-80, DB, n^o 26-



Egortzi>ehortzi. Ekur/ekuri, lekora/lehorra eskumaldeko Untzila harkaitzean ezke-
rean San Martineko ermita Mainarian. Jainkoen babesetik Jainkoaren babeserakoa.

4.5. Ka sendiko mito-erritoen une arruntak

Ekua+etxe>egoitz: Hala ziurtatzen du *Egotxea* bezalako toki-zenak. *Ekua(s)=oiku(g)* dator, “etxea” dino, *ekua+etxe>egoitz*. *Ekua* lekuak abereak *ekantzen* ditu. *Oiku* egituratik sortzen dira *okolo/okoilu/ikulu/okelu, okitu, egokitu* eta *ohitu=ekandu, egon; goitzetik, egotzi, egotxi, egosi*, etab. *Egoitzak* sagara berezia dauka, bizibidea *egozte/ekoizteko* gizakien etxea *egokitu* zenetik.

Ekur>guru, gurtu: *Ekur(s)* “mendi tenplotik” *Egurmendi* bezalako mendi santutegiak edo *Kornite* “*gorni-te*” erritora Santurtzin, mendiketaz egiten den hiru eguneko pazko-ospakizuna, Serantesko “Cueva del hermitaño” lekuko. *Behigorri*, edo *Yonagorri* mitoen urrengo tokion *guardak guruak*, Jainkoa *gurtuz*, harekiko mesedea, *gornia* osatzea=*cura*, adibidez, egiten zutenak. Hortik *gorde, guarir, guritu, gurtu, gordo*, etab.

Egortzi>ehortzi: *Ekur* “mendi tenploa” zan zenduak *egorzteko* toki *egoki* eta *ekurua, eguriki* zezaten, handik jainko sinboloetatik hurrago bai-egozen. *Gorpuak otsi, ortzi* edo erre egiten ziran,

Utu, Urtzi-Ra eredura. Hitz zaharreko *Ka*- arketipoaz *gizatu egiten* dira, *ego-tzi*, *egortzi* eta *egorri* ematen dutela, semantikaz larurrindu gabe. Trikuak “dólmen” *ekur* menditarren antzera harlandu gabe eraikitzen dira, iduzki errainuentzat zirrikitu eta guzti. Triku/*egortzi* arketipoz itzulitako egitura da: Utu+Ra+Ka. Eku edo trikuan egin *egorketa* bera darrai ermita, ermita inguru eta eleizetan, dagoneko eguzkiaren sinboloa Kristo delarik.

Korta/gorta: *Ekur*+ate>*gorta* dator. Ateak *gorkuaz gordailu* egiten du, abelgorriak *gordetzeko*=*guardar* berere, *Gordoa*, *Guardia*, *Guardo*, *Gordeio*, *Cordova*, etab. tokizenetan agertzen diren bezala. “Ateak” eskua ematen dio berezko *gorkuari*.

Ogasun, *ekoizpen*: *Korta* egiturak *gorde/guardar* ekarri zuan *ekoizpenean*=*oikonomia(g)*, hatarako *gordailu* bereziak egiten zituela: *kaixa/caja*, *kutxa/hucha*, *kella/gela*, *garaixe/garage/gare(f)*, lanabes eta langai *egokiak*: *goru*, *kotxea*, *kotoi*=*coats(ca)*=*coton*, *kota*, *galtzak*, *gurpil*, *gurdi*, *carro*, *kulter/golde*, *gabi*, *kare*=*cal*, *egur*, *ikatz*=*carbón*, soloari *giatuak*=*cultivado*: *gari*, *garagar*, *ogi*, etab.: eta merkabideak hitz berriez edo berri-tuez argitu: *garraio*, *kit/kitu*, *ekoiztu*, *kario*, *garesti*, *goratu*...

Kutun=*gutun*=amuleto: Artezi-indarra zeukan ume txikiei idunetik ezarten zitzaizkien *kutunak*. Indar hori azal dezaken jakinduria Sumerian dager: “bere ondoan udug *geinu* ona ipini zuan *gordelea*”⁵⁰, idunetik ezarten zan Utukuen estul *galgarritik*-edo *gorde zzeza*⁵¹ etxeko *kutuna*. *Kutunak* tukuz *egiten* zuten, *tuta-reak* erian ohi duen lana. Umeen azkeneko *kutunak* Ebangelioko *gutuna* idatzia zuten barnean, jainko itzak ere ba zuelako hitzaren erritozko magiak aina indar.

“*Gar deo*” jainkori eskeini harriak *agertzen* dira *Akitania* eta Ainamendiko aztarnategiak lekuko. *Girra(a)*, suaren jainkoa zan *Akadian*, ona eta erabat *ikaragarria* zan *egitan*, Babilonia *guzti-*

50 *El hombre y su dios*, 128-129, DB., nº 26. Cf. *kutuna* “lantzana”.

51 *Ludlul bel nemeqy*, II, 53-54, DB, nº 26.



Medikutzarik ezean, aldi bateko umeheriotzak jainkoengan laguntza bilatzera bultzatzen zituan gurasoak eta addar, sorgin *gaizto* eta begizkoen aurkako eragina zuten *kutunak/idunekoak* exegitzen zituzten euren umetxoen idunetik.

a su ta *gar* erraustu *gura* izan zuena, baina *garbatuz*, bete ez zuena. Ra/Erraren sendikoa eta ereduko dager⁵². Gure artean *Garramendi/Garamendi/Garmendia* santutegi ohien izenak. Indar *garbitzaile* araoetan, *gaitzetik gerizatzeko*, alegia. Sua/sugarra, *kaltegarri* izan daiteke eta hagatik, euskal

jakinduriako atsotitza: “Sua eta ura *gerritik* berakoa”. Sua *ikuiluko* izurri eta *gaisoak garbitzeko* erabilia izan da *gure* artean.

Girra=Gibil izenaz ere aurkitzen da. Erra/gerra, ira/*Girra* datoz eta Marduk jainkoak *Gibil* izena berekotzen du, Tiamaten aurka egin *guduan gibilia*=lazua lakoxe trikimailuak erabili baitzitan⁵³. (Ikus Marduk, *gibilia* eskuan 57 or.)

Age/Agaku: “Agea dauka gizon horrek, etxe horrek” esan ohi da, errotiko *gaitzen* bat *agertzen* duenean. Marduki *Agaku* deitzen zaio: *Agaku* (...) jainkoei ezarri *gakoa kendu* zietelako⁵⁴.

Ugazaba, guraso: *Ugazaba/ugazabandre=kyrios/kyriotisa(g)*, Jatorriz, *ekua+xabe=etxe-jabe*>*ugazaba* datorke eta *ugatz+ama*>*ugazama* eta honen parekide, *ugazaita*. *Guraso*<*curatu(l)* gizarte *egituratik* dator, umea *guraso* bien arazoa denez gero. E-

52 LIMET, H. “ERRA(religión babilónica”, DR, o.c. p. 545. Cf. “GIBIL (religiones mesopotámicas)”, *ibidem*. 673

53 *Enuma elish*, VII, 115.

54 *Ibidem*, VII, 25. Cf. *kako/gako* “yugo”=*age*. *Age/Agaku* bata bestearen ukapena.



Asera/Astarte, uhaltasunaren jainkosa, *aker* biren erdian Ugariten (Fenize). (Anbotoko Mariz *aker*-narru gainean lo egien zuela esaten da). Jainkosa hau Be'el jainkoaren emaztea zan. *Aker*+Be'el eta beltz *kalitatea* arkektipo beretiko dira. *Aherbelste*. Aina mendiko jainkoetarikoa.

gituraz *Ekur* "mendi templo" eta *Kura* siriarr jainkoak ordezkutzen du. Grekoek *kyriou* "jaun" titulo bezala jaso zuten eta *kristauek Kristori egotsi gero*. Erromatarrek ardura=*curia* bezala eta *curio*, *curialak* izentatu. Adizkera bereziak sortu ditu: *cura* > *gura*=*querer*, *guri*, *gurari*=*querencia* eta *curitar/guritu/gurtu*, etab.

Khuma/kune, hume: *Khnum*, *aker*=*krios(g)*-burudun jainko kreatzailea zan: buztin gaiez eratzen zituan *gizakumeak*⁵⁵=*crios*, eta emakumeak=*gune(g)*. *Kume/kune*="cria/crio, cuna".

Galarren, galar: *Ugoldeko galarrena* sortu zenean, "Nergalek zeru-makoko *ugatea* eten zuan"⁵⁶. *Nergal*=*Arragal*=*Uggu*=*Ugae* infernuko jainkoa zan. *Nergal/galarren/galerna*, *galar*=*ikatz*, ohiko jainko *ekintzak giza* arazo eginak dagertz honela.

Aker/Aherbelste, Akelarre: *Ar/ari aker* dator *gizakiaren ekoizpenean*. (Ikus *ar/ariak Egitoko Amon-Ra* jainkoaren zaindari 98 or.) *Abele* hau ikuluan egotea mesedegarritzat jotzen zan. Ba leite *ustekizunak abelen zaindari Be'el jainkoarekikoa* adieraztea.

Israelgo profetek babilondarren idolatriak ezeztearren, deabruaren sinbolo bezala erabili zuten *akerraren* irudia. Horixe bera egin zezaken euskaldunen aurka *akelarrea* asmatu zuenak.

Igande: Pazko-Igandez mendiko Kornitez bezala, santutegiren

55 BÉNAZETH, D., "KHNUM", DR, o.c.p, 958


56 *Gilgamés*, XI, 96-110. DB, nº 7. Cf. *Uggu/Ugae*, *ugolde/ugalte*, *iguin*.

batera igoteko aldia <igan-te izan ziteken edo: Eguzkiak zodiako-ko lehen irudia *igaintea* eta Pesah(h)=paska(g) Yahveren *igaroa*⁵⁷

4.6. *Ba sendiko mito-erritoen une arruntak*

Basajaun, izenak dinonez, “basoaren jabe” eta “basoaren *ba-
besle*” zan. *Basoa*, *berez*, edo jakinduria zaharraren arauz, jain-
koen sorkaria denez, haren zaindaria ere jainko-izakera eta aha-
len partekide zan. *Basajaun* batzuetan lagun *abegikor* eta *beste-
tan* etsai *beldurgarri* omen zan⁵⁸. “Don *Bildur*”=“*Bildur* Jauna-
ren” mitoa ere ezaguna izan zan Errioxan. Mitook elkarrenak iz-

Humbabaren
heriotza Babilo-
niako edalontzi-
baten zizelatua
agertzen den be-
zala. Gilgames
eta Enkidu dira
eraileak. Ohar
Basajaun erral-
doiaren oin eta
eskuak eta hilea-
ren luzea



tea ere *ba* diteke. *Basajaunek*, *berriz*, *ba* zuen Sumerian *Hum-
baba* izeneko *basajaun* kidea. *Bata* eta *bestea* *bateratsu* datoz
funtsean, nahiz arketipoak atzekoz aurrera josiak euki *Humba-
bak*, arazoa ere *berdina* zuten. Gilgames eta Enkiduk, *Humba-
baren basoan* egurra egitekotan, jabea erailtea erabagi zuten:

“*Humbaba* jainkoa zen, argia sortu aurretik (...) Haren *begiraku-
nea bildurgarria* zan” (...) “*Behin borrokaraz* gero, haren jainko-
lama desagertu egingo da”⁵⁹. (*baztardoak* geureak)

57 “Pascua” *Ibidem*, 1457-1460.

58 SATRÚSTEGUI, J. M^a, *Mitos y creencias*, o. c., p.140. Cf. SORAZU, E., *Antropología y Religión en el Pueblo Vasco*, o. c., p. 264-265.

59. *Gilgames*, IV,IV,3-4;V,II, 11

Humbaba erail zutenean haren *basoko* izaien eta eretzen urruma entzun omen zan lau leguatan. *Beste batzuren* ustez, *Humbabaren burruka* ez omen da eten oraindino. Niniven kontatzen zutenez, *Humbabak* jainkoaren zigorra agindu omen zien *bere* arerioei, hala gertatu *bai-zen*⁶⁰. *Humbabak* eta *Basajaunek*, *bestalde*, ozenean *abotz bildurgarria* zuten *biek* ere, ile luzea eta oin *bata*, zuhaitzarena *bezala*, *borobilki* eratua. Sumerian Gilgamesek eta Enkiduk egina egundaino egin da Irati aldean, zuhaitzak eraso eta *ibaian behera* eraman. Egoki zen *Basajaun bezelako* geinuren *batek* Iratiko *basoen* zaindaritzan *bularra* ematea. *Basajau-nären* ondoan, haren emazte *Basandere* ere aipatua izan da gure artean, Mariren kalitate batzuren jabe egiten delarik. Gizakia, ekologista izan ezpalitz, ez zuan halako mitorik asmatu ere eginko. *Ba* daki, nonbait, izadiaren ederra ahienatuaz *batera*, kosmoko jakinduria desagertzeko arriskua legokena eta gizarteko jakinduria hutsak gizakia erratura eraman lezakena.

Basakoipetsu: Hala deritso Inoteko Eguen Gizenez/Gordo lagunekin mendian egiten den jataldiari. “Gordo, gordin” egiturek Ekur medi tenploko opariak eta jataldiak, Korniteak bezala, gogoratzen dituzte. Aldi beretsuan egiten den “Kanpomartxo” mutil hasiberrien gonbitea dirudi, Kantabriako “marzas” bezala.

Begizko, begigo: Egitiar esakerak dinonez “*bizia* kendu-asmoa du *bere begian*”⁶¹, *begian*=udjat(e) dakusala udigoa=odiu(l) eta gaitz egin asmoa. Hortik *begizkoa* deritson artezia, maiz eragilearen borondatetik ate zegokena. Ohar, *bestalde*, gauza bera adierazten udigo=*begigo* egituren parekidetasuna edo *begirakun*.

Pachucho=pairudun: Gaisoaz *pachucho=pairudun* dagola esan ohi da. *Patu/Fatu/Hado* jainua entzuna dugu dugu, baina *Pazuzu(s)* jainua bera da. Gaiso ezarleen artean ospatsu lez dager

60 *Ibidem*, p. 35. (N. del T)

61 “ahularen zapaltzailea da, zure *bizia* desagiteko asmoa duen areriora: *bizia* kendu-asmo du *bere begian*. (*La Enseñanza de Amenemope*, VIII, 4, DB.10, (Nota del T.). Cf. “*begitan hartu*”, *bekaitza*=ezin ikusia.



(H)ileta erritoak uné asko ditu, etxetik obira, eleizako liturgiatic zehar. Ohar: (h)ilki, iletari, iletasoinu, ilezkil, ilkhexu, ilkeri. Hilak bere gurasoekin biltzen dira.

baina nolatan argi ez dagola⁶². Izen egiturari bagagozkio, *Pazuzu Patu* jeinuari sagaratua da, *patoso* bezala, *Patuak* hartua. Hortik *pati/patitu(l)*, *pathos(g)*, *pairu/pairo*, *pairudun*.


Hileta, *balio*: *Enlil/Erio* ziran lehen giza aduaren erantzule (Ikus *Enlil* gezi eta arkudun 38 or.) *Erio* ere tailuaz harmatu idurikatzen zan. Gero dator *Balbea*, *Baalen pekoa*, harek *biltzen bai*-zitan *hilak Iburnian*. Han zuten *bilera*. *Hila*, *bestalde*, zapietan *biltzen* zan antxinako Sortalde Hurbilean eta zorionerakoa zan "hila gurasoekin biltzea hil ostean"⁶³. *Balio Balu/Baal* jainkoak bizita heriotzaren artean duen burrukatik⁶⁴ analogizatzen da, "balia dezaigula", "válame Dios", *balhore*, *valor*, etab.

Abelgorri=Beigorri: Geinuok "Idittuen" lehengusuak dira eta haiei *bezala* iduzkiaren lezak eta kobak, ots, *ekur*=jainkoen tenploak zaintzeko arazoa egozten zaie, iduzkiak ezelako kalte edo *begirale* gabe mendi birako zuluneak igaro ahal zitzan. Hala *Mari Yonagorrik* zaintzen omen zuan *Anie mendiko bere koba*. *Ekuri>gorri* etorri da, *Egurmendi/Gorramendi>Mendigorria* bezala. *Yonagorri*=*Dona+kuria+Kobako Dama/Arpeko Saindua*.

62 LIMET, J., "DEMONIOLOGÍA (religión sumeria y acadia), DR, o.c., p. 416-417

63 "Enterramiento", Dic. B., o.c., p. 563-565

64 *Lucha entre Ba'lu y Jammu, Lucha entre Ba'lu y Mot*, - MLC.



Pilota era askotara jolasteko jokua: *bola*, *ball*, *balón*, *pila*, *borobila* ere bada, *borobil bildua* edo *biloz* eraturia denez. Ilutu>iluso/bilutu>pilosu>hiletsu dator.


Pilota: *Pilota* jokua eskurik esku, gora eta behera *botaka*=*balon(g)*, eguzkiaren gora eta *beherako* ariketak eta *borobil* a eta jokua analogizatzen (Es 8, 30-31). Ilutu>iluso/elios/sole dator eta *ba-* aurrizki duela,>*pilota* dator analogiaren *puruz* giza *baitako* edo norbere ilusio=lilurakoa egiten delarik. “*Pila lusoria*”(l)=“jo-lasteko *pilota*”, *pello/pulsu(l)*=*bultz* adizkera ere sortzen du.

Berbako gizona: Aramear jakinduriak *berbazko* kulturari berea ematen zion: “Baina itunbenak betetzen badituzue eta hik dinok:”Hemen *berbako gizona zegok*⁶⁵. Ahoz-ahozko kultura landu zutenek hitzari ematen zioten garrantzia. Hagatik,“eman-dako *berbea/hitza* sor da” dino *beste* euskal esakera *batek* ere.

Baita/bait/bada: “Ene *ba!* Ene *bada!* Ene *baitan*” egiturak norberegandik ate, norbere “*etxea*” adierazteraino analogizatzen da: Agerre-*baita*, etab. Horixe bera dino *bit(s)* eta *bet(ar,h)* jainkoei eskeini txabolak ziran. Horrela *Bet-El*, *Bet-Shan*, etab.⁶⁶. Hortik “egin *bait-zuan*” kausa adierazteko erabiltera pausoa dago.

65 *Los tratados arameos de Sfiré*, I,B, 25-26, DB, nº 23, p. 86.

66 “*Bet-El*”, Dic. B, o.c., p. 229-235)



a) *Exe/etxe/etze, esol/etxol, txal/txabola/basetxe/etxe, etab.* b) Lagashko Gudea esku batuz eskutatzen du gonan izkribuz duen eskubidea. *Eskuko da, eskubideen ezkuta.* c) *Eskuma-ezkerrak jasorik, jainkoari eskerrak eskatzen.*


4.7. She sendiko mito-erritoen une arruntak

Exe/etxe/etze: *Esagila(s)* “*etxe gaila*”, *Ziguratu* “*etxe garatu*” (Ikus 48 or.) *sagaratuok* ekur(s) “*menditar tenploaren*” ordez erai-ki ziran urian, *Sakara*, lehen piramidea bezala. Erritoz *sagaratu santutegiotan* (Ikus 80 or.) *jainko txertuz santu izate zehatza eskuratzen* zuan sinistedunak, *basafurutakiak sagar=sachra(l)=ezti* izatea lortzen duen bezala (Errom 11, 17-24). Analogiak dira.

Sakara/sagarra: Frutakietan basatia garratza da, baina *txertuaz gero, eztitu* egiten da. *Eztia=sachara(l)* da. Hala analogizatzen da *sagarra* frutaki preziatu bezala eta hagandiko edaria *sagaratua>sagardoa* da, Marik eta jainkoek preziatua.

Esku/eskubide: “*Bere eskuan dago*”, “*eskuko naiz*”, “*eskubidea dut*”, etab, esakerek *eskua/eskoia/eskuma* jaso edo ukabilkatzen du. *Esku* giza arketipoak dira, *gizarte-arazoa* da, *gizarteak erabagi* eta *eskubide* egiten duena. *Eskatu, eskondu/ezkondu, eskatimatu, eskutu, seguru, segurantza*, etab. Norberak *eskuratzen* du *saria* edo *zigorra* eta *eskarmentuak zigurtatzen* du.

Eskar/ezker: *Eskuko* dena *gizarteak sor dio gizakiari*, berezkoa du. Nahiko du *eskumaz eskatzea, esca(l)=ezkurra*, adibidez. Baina *eskuma* ta *ezkerra* biak jasotzen dira *jainkoei otoi*tz egiteko.



Zekorrak menditik plazara (Falzesen). Beel-Pegor abelgorri/behigorrien eta ekur menditarraren ereduok dira. *Eskorta* egiturari dagokionez, ostera, *xekor/zerkor* da.



Zamalzain Zuberoko Inotean. *Shamashen zamaria*. Herri jakintzak abereon jabetza norena den jakin nahi du jainkoena ala gizakiena.

Eurakandiko lorpena *eskarra* da, *sagaratua* deino, hagatik jainko-dohaia adierazten duen arketipoa du atzizki.

Shamas/zamari: Ra(e)=iruzkia organ bezala, *Shamas(a)*=Utu=eguzkia *zamarian* ibiltzen zan *zeruetan*. *Shamash* ibiltarien, *zamarrien* eta mezularien gidari zan⁶⁷. Judako erregeek *zaldiak*=*zamariak* eta gurdiak *eskeintzen* zizkioten *Shamashi*. (2Er 23,11). Inoteetako *Zamalzainak* bere tituloak gorde nahi lituzke.

Shamshu(a)>*Sancho*: *Shanshu* jainkoak *Santxomendi/Sansomendi santutegiak* ditu Euskal Herrian. *Santxo* Baskoniako dukeen (s.viii) eta Nafarroan *Eskalerriko* erregeen *izena* (s.x), Aritza eta Tosse errege-erreginaren izenak ere Aritzmendin edo Montosan agertzen direla. Sumeria eta Egiptotik honaino erregeek *jainkoen* ereduekin lotu-nahia-edo adierazten zuten.

67 *Himno a Shamash*, 65-73; 130-140. Cf. *zama*, *zamarikatu*.



Eskolak azkar eta jakitun egiten ditu etxeke seinak. Eskola-umeen sena xedatzeko eta euren asmua jakindurian eta jakintzan eskolatzeko eskubidetik dator. Esi/esola fisikoak eskola erakundea ezeze, ezi/hezi, heziketa sikikoa dakar ondorio.

(H)azkuntza, azaiera: Sendia, bertaxutu ondoren, seintxoen azaiera=hezker=hezkontza eta eskola=skhole(g) dator. Hiztegiaren berrikuntzak jainkoen mundua eta gizarteko arazoak bereizi nahi zituen. Gizakien hutsak ez zitzairen egotzi behar jainkoei, gizakia bere burutapen eta ekintzen erantzule izan behar bai-zuan. Arketipoen pedagogia nausitzen zan: gizakiak gizakiez gizakiro bere gida eta gisa bailitzan. Harrezkero ino>esan da, ñau>xan, beza/(h)ezi, bezatu/avezar>(h)ezitu bereizten dira, beretu>beresi=separar/berezi=excoger. Giza ahalmenak izentatzen dira: sen, seny(ca), sentsu, sensu(l), zentzu, sentido, jeinu, haren jarkerak: esaneko, sensato, serio haren azkurriatzea: jan=jamar, jeinhatu=saginhatu(l)=sainar, sanoa izan zedin. Eskola Eskolamendin edo okuiluan abereak etxekotzeko toki-izena seintxoak jakinbide orokorrean eskolatzeko tokiak hartzen du analogiaren puruz, gregoeak eta latinoek ere skhole/schola

erakundea aintzat hartzen bai-zuten.

Aizkora=securi(l), zekor: *She* ereduko hitzetan eztabaidatuena *aizkora* da. Zenbait hizkuntzalarik *aitz+gora* aglutinatzetik datorrelakoa aipatu dute. Norbaitek, hori dela-ta, “Harri Haroko hizkuntza” deitu zion *euskarari*. *Aizkorak* oinastarriaren aurkako artezia zeukan antxina, ausaz, oinastarriak bezala, *aizkorak*, harriaren kontra joaz, txispak urtikatzen dituelako. Hगतिक *aizkorea* borda aurrean ahoz gora *jartzen* zan, oinastarria *jausiala*, bertan moztu eta ler zezan. Ekaitzaren (*h*)*aizeari*, bere haren ostots eta oinastarriari, *Ishkur(s)* deritso sumerieraz eta hodeiaren gainean lauoinkatzen zuen “*Zeruko Zekorra*” zan, jainko indarren adigarria⁶⁸. *Ishkur izan* diteke *aizkora/aizkora=securi(l)=segur* egituren ezeze, *zekor* hitzaren aurretikoa *eskurian* guritzen zena. Hitzaren egiturak ezeze, elkarren kontrako *zioak* lotzen ditu, *etxeari* halako *segurtasuna=ziurtasuna* emanaz. *Eskuriamendi/Ezkorrimendi sagara* lekuak.

Eskudantza, Sagardantza: *Eskudantza* gizarte berriko dantzak dirudie, *ezkongaiak* *eskutik* oratu herriko plazan elkarren ezaupidea egitekoz. *Sagara=sagar dantza* mutilena eta neskena bereizten da, *ezkongaiak* bizitza berrian *sagaratzeko* alegia⁶⁹. *Sagarra* deitzen zaio Inanaren maite-poematariko⁷⁰ bati. (Ikus *sagardantzarien* eta Inanaren tuturroak 60 or.)

Seta/xede: Giza jarkera bi dira eta, arketipo bereko izanik, hiz-

68 *Ishkur*, Hodei jainkoa Sumerian. (LIMET, H., “ISHKUR (religi3n sumeria)”, DR., o., c., p. 868) Cf. *Eskuriamendi/Monsegur*, *Eskuria/Segura* tokizenak eta *aizkora/sekuri(l)=segur*, *ziur izenak* lekuko.

69 *Sachara=eztika sagar* mota da, *eztitzek* ematen dion kalitateaz, *sagaratua*. Erritoak *ezti/eztai* analogizatzen du jainkoengandiko *eztia*, *eskar* egiten zaiola. *Sagar-kantak* maite alegiak dira “*sagarrez sendatu* nazazue, maiteminak bait-nago” (Kant 2,5) “Mantelina buruko, erreala bolsako, zarra baino gaztea obe du besoko” abesten duenean, maite aukera adierazten da.

70 *The ecstasy of love*, ANET-639-640. Poema honek zati bi ditu *sagidda* eta *sagarra*. Hemen Dumuzi maitalearen errai *sagaratuak* gorapatzen dira. Dumuzi “datil biltzailea” dager *Love in the Gipar*, 2-3 poeman. (ANET-638)



Aurreeskua, Sokadantza eta Eskudantza bezala, idekia da, guztiak esku-hartzera gonbidatzen ditu. Plaza erdian denen mira eta txaloa duela, eskua gizarteko eta her-kidegoaren erakutzi aparta da.

kera arteziaz bereizten dira. *Seth*. jainkoak ezin xedatu setakeriaz Osiris anaia erail zuan eta hagatik *Satankide* bihurtu zan⁶⁵. *Xedak*, *Shedu(s)*, acadiarren Udug, aingeru zaindariak” eta *Sad-day(h)* “jakintzaren Jainkoak” bezala gidatzen du “gizonak asma, Jainkoak xeda”, esan ohi denez.

Zendua/zaindua: *Zendua zaindutzat* eukia izan da, bada “Jainkoaren eskuetan dago”. Era berean “behetua beatoa=beatu(l)” da beste barik. Hala semitarren ustez⁶⁶ edo hilerriari “Kanposantua” deitu eta Donesantorez hilak ospatzen dituzten kristauek ere. Euskararen arteziak helkarkide egiten ditu *zendu/zaindu*.

Etxabira, chápiro: Magiazko artezietan bat *sahiru(s)*⁶⁷ zan Sumerian eta *zerbaiten* edo *norbaiten* inguru birak egitean zezan. Harriskutsua zan, hagatik, iluntzean *etxeari* hiru bira ematea. Deabruak/*etsaiak*=*chápiro*=*chapino(it)* ezustean atzapartuta eraman zezaken ausartoa. *Xapi=zape*, beraz, *etsaiari*.

Zarrapo/sarrapu: Sumeriar *jakintza* kexu da: “Jainkoak ez dio *Sarrabu* deabruari bidea eragozten”⁶⁸. Deabrua *atzapardun* irueta, *sarradak*, *sarrapuak*, *sarraskiak* egiteko aparteko gaitasu-

65 MALAISE, M., “SETH”, DR, o.c., p.1642.

66 “Muertos”, Dic, B, o.c., p. 1308-1311.

67 VIDAL, J., “MAGIA Y TÉCNICA”, DR., o.c., p. 1061-1062.

68 *El Diálogo acróstico*, XXIII, 244, DB., nº26.

na erakusten du. *Atzapar/zarrapo* egiturak, nahiz apur bat bihurritu, arketipo berekoak dira eta zioa eta ekintza andana erakusten datoz datoz hizkuntza artezian.

